



Euskara bideo
jokoetan: 'gamer'
euskaldunak

Gorka Moreno,
atzeritar jatorriko
immigrazioaz

75 URTEREN OSTEAN ERE, GOI MAILAKO LANGILEAK TREBATZEN

Goi Eskola Politeknikoak 36.000 teknikari eta
ingeniari baino gehiago prestatu ditu / 4



Argazki nagusia, gaur egungo ikasgela bat Goi Eskola
Politeknikoan; argazki zaharrean, Biteriko ikasgela bat.

XABIER URZELAI



'Memoriaren plaza'
unibertsitateetara
ere hurbilduko da,
MUn lehen geldialdia
eginda / 3

**Bitorianatxoren
jaitsierarekin,
Pazkoetako jaiak
lehertu egingo dira
gaur Bergaran / 26**

**Shot! grabazio
estudioan urteetan
egindako grabaketen
master-kopiak galdu
egin dira, erreta / 40**

**Emakumeen Bira
astelehenean
Aretxabaletan,
eskualdean barrena
pedalei eraginda / 31**

SINADURAK



JOXAN
LARRANAGA / 6



AITOR
OROBENGOA / 11



ANDER
ETXEBERRÍA / 48

ALKIDEBA
SOLUZIOAK ALOKATZEN DITUGU
MAKINERIA ALOKAIRUA
ERAIKUNTZARAKO ETA
INDUSTRIARAKO
Maltzaga - Soraluze errepidea.
Tel.: 943 75 15 54 • Soraluze (Gipuzkoa)
Goitondo industriagunea, 3. pabellioia
Tel.: 943 17 13 62 • Mallabia (Bizkaia)
administracion@alkideba.net
Saskibaloi taldearen babeslea
OINTXE!





Pio Garcia doktorea, kirurgia egin aurretiko azterketa batean.

"Espezialistak zure begiak eta ikusmena zaintzen"

PIO GARCIA OFTALMOLOGOA

Zein paziente egin dezakete presbisia ebakuntza? Eta zein betebeharrak daude ebakuntza egin aurretik?

Betaurrekoak erabiltzen dituen eta ikusmen ona duen 40-45 urtetik gorako edozein pertsonari egin dakioke ebakuntza.

Hori dela eta, kirurgia egin aurretik, ezinbestekoa da azterketa bat egitea, gaixotasunik ba ote dagoen baztertzeko: glaukoma, makulako endekapena edo keratokonoa.

Zenbat denbora behar da osatzeko?

Jeneralean, ebakuntza izan duen begiaren ikusmena lausoa izango da ebakuntza osteko 24-48 orduetan. Horregatik, pazientearen lehenbailehen buelta dadin bere egu-

neroko bizimodura, lehenengo, begi bat operatzen da eta handik aste batera, beste begia. Horrela, ebakuntza egunean bertan, arratsaldetik aurrera, bizimodu normala egin dezake pazienteak.

Zeri esaten diogun bizimodu normala? Paseatzeari, telebista ikusteari, irakurtzeari, ordenagailuan ibiltzeari, eta abarri. Edozelan ere, badaude jarduerak ezin direnak ebakuntza osteko bi asteetan egin; adibidez, bizikletan ibiltzea eta korrika egitea. Kontaktuzko kirolak ezin dira hilaite igaro arte egin –igeriketa barne–.

Era berean, ez da komeni 15-20 kilotik gorako pisuak hartzea,

baina ez dago arazorik, adibidez, erosketa-poltsa hartzeko.

Zertan datza ebakuntza?

Hiru fokuko leiarrekin egiten den ebakuntza zertan datzan ulertzeko, atun-lata batekin egingo dugu konparazioa. Hasteko, atun-lata irekiko dugu; gero, hustu egingo dugu; eta azkenik, leiarra barruan jarriko dugu. Leiar horrek ahalbidetuko digu urrunera eta gertura ikusi ahal izatea.

Zenbat irauten du? Ze anestesia mota erabiltzen da?

Kirurgiak hamar minutu inguru irauten du, anestesia topikoarekin; hau da, begietan tantak botata. Gainera, ebakun-

tza egiten ari den bitartean, anestesista bertan egoten da, pazientearen zelan dagoen ikuskatzeko eta haren antsietatea baretzeko, beharrezkoa balitz, sedazio bidez.

Ze arrisku dakar ebakuntzak? Ze konplikazio-maila sor dezake?

Oso ebakuntza segurua da. Edozein ebakuntzatan izan daitezkeen konplikazio larrienak infekzioak dira: 3.000 pazientetik lek jasaten ditu.

Ebakuntza egin aurretik, sintoma posibleak jakinarazten zaizkio pazienteari, eta, horrelakoren bat badauka –begia oso gorri, mina...–, larrialdi zerbitzuetara joan behar du, infekzioaren edo konplikazioaren bat ote dagoen egiaztatzeko eta lehenbailehen artatzeko, txarre- ra joan ez dadin.

Beste konplikazio batzuk ere izan daitezke: gaueko haloak, adibidez. Ez dira larriak, baina bai desatseginak. Jende askok dio, gauez, gidatzen dabilela, auto bat aurretik badator, puntu bat beharrean –bonbilla–, izar bat ikusten dela –haloak–. Denborarekin, desagertu egiten da fenomeno hori, baina pertsonaren araberakoa da haren iraupena. Egunak, asteak edo hila- beteak iraun dezake.

Zein da pazienteen asebetetasun-maila mota horretako ebakuntza bat egin ostean?

Pazienteen asebetetasun-maila %99koa da. Jeneralean, pozik ez dagoen jendea izaten da ez dituelako ebakuntzaren espektatibak ulertu. Gauza bat argi izan behar da: sekula ere ez dugu ikusiko 15 urterekin eta betaurrekorik erabiltzen ez gunden garaian bezain ondo. Ebakuntzaren helburua pazientearen bizi-kalitatea hobetzea da. Hau da, egunerokoak egiteko gauza

izatea, baina betaurrekoak erabili barik: hondartzan ikusi ahal izatea, jatetxe bateko karta irakurri ahal izatea, euria denean betaurrekoak ez bustitzea eta ez lurruntzea...

Alegia, betaurrekoekin hobeto ikusten dugu argi gehiago dagoenean eta okerrago, berriz, ilunago dagoenean; eta ebakuntzaren ostean gauza bera gertatuko zaigu. Era berean, norbaitek guk baino ikusmen hobea baldin badu nahiz eta guk betaurrekoak erabili, pertsona horrek guk baino ikusmen hobea izaten segituko du guri ebakuntza egin ostean; izan ere, pertsona garaiak eta txikiak daude, eta ikusmenarekin ere gauza bera gertatzen da. Batzuek beste batzuek baino hobeto ikusten dute.

Ebakuntza honek duen onura nagusia zera da, betaurreko progresiboak erabiltzearekin konparatuta: ikuseremua zabaldu egiten dela. Betaurrekoekin, kristalaren bidez bakarrik ikusten dugu, eta, adibidez, atzerako ispilu bat ikusteko burua mugitu behar dugu; leiarrek, berriz, angelu guztietatik ikustea ahalbidetzen digute.

Beste abantaila bat da betaurreko progresiboekin urrunera ikusteko kristalaren goiko aldetik begiratu behar dugula eta gertura ikusteko, berriz, kristalaren beheko aldetik. Edozelan ere, ebakuntza egin ostean, hauxe bakarrik egin beharko dugu: begiratu eta enfokatu, burua mugitu barik.

"PAZIENTEEN ASEBETETZE-MAILA %99 DA"

Adituak zure begien osasunean

Oftalmologia zerbitzua

Espezialistak zure begiak eta ikusmena zaintzen.

- Kirurgia errefraktiboa
- Kataratak kentzeko kirurgia
- Ikusmen nekatua osatzeko kirurgia
- Glaukoma tratamendua

Hospital Quirónsalud Vitoria
Esperantza kalea 3. 01002 Gasteiz
945 252 500

Hospital **quirónsalud**
Vitoria

'Memoriaren plaza' unibertsitatera heldu da

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko 7. eraikinean egongo da ikusgai erakusketa, maiatzaren 25era bitartean. Euren esperientzia kontatzen duten biktimen eta herritarren lekukotzez osatzen da Gogora Institutuak prestatu duen erakusketa

Miren Arregi ARRASATE

Atzo, eguena, inauguratu zuten eta maiatzaren 25era bitartean egongo da bisitatzeko aukera. *Memoriaren plaza Unibertsitatean* izena du erakusketak eta Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko 7. eraikinean dago ikusgai. Ekimenak Eusko Jaurlaritzaren eta hiru euskal unibertsitateen arteko bizikidetzarako eta giza eskubideetarako konpromiso partekatua du abiapuntu.

Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxak eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren idazkari nagusi Jonan Fernandezek inauguratu zuten, atzo, *Memoriaren plazaren* espazioa.

Proiektua herritarren parte-hartzetik eraikia da. Duela bi urte ekin zitzaion, memoria anitza eta partekatua eraikitze-ko helburuarekin. Horretarako, Euskal Herrian azken hamarkadotan gertatutakoa islatzen duten testigantzak erakusgai ipini ziren. Erakusketa ikustera doanak, beraz, Gogorak memoriaren inguruan jaso dituen testigantzak entzungo ditu. Euren esperientzia kontatzen duten biktimen eta herritarren lekukotzak, bai eta gazteenak, haiek



Fernandez, Ubarretxena, Atxa eta Ezenarro atzoko ekitaldian. ARANTZAZU EZKIBEL

lehen pertsona bizi ez badituzte ere, gertatutakoaren inguruko hausnarketa egiten dutenen lekukotzak. *Memoriaren plaza* ekimena unibertsitatera eroan bada, izan da, ikasleek beraiek bizi ez duten iraganean gertatutakoari buruzko ikerketa kritikoa sustatzeko.

"Urrats garrantzitsua"

Mondragon Unibertsitateko errektore Vicente Atxak atzoko inaugurazioan adierazi zuenez, pozgarria da "Mondragon Unibertsitateak azken urteotan

Euskadin lantzen ari den bake-prozesuan laguntzea. Mondragon Unibertsitatean uste dugu oso urrats garrantzitsua dela bake-gintzaren eta bizikidetzaren plan integrala egitea".

Jonan Fernandezek iritziz, *Memoriaren plaza* ekimenak unibertsitatean ibilbidea hasi izana oso albiste garrantzitsua da. Izan ere, "hitzaren, arrazoiaren eta elkarrizketaren balioak etorkizun hobe baten esperantza irekitzen du, iraganari buruzko hausnarketa kritikoaren inguruan oinarrituta".

'Bideak gurutzatzen', gaur, Kultureteko areto nagusian

Ibarrean bizi diren emakume musulmanen errealtatea kontatzen duen dokumentala proiektatuko da, 18:00etan

M.A ARRASATE

Kultur aniztasunaren hilabetea da Arrasaten, eta gaur, egubakoitza, eskualdeko emakume musulmanen gaineko *Bideak gurutzatzen* dokumentala ikusteko aukera egongo da Kultureteko areto nagusian, 18:00etan hasita. INME emakume musulmanen elkarteak eskatuta, Itziar Bastarrika oñatiarrak eta Iratxe Esnaolak egin dute dokumentala. "Emakume musulmanek zapalketa bikoitza jasaten dute. Gure artean bizi dira, gure parte dira, baina ez ditugu ezagutzen.

Oso errealtate ezberdinak bizi ditu bakoitzak, guk denak zaku berean sartu arren", dio Bastarrikak. "16 urte eta gehiago daroate hemen, baina gaur egun, oraindik ere, errealtatea da euren lagunak direla euren jatorri berekoak". Zortzi emakume dira dokumentaleko protagonistak eta gehienak Arrasatekoak dira. Bizi duten errealtateaz eta egunerokoaz berba egiten dute, zergatik utzi zuten euren herrialdea, zer aurkitu duten hemen... Emanaldiaren ostean, solasaldia egingo da.

Edesa Industrialek ezin izango du Fagor marka erabili

Edesa Industrialek konpromisoak "ez dituelako bete" aurkeztu zuen auzi eskea Fagor Kooperatiba Elkarteak -2017ko abenduaren 15ean-. Eta epaileak "osotasunean" onartu du hark eskatutakoa. Honela dio ebazpenak: "Argiak izan dira Edesa Industrialek hartzekodun konkurtso aurreko ez betetzeak. Kontratuaren indargabetzea baimentzen da, hartzekodun legearen 62,1 artikuluari jarraiki". Horrela, Edesa Industrialek ezingo du Fagor marka erabiltzen segitu, "salbuespenekin". Fagor marka erabiltzeko eskumena izango luke stockean dituzte produktuak saltzeko eta bezeroei euskarri teknikoak eskaintzeko.

Pello Zabala eta Sabin Salaberri ohorezko euskaltzain dira

Euskaltzaindiak, apirilean Bilbon egindako osoko bilkuran, hamasei ohorezko euskaltzain berri izendatu zituen, bost emakumezko eta hamaika gizonezko. Tartean dira Pello Zabala Arantzazuko frantziskotarra eta Sabin Salaberri aramaioarra.

Euskarari egindako mesede bikainengatik nabarmendu diren artean hautatzen dira ohorezko euskaltzain izango direnak. Pello Zabala frantziskotarra, idazlea, irrati aurkezlea, musikazalea eta meteorologoa da. Aramaion jaiotako Sabin Salaberri, aldiz, musikaria eta irrati esataria da, eta bere lanetan leku nabarmena egin dio beti euskarari.

Arizmendi Ikastola PRO

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

Zure Lanerako Bidea

Ate irekiak maiatzak 22 FERIXALEKUAN 18:00

→ Kirola

→ Erizaintzako zaintza osagarriak

→ Mikroinformatika

→ Osasun larrialdiak

943 77 20 25 (ext.4322) • lanbideheziketa@arizmendi.eus

www.arizmendipro.eus

75. urtemugan, iragana gogoan

Aurten, 75 urte egingo ditu Mondragon Goi Eskola Politeknikoak. Eta, horren harira, hainbat ekintza antolatzen dabiltza ikasketa zentroko arduradunak



Biteriko egoitzan, ikasleak, On Prudencio Osinaga irakaslearekin. ESKOLA POLITEKNIKOAK

ATE IREKIAK

UNIBERTSITATE GRADUAK

Auto baten xasis-a 3D inprimagailu baten eraiki dugu.

Nerea Sanchez Echevarreta

Errenteria. Prozesu Industrialetako Ekoteknologiaren Ingeniaritza, 3. maila

GOI ESKOLA POLITEKNIKOAK

ARRASATE • MAIATZAK 26*
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

GOIERRI • MAIATZAK 26*
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ORONA IDEO • MAIATZAK 26*
LARUNBATA, 10:30 / Areto Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

BIDASOA • MAIATZAK 17
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

OÑATI • MAIATZAK 24
OSTEGUNA, 18:00 / Areto Nagusia

* Batxilergoko lehen mailan dauden ikasleei zuzendutako ate irekia

902 110 436
www.mondragon.edu/prest

Iker Oñate DEBAGOIENA

75. urtemugaren ospakizunetan murgildurik da Mondragon Goi Eskola Politeknikoa. Gaur du ekintza sortako lehen hitzordua: 2016-2017 promozioaren diploma banaketa egingo dute Kursaaalean, 17:00etan hasita. Eta ekitaldi instituzionala izango dute ostean; erakundeetako zenbait ordezkari izango dira bertan. Urrian, ostera, herritarrei zuzenduriko zenbait ekintza egingo dituzte.

Hain zuzen ere, azken urteetan talde ezberdinetan banatuta egin izan dute diploma banaketa, leku faltak eraginda. Aurten, baina, ekitaldi bateratua egingo dute; 470 ikaslek jasoko dute euren diploma -graduak, masterreko eta doktoretzako ikasleak-. "Arrasaten egin gura genuen. Baina ez dugu halako ekitaldi bat antolatzeko lekurik. Besteak beste, kontuan izan behar dugu ikasleez gain, euren ingurukoak ere etorri ohi direla ekitaldira -1.500 lagun inguru-, azaldu du Carlos Garciak, Eskola Politeknikoko koordinatzaile orokorrak. Era berean, esan beharrekoea da Goi Eskola Politeknikoak Arrasaten, Ordizian eta Hernanin dituela ikasketak zentroak.

Horri lotuta, jakitun dira Donostiakoa "mesedegarri" izan dakiekeela kanpo proiektuak: "Esan daiteke, gaur-gaurkoz, Gipuzkoan ez gaituztela gura moduan ezagutzen. Horri kontra egiten lagun dezake Kursaaaleko ekitaldiak".

Eta, bestetik, ekitaldi instituzionala egingo dute diplomak banatu ostean; erakunde publikoetako ordezkariak, enpresa munduko jendeak eta ibilbidean eskola politeknikoko kide izan diren zenbaitek -omenaldi modukoa da eurentzat- esku hartuko dute hitzorduan. Hala,

besteak beste, Kursaaalean izango dira Iñigo Urkullu lehendakaria, Arantza Tapia Ekonomiarren Garapen eta Azpiegutura Sailko sailburua, Maria Ubarretxena Arrasateko alkatea eta Iñigo Ucin Mondragon korporazioko presidentea.

Oinarriak akorduan

Urteurrenak mugarri garrantzitsu izan ohi dira oinarriak gogora ekartzeko. Eta Eskola Politeknikoaren kasua ez da salbuespen. "Bestelako gizarte-ordena sustatu gura zuen Jose Maria Arizmendiarririk, giza-tiarra eta bidezkoa. Horretan dihardugu", dio Garciak.

Zehatz esanda, Arizmendiarririk 1943an jarri zuen martxan Lanbide Eskola, Arrasateko Biteri Eskolan. Eta hedatuz joan da ordutik hona. Finean, asko dira ikasketa zentroaren ibilbidean esangura duten gertakariak. Tartean, arduradunek akorduan dute industria-perituen alorrean diploma eskuratu zuen lehen belaunaldia -haien arrastorik ere bada gaur egun-; Zaragozan jaso zuten aitortza, 1952an. Eta, ostera, horietako zenbaitek sortu zuten gaur egungo Fagor, Ulgor izenpean, 1956an. Lehen industria kooperatiba izan zen hura. Modu berean, gaurkora gerturatuz, ahaztu barik dute Mondragon Unibertsitatearen sorrera: 1997an sortu zuten Eskola Politeknikoak, ETEOk eta Irakasle Eskolak.

Liburua eta ikus-entzunezkoa

Bestetik, 75 urteko historia laburtua helarazi guran, liburua eta ikus-entzunezkoa plazaratu ditu Mondragon Goi Eskola Politeknikoak. 75 urte jakintza sustatuz, etorkizuna erakitzen bataiatu dituzte horiek. Gura duenak Mondragon Unibertsitatearen

tatearen webgunean eskura ditzake. "75 urteek emandakoa-ren zenbait zertzelada bildu izan ditugu horietan, ahanzturan eror ez daitezen. Finean, etorkizunari buruzko zantzu ugari ematen ditu iraganak", argitu du Garciak.

Herritarrei lotuta

Arrasateri eta ibarreko herriei lotuta segi gura du Eskola Politeknikoak. Eta horrekin lotuta antolatu ditu urtemugako zenbait ekintza. "Gizartearekin

dugun konpromisoa berretsi gura dugu, herritarrei zuzenduriko zenbait ekintza antolatuz", dio Garciak.

Bestetik, "eskerrak" emateko aprobetxatu gura dute urtemuga: "Eskerrak eman gura dizkiegu urte hauetan Mondragon Goi Eskola Politeknikoaren parte izan direnei –ikasleak, irakasleak, enpresetako kideak...–".

Gizartea eta Eskola

Esan moduan, Mondragon Goi Eskola Politeknikokoek gizar-

tera hurbiltzea dute helburu. Eta "ikustea horren erraza ez den arren", ziur dira hezkuntza zentroak egiten diola ekarpenik hari. "Hezkuntzaren palanka darabilgu gizartearen bilakae-rarako. Esan daiteke Eskola

GAUR BANATUKO DITUZTE 2016-2017 PROMOZIOKO IKASLEEN DIPLOMAK, KURSAALEAN

Politeknikoak eragina izan baduela gizartean, ibarreko enpresetatik hasita. Eta horretan segitzeko asmoarekin dihardugu", aitortu du Garciak. Horri lotuta, gogora ekarri du "jende asko" joan ohi dela ikasketa zentroaren hezkuntza eredua ezagutzera: "Aparteko jardun modua du".

Era berean, Garciak berretsi du "proiektu soziala" izaten segitzen duela Eskola Politeknikoak. Matrikulei egin die erreferentzia: "Guztientzat izan gura

dugu irisgarri, eta horretarako ahaleginean dihardugu. Alor pribatuaren barruan, esan daiteke nekez topatu daitekeela ingeniariak hemengo matrikulekin heziko dituenik. Gainera, bekak ere baditugu eskuragarri". Hainbat enpresaren ekarpenek eragina dute horretan; besteak beste, beharrezko dituzten bitartekoak –materiala, azpiegiturak...– lortzen laguntzen diete Mondragon korporazioaren enpresek eta Fagor Taldearen Gizabidea Fundazioak.

"Herrira hurbiltzeko ahaleginean dihardugu"

CARLOS GARCIA ESKOLA POLITEKNIKOKO KOORDINATZAILE OROKORRA

75. urtemugaren ospakizunean murgildurik, atzera begirakoari –eta etortzeko dagoenari– begira jarriak dira Mondragon Goi Eskola Politeknikoko kideak. Hain zuzen ere, horien inguruan egin du berba Carlos Garciak, Eskola Politeknikoko koordinatzaile orokorrak.

75. urtemugan zaudete. Askorako tartea dago urte horietan guztietan... Laburbilduz, esan genezake 36.000 teknikari eta ingeniari baino gehiago trebatu ditugula. Dena den, nire ustez, zenbakiak ez dira Eskola Politeknikoaren eragin errealearen adierazle. Besteak beste, aintzat hartu behar dugu Eskola Politeknikoan ikasi duten horien jardunak gizartean izandako eragina –guztiok gara horren onuradun... Esaterako, Mondragon Unibertsitateak (MU) ibarrean duen inpaktua neurtu du berriki LKSk. Haren arabera, MU inbertitzen den euro publiko bakoitzeko, 7,6 euro itzultzen zaizkio gizarteari. Beraz, esan daiteke hezkuntzan inbertitzea guztiontzat dela onuragarri.

Eta bilakaerarik ere izango zen 75 urte hauetan, ezta?

Hala da. Ia 25 urte daroztat lanean Eskolan. Eta lehen egunean jabetu nintzen etengabe egokitzen jarduteak duen garrantzia. Jose Maria Arizmendiariaren esanak irakurtzea besterik ez dago; asko laguntzen dute hark esandakoek. Esaterako, erabaki

ausart jakin bat hartu edo ez erabakitzea dagokizunean, Arizmendiariaren esandakoari men eginez, badakizu hartu beharra dagoela. Ondo badoa, oso emankorra izango da. Kontrakoa, aurrera segitzea besterik ez duzu. Finean, horri esker eman ditu zenbait fruitu Eskolak: Saiolan, Ikerlan... **Zein da egungo egoera?** Ikuspegi orokor batetik, esan dezakegu bide onetik doala Eskola Politeknikoa. Oso pozik gaude izen emateekin, ikerketa egitasmoekin... Era berean, leku onean gaude unibertsitateen rankingean. Dena den, guretzat, hori ez da funtsezko. Garrantzi handiagoa ematen diogu enpresen beharrei erantzuna emateko gai izateari. Bestetik, alor pertsonalari begira, esan daiteke Eskolak sekulako ekarpena egiten diola norberari. Lan egitera gatoz geu, gustura; maite dugulako. Eta, duda barik, asegarrria da norberaren lanak gizartean eragina duela ikustea. **Oro har, Eskola Politeknikoak zein ekarpen egiten dio Debagoienari?**

Esango nuke ekarpen handia egiten diegula ibarreko enpresei. Tartean, ezagutza eta hezitako gazteak eskaintzen dizkiegu horiei. Lotuta daude horiek biak. Bada, ezagutzak Eskolako ikasleen bidez transferituz gero, haiek aukera handia izango dute enpresan segitzeko. Eta kooperatzen jardungo dute, gainera. Alegia,

barneratuak dituzte kooperatibismoaren balioak. **Orduan, erdigunean duzue Eskolaren eta enpresen arteko harremana.** Duda barik. Enpresarik gabe, gure jardunak ez luke zentzurik. Argi dugu gurea –beste ikasketa zentro batzuek ez bezala–: enpresen beharrei erantzuna emango dien formakuntza eskaini beharra dugu. Eta hainbat bitarteko ditugu horretarako. Hor daude *dual* izenekoak –lana eta ikasketak



I.O.

"DUDA BARIK, ASEGARRIA DA NORBERAREN LANAK GIZARTEAN ERAGINA DUELA IKUSTEA"

tartekatzea ahalbidetzen du–, gradu bukaerako lana –enpresetan egiten dira gehienak, proiektu errealekin... Eta, aipatzekoa, era berean, gaur egun martxan dugun Teknologia Forua. Horretan, estrategia teknologikoen inguruan dihardugu enpresetako ordezkariekin. Zalantzarik gabe, halakoak baliagarri zaizkigu haien beharrak ezagutzeko. **Eta, aurrera begira, zer?** Eskola Politeknikoaren eta enpresen arteko harremanean sakondu gura dugu –eta landu–, esaterako. Bestetik, herrira hurbiltzeko ahaleginean segituko dugu.

Urtean zehar hainbat hitzordu

Askotarikoak dira Mondragon Goi Eskola Politeknikoak finkatuak dituen aurrera begirako erronkak. Besteak beste, herritarrengana gerturatu gura lukete ikasketa zentroa. Eta horretarako ekintza sorta antolatzen dabilta arduradunak. "75. urtemugaren ospakizuna aitzakia ederra da horretarako", aitortu du Eskola Politeknikoko koordinatzaile orokorrak.

Hori horrela, jada zehaztuak dituzte zenbait ekintza. Besteak beste, teknologiarren bueltako berbaldia antolatu dute urriaren 17rako; nazioarteko adituek esku hartuko dute bertan. Eta, ostera, Korrontzi taldearen emanaldia izango da urriaren 19an. Gainera, hainbat ezusteko prestatzen dabilta egun horretarako; tartean, herriko zenbait kultura sortzailek jardungo dute agertokian.

ULMA C y E, S. Coop.		Oñati
OHIKO BATZAR NAGUSIA • DEIALDIA		
Eguna: 2018ko maiatzaren 25a		
Ordua: 9:00etan lehenengo deialdian eta 9:30an bigarrenen		
Tokia: Arrasateko Amaia Antzokia (Gipuzkoa)		
GAI ZERRENDIA		
1. AURREKO AKTAREN ONARPENARI BURUZKO INFORMAZIOA ETA BAZKIDEAK IZENDATZEA BATZAR HONETAKO AKTA ONARTZEKO		
2. 2017KO EKITALDIKO GESTIO SOZIALA AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO, ETA 2018KO GESTIO PLANA BERRESTEA, HALA BADAGOKIO		
3. ULMA TALDEARI BURUZKO TXOSTENA		
4. 2017KO EKITALDIKO URTEKO KONTUAK AZTERTZEA ETA, ONARTZEA HALA BADAGOKIO		
4.1 2017ko ekitaldiko banakako urteko kontuak aztertzea eta, onartzea hala badagokio		
4.2 2017ko ekitaldiko urteko kontu batenak aztertzea eta, onartzea hala badagokio		
5. KAPITALAREN ORDAINARIA. 2017KO EKITALDIARI DAGOZKION INTERESEN SORTZAPENA		
6. 2017KO EKITALDIKO EMATZAK BANATZEA		
6.1 2017ko ekitaldiko emaitzak banatzea		
6.2 Berezikiak Elreserba Fondeak banatzea		
7. KOOPERATIBAREN BARNE ARAUDIAREN 43. ARTIKULUAK INTERESEN MONETARIZAZIOA NEGOZIOAREN EGOERA FINANTZARIOAREN ARABERA MAILAKATZEARI BURUZ DIOENA ALDATZEA, HALA BADAGOKIO		
8. JARDUERA SOZIALA ULMAN ETA HEZIKETA ETA KOOPERATIBA SUSTAPENIRAKO ETA INTERESEN PUBLIKOKO BESTE HELBURU BATZUTARAKO KONTRIBUZIOA APLIKATZEA (IPDK)		
8.1 2017an IPDKetatik egindako erabilerari buruzko deskargua		
8.2 2018an IPDK-ko zenbaitzako aplikatzeko proposamena		
8.3 ULMAren 2018ko jardura sozialaren ikosten azalpena		
9. BAZKIDE BERRIEN KAPITALERA EKARPENAK		
10. ZAINZA BATZORDEKO KIDEAK BERRITZEA		
11. HURRENGO BATZARRA EGITEKO LEKUA		
12. AHALMENAK ESKUORDETZEA		
13. GALDE-ESKEAK		
OHARRAK: Batzordearen proposamena ULMA C y E, S. Coop.-ri ("Kooperatiba") egiten dihardurik dagoen urteko kontuak, emaitzak aplikatzeko proposamena eta kontuak luze ikusirik egindako proposamena. Batz. Nagusiaren deskargua egia dela aztertzea eta, onartzea. Hala ere, batzordearen proposamena ULMAren 2018ko jardura sozialaren ikosten azalpena. Batz. Nagusiaren deskargua egia dela aztertzea eta, onartzea. Batz. Nagusiaren deskargua egia dela aztertzea eta, onartzea. Batz. Nagusiaren deskargua egia dela aztertzea eta, onartzea. Batz. Nagusiaren deskargua egia dela aztertzea eta, onartzea.		
KONTSEILU ERREKTOREKO LEHENDAKARIA		
Oñati, 2018ko maiatzaren 15a		



ZABALIK

JOXAN LARRAÑAGA

Elkarrekin bizi, elkarri lagundu

Ez dakit Euskal Herrian gehien praktikatzen den kirola zein izango den, baina gehien txertatua eta ordu pila ematen dioguna bai: mahai inguruan egiten ditugun ospakizunak.

- Bazkari familiarrak.
 - Enpresako ospakizunak –hauek ere afari, edo...–.
 - Kuadrillako jatorduak.
 - Elkarteetan ospatzen direnak.
 - Txakolindegia, upelategiak, sagardotegiak...
- Beraz, aukera ederra da horrelako giroa elkartasunean ospatzeko eta harremanak estuagoak izateko.
- Baina konturatu gabe hasten dira, askotan, mahai inguruaren arteko eztabaidak eta gorabeherak, eta berehala builak eta barrunbeak.

Badirudi hainbatek eta hainbatek euren *territorioa markatu* behar izaten dutela ezberdintasunak non dauden ondo markatzeko.

ADISKIDETASUNA, PASATU DITUGUN ORDU POLITAK ETA MAGIKOAK GOGORATU ETA GOZATU...

ezberdinak eta aldentzen gaituzten sentimendu, ideia eta gauza guztiak aparkatuta utzi, eta batzen gaituenari, elkartzen gaituenari, indarra eman.

Batzen gaituzten gauzak eta elkarren artean dugun adiskidetasuna, pasatu ditugun ordu politikak eta magikoak gogoratu eta gozatu...

Elkar maite dugula elkarri nolabait esan edo adierazi. Ez dago elkar maitatzea bezalako terapiarik ederragorik. Horrek ematen digu benetako zoriona.

Bestea zoriontsu eginda lortzen da mundua gizakoiago izatea eta elkarren arteko harreman hau zabaltzea. Askotan galdetu diot neure buruari: zer egin dezaket nik mundu honetan, nazioen arteko gatazken erdian eta mundua dominatzen dutenen artean?

Ba, aurretik esan dizuedana; baliagarria izan daiteke, banan-banan geure giroa, bakezko giroa, nire inguruan islatzen badut. Probatu daiteke?

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Boikota

JOKIN LABAIEN

HTTPS://LABUR.EUS/A6BFG
'BERRIA'-N ARGITARATUA

Erraz esaten da. Zazpi milioi ikusle baino gehiago izan zituen, Espainiako Estatuan, larunbateko Eurovision jaialdiko emankizunak. Jende askori eragiten dio auzo lotsa, barregura, morboa, haserre edo dena delakoa. Baina bada, jakizu zergatik, jende askorentzat zentzurik eta motibazio sendorik izan ez arren, agendara iritsi zen eta bertatik nekez alde egingo duen hitzordua. [...]

Azkenean, beharrezko bada, erabaki politiko eta ekonomikoek ematen diote

saria irabazleari, dirudienez. Kaskoan ilea bakandu eta urdindu ahala, kasualitateetan gero eta gutxiago sinesten dut nik. Nik ere. Eta, aste honetan, nekez sinetsiko ditut irabazlearen gaitasun eta ontasun artistiko eta musikalak ahotan hartzen dituztenak. Komeniko zen Israel garaile bat, laudatu bat, arrakastatsu bat, Europaren aurrean. [...]

Larunbat gauean, Netta kantari. Astelehenean, balak txistuka eta anbulantzien sirenak dantzan. Asteartean, dolu negarrak. Eta, ohartzerako, irabazleak hurrengo edizioa antolatzeko zeregina duenez, lehen ministro israeldarrak egur pixka bat su garretara: baliteke jaialdia

Jerusalem hirian izatea. Eraginkorrak dira probokazio mailan ere. Gustatu egin zait, horren aurrean, Dublingo alkateak egin duen proposamena: Palestinari babesa emateko, 2019ko jaialdiari boikota egin eta Irlandak ordezkaritza ez bidaltzea. Nik bi jarriko ditut aukeran. Telebistan emateko eskubidea duen kateak ez dezala eman. Eta, ematen badu, ez dezagula inork ikusi. Uste dut, ez dela hiruretatik bakarra beteko. Ahaztu egiten zaizkigulako horrelakoak denborarekin. Eta kendu egiten diogulako geure buruari, telebista tresna gisa erabiliz, eragiteko daukagun gaitasuna. Garaipen bat haientzat.

goiena“
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantxabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Goiatz Arana,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa
arduraduna Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitate

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Elortza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 00
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 19.000 ale
Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Basurde-hazkundera ehizatuz bakarrik kontrola daiteke"

FLORENCIO A. MARKINA ZOOLOGOA


Eneko Azkarate ANTZUOLA
Zoologo bilbotarra basurdeen gainean hizketan izan da Antzuolan. *Basurdearen kudeaketarako baliabideak-erremintak* izan da haren hizketa gaia. Dio azkeneko urteotan %70 hazi dela basurdeen kopurua eta denon artean konpondu beharreko arazoa dela.

Azkenaldian, kezka nagusitu da, batik bat, baserriarren artean, basurdeak asko ugaltu direlako eta triskantzak sortzen dituztelako.

Basurde asko dabil gure mendi eta basoetan eta azkenaldian sarriago ikusten dira baserri inguru eta kaleetan, hirietan-eta: hiri hondakinen edukiontzietan aritzen dira jan bila. Zortzi urteotan %70 hazi da kopurua; arazoak sortzen ditu.

Zenbat basurdez dihardugu?

Gipuzkoan, 1.500 bat basurde ehizatu ziren iaz. Kalkulatzen dugunez, dauden erdia. Hortaz, 3.000 bat basurde izango dira Gipuzkoan.



Florencio A. Markina. GOIENA

Zein da demaseko hazkunde horren arrazoia?

Bereziki, elikagai asko dutela: nonahi lor dezakete jatekoa, laborantza intentsibogatik. Bestalde, geroago eta negu bigunagoak dauzkagu...

Zer jaten du basurdeak?

Denetik, oso jatuna da. Txoriak, ezkurak, orkatz gazteak, animalia txikiagoak... eta hondakinak ere bai. Gainera, harrapakaria eta sarraskijalea da.

Ze kalte egiten dute?

Batetik, nekazaritza laborantzetakoak; eta, bestetik, errepideetan gertatzen diren istripuak. Izan ere, hara eta hona gehiago mugitzen dira eta, ondorioz, errepide-guneetan ere sarriago ibiltzen dira. Beste arazo bat da osasunarekin zerikusia duena: basurdea animalia gogorra da, eta gaixotasun askoren eroale.

Zertarako dira onak basurdeak?

Gure faunaren parte dira eta, hortaz, fauna aberasten dute. Ondorioz, kontserbatzeko beharra daukagu.

Kudeaketa egokia ematen zaio gai honi?

Inplikaturik dauden kolektibo guztiak mahaiaren bueltan jarri eta irtenbide egokiak aurkitu behar dira, gutxienean ados jarritz. Kulpak elkarri bota beharrean. Erantzukizuna, sarritan, ehiztarien esku uzten dugu, baina ehiztariak ezin dezakete gehiago ehizatu.

Zelan kontrolatu hazkunde hori?

Basurdeen gehiegizko ugalketa kontrolatzeko modu bakarra ehiza da.

Zein da basurde kopuru egokia?

Sortzen dituen kalteak denontzako jasangarriak izateko adinakoa. Horixe da oreka; hau da, ekonomikoki jasangarria dena.

HAU BE BADOGU!

Reala-Athletic derbia, markak hausten



Joan den igandean Realaren eta Athleticen arteko emakumezkoen derbia jarraitzeko 21.500 zale batu ziren Anoetan, marka guztiak hautsita:

@Ane_urkiri: "Kopako final laurdenetan euskal derbia izango dugu. Reala eta Athletic nor baino nor. Proposamen bat: Zubietako harmailak betetzen baditugu? Atzokoa apartekoa izan zen, beharrezkoa ikustarazteko, baina egunerokoan eman behar dira pausoak eta guk badugu gure egitekoa".

LGTBI fobiaren aurkako eguna, atzo

Aldarrikapenez bete ziren sare sozialak LGTBQ+ kolektiboak jasotzen duen bazterkeria salatzen.

@gorkaerrras: "Gaur eta egunero **#LGTBIfobia**-ren aurka! Amodioa beti amodio!".

@ane_zurutuza: "Behin baino gehiagotan akabatzen gaituzte. Lehenengo, hiltzen gaituztenean, eta beste behin, gure genero identitate edota orientazio sexuala ukatzen digutenean. **#LGTBIfobia** errotuta dago oraindik gizartean".

'#Gaza' eta '#Israel', hizpide sare sozialetan

Israelgo armadak Gazan manifestatzen ari ziren dozenaka palestinar tiroz hil eta ehunka zauritu ditu, sekulako sarraskia sortu eta nazioartean alarma piztuta:

@amaiauribe: "Hildakoen aldeko minutu bateko isilunearekin hasi da NB-en Segurtasun Kontseiluaren bilera. Ez dirudi, bilera horretatik akordiorik aterako denik AEB-ek Gazako sarraskia gaitzetsi eta ikertzeko proposamena blokeatu zutelako atzo".

ITURRI ONETIK

Skaiketan eta Kepa Junkera, Puntaik Puntan

Ekainaren 15etik 17ra bitartean ospatuko da Puntaik Punta jaialdia Aretxabaletan. Mankomunitateak eta Aretxabaletako Udalak gertu dute egitaraua, azken zehaztasunen faltan. Herriko talde eta elkarteekin dabilta aurten ere jaialdia antolatzen. Pirritx eta Porrotx, Nogen, Skakeitan, Kepa Junkera eta Sorginak, Krisis (Aretxabaleta)... dira konfirmatutako izen batzuk. Aretxabaletako X. Mendi Martxa, familia irteerak, hitzaldiak eta umeentzako boulderra ere izango dira.

ALBISTE IZAN ZEN

2009-05-16

Bergarako Musika Eskolaren 25. urteurrena

2009an bete zituen Bergarako Musika Eskolak 25 urte eta maiatzaren 16an eman zien amaiera urtean zehar antolatutako ekitaldiei. Berezia izan zen Udal Pilotalekuan antolatutako jaialdia, musika eskolako ikasle eta irakasleen emanaldiez gain, herriko hainbat musika talde eta abesbatzak hartu zuten-eta parte. Urteurrenerako konposatutako *Bost lerro* kantarekin eman zitzaion amaiera borobila.



JULIO CALLEJA

Eskerrik asko!

JOSE MARI ANDUAGA

LABEGARAIETAKO JAI BATZORDEAREN
IZENEAN
BERGARA

Aurten ere, maiatzaren 1erako auzoko jaietako egitaraua osatu genuen.

Lerro hauek erabili nahi ditugu eskerrak emateko modu batean edo bestean laguntza eman duzuenoi: Bergarako Udala, Bergarako Erraldioiak, Hierros Naparra, Errota-gain Galdarategia, Kiroldegiko Taberna, Lazkano Oinetakoak, Felsinee, Laboral Kutxa, Gaitxao Harategia (Aliprox), Iñarra Masajeak, Sugoi, Estella farmazia eta Super Amara.

Esker berezia auzotar guztiei jaietan parte hartzeagatik!

Datorren urtean gehiago eta hobeto!

Oinarrizko errenta

JOSU GARITAONANDIA

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Errenta aitorpena egiteko garaian gaude; pertsona bakoitzak dituen ondasunekin gizarteari egin behar dion ekarpena neurtzeko garaia.

Azken urteetako bilakaera ikusita, aberatsak gero eta aberatsago dira eta txiroak, berriz, gero eta txiroago.

Oinarrizko errentak egoera aldatuko luke; gizartearen ardura izan beharko litzateke pertsona bakoitzak duin bizi izateko nahikoa edukitzea.

Orain dela 200 urte baino gehiago, estatubatuar batek

ideia horren oinarriak ipini zituen, baina, tamalez, bilakaera kaxkarra izan du eta *normaltzat* ematen dugu egunero milaka pertsona gosez hiltzea edota munduko zortzi aberatsenen artean Lurra planetako biztanleria erdiaren besteko aberastasuna edukitzea.

Eskerrak emunez

MIKEL ERRASTI LEGAZPIA

ARRASATE

Askotan esaten dan moduen, hobe berandu iñoiz ez baino...

Aittak itxi ginttuela urtia betetera doia, eta harei lagundu eutzien pertsonak eskertu gura nittuke; seguru nau norbait kanpuan lagako dotela... Barkamenak, aurretik.

Atxabaltako Fraile farmaziako Juan, Amaia eta Tatiana. Baitta Anitua farmaziakuak be, nahiz eta blisterra aurrekuekin egittiareen ondorioz zuekin harremana txikixagua izen.

Atxabaltako anbulatorixuan sartuz, harrerako Maite, Arantxa, Edurne eta Isabel. Lurdes, Uguzne, Jone eta Nagore erizañak. Eta Lorea, Ana eta Goretti medikuak.

Arrasateko anbulatorixoko neumologia, kardiologia eta "gia" n buketan eta eurekin egotia tokau jakun espezialistak.

Arrasateko eta Santiago ospitalietako larrialdi zerbitzuak.

Eta anbulantzia zerbitzuan ibilli zarienok.

Atxabaltako gizarte zerbitzua eskeintzen dozuenok.

Bereziki, etxeko laguntza zerbitzua eskeiñi duskuzuen superwoman emakumiak zarien Ana, Elena, Usoa, Amaia... Zuen laguntza profesionala izatiaz aparte, familiakoak izango bagiña bezela sentidu eragin gaittuzue.

Matia fundaziñoko jentia, aittaren miña asko arindu euen eta.

Aittaren larrialdi momentuetan laguntzeko beti prest eta goxo izan zarien goiko zein beheko bizilagun marokoarrak.

Aittaren lagun danak. Aittak, bere xumetasunian, lagunak ez molestatzearren, nahixau euen iñori ez deiketia, baiña badakigu, bere ahuldadiaren gaiñetik be, gustora hartzzen zittuela lagunen bisitak.

Bergarako gure *beste* Errasti familia, Consuelo eta Xabi; gure aittek bukaera aldera ezagutu eta ixa batera juan zien.

Esker berezi-berezi eta beruak Errasti-Legazpia familixei be. Esaerak diño familixarik barik ez garela ezer... eta hala da. Izen be, bakoitzak ahal izen dauen neurrixan, danok lagundu duskuzue.

Atxabaltako San Jose kofradixa, Andoni apaiza eta Funeraria Arrasateko Espe.

Baitte beillatokixan, funeralien eta ondorengo egunetan amari eta bi anaioi erakutsitako errespetu eta atsekabetasunagaittik.

Eskerrik asko, bihotz-bihotzez.

Euskal presoen dispartsioa ez da gaurkoa

JUAN RAMON GARAI

INTXORTA 1937 KULTUR ELKARTEA
ARRASATE

1938an Euskal Herriko 1.012 preso zeuden Puerto de Santa Mariako penalean. Haietatik 633 bizkaitarrak ziren, 258 gipuzkoarrak, 73 arabarrak eta 48 nafarrak. Orduan, "biziarteko espetxe zigorrera" edo 30 urte eta egun bateko kartzela zigorrera kondenatuak. Datuok jaso dira Cadizko Artxibo Historiko Probintzialetik. Kolpistek, legearen aurka matxinatuak, errebelamendu militar eta errebelamenduari lagundu izanaren delituak ezarri zizkieten Bigarren Errepublikaren aldeko erresistenteei. Frankistek espetxeratzen zituzten etxetik mila kilometrorra.

Katalunian orain, berriz ere, errebelamendu delitua aplikatu diete boto eskubidea defendatzen dutenei, orain 80 urte egin bezala.

80 urte geroago, euskal presoek –asko eta asko orduko erresistenteen seme-alabak eta ilobak, ETAn sartu zirenak– erakundea desegin eta gero jarraitzen dute Puerto de San Mariako, Huelvako Almeriako... espetxeetan.

Orduan eta orain ere "etsaiaren preso" kontsideratzen dituzte. Orain 80 urte indar basatiz euren legea ezarri zutenen jarraitzaileek ez dute betetzen legea. Demokrazia armaz

txikitu zuten, eta armaz eta errepresioz jarraitzen dute sasidemokrazia defenditzen.

Debagoien inguruko 40 preso zeuden penal hartan –Aramaio eta Soraluze barne–:

Arrasatekoak 13: Segundo Ceciaga Uriarte, Juan Azcarate Isasmendi, Jose Miguel Egidazu Pagaldai, Francisco Vitoria Errasti, Gregorio Yarza Abalia, Eduardo Liquiniano Heriz, Felipe Loidi Zubiaur, Mateo Astaburuaga Bengoa, Vicente Ballona Ansoategui, Jose Maria Ceciaga Ezcurra, "ez zuen esaten 'gora Espainia eta gora Franco'", Felix Zulueta Belategi, Alejandro Rodriguez Perez, Casimiro Muguruza Exposito, azken hori bertan hil zen 1939ko martxoaren 5ean.


Bergarakoak 10: Silvio Garcia Rebolledo, Jose Altuna Garitano, Julian Guimon Rezola, Victor Ibarzabal Etxebarria, Domingo Jauregi Zubia, Angel Lazkano Juaristi, Jacinto Osa Unanue, Eustasio Urzelai Alberdi, Jose Ibarreta Sañudo, Aniceto Retegui Aranes. Antzuolakoak 3: Meltxor Gabilondo Legorburu, Jose Maria Basterrika Arbelaitz, Roman Laskurain Larrañaga. Soraluzekoak 7: Antonio Alberdi Alberdi, Alejandro Lascurain Ganuza, Martin Zabala Oregi, Manuel Retolaza Agirrebeña. Jesus Iraeta Odriozola, Gonzalo Iaeta Odriozola eta Juan Larreategui Maturana. Eskoriatzakoak 2: Julian Uribetxebarria Galdos eta Jaime Aranburuzabala Azkoaga...

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





Ibon Arroyo Arruabarrena (Elorrio)

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ JAKINTZA SUSTATUZ
ETORKIZUNA ERAKITZEN

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 23 18:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Zergatik aukeratu zenuen Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak goi mailako heziketa zikloa? Eta zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?

Aurretik, Mekatronika zikloa egin nuen, baina pentsatu nuen ziklo honetan hartutako ezagutzak erraztu egingo lidakeela etorkizunari begira arlo honetan lanbide egonkor bat bilatzeko aukera.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa aukeratu nuen, Elorriion bizi naizelako. Arrasate nahiko gertu daukat, eta, bestalde, ziklo honi buruzko erreferentzia onak neuzkan bertan ikasitako beste ikasle batengandik.

Heziketa ziklo honetan Ethazi metodologia aktiboarekin lan egiten duzue; hau da, talde-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer-nolako erronkak egin dituzue?

Joan den urtea ezkerro, Ethazi metodologiarekin erronka bidez murgildu gara. Joan den urtean, adibidez, hiru erronka garatu genituen: etxe bateko instalazio elektrikoa, telebista antena baten azterketa eta ur ponpa baten instalazioa eta kontrola. Aurten, berriz, bi erronkarekin aritu gara: txalet baten automatizazioa eta autobide bateko tunel-kontrola.

Nola baloratuko zenuke esperientzia hau?

Lehenik, ikaslen artean sortu den lantalde giro jatorra. Asko lagundu du taldeko ikasle kopurua murriztea izateak. Eta aipatuko nituzke gure esku jarritako baliabideak, materialak.

EAJ eta EH Bildu, ados ikurrina jartzearekin

Duela hamar hilabete, Espainiako bandera jarri behar izan zuten udaletxeko balkoian, legeak behartuta. Horren harira, EH Bilduk bi proposamen egin zituen martxoan; adibidez, ikurrin handi bat jartzea. Bada, EAJk bat egin du, ekarpen propioak eginda

Xabi Gorostidi ARRASATE

2017ko uztailaren 14an, Espainiako bandera jarri behar izan zuten Arrasateko udaletxeko balkoian. Ez zen gustuko neurria izan, halabeharrez eta legeak behartuta hartutakoa baizik.

Espainiako bandera jartzeko eskaria 2015a ezkerro zegoen mahai ganean, baina Udalak bazuen horren aurka egiteko argudio bat: udaletxean ez zela banderarik jarrita egoten; ez Arrasatekoa, ez ikurrina, ez Espainiako, ezta Europakoa ere.

Guardia zibilen argazkiak

Baina argudio hori bertan behe-
ra geratu zen 2017ko ekainaren



Ikurrina erdigunean jartzeko adostu dituzten lau kokalekuak. ARRASATEKO UDALA

27an guardia zibilek egindako argazki batzuen ondorioz. San Juan jaiak ziren, eta udaletxeko balkoian ikurrina eta Arrasateko bandera zeuden jarrita. Salbuespena zen, soilik jaietan jartzen zirelako, baina guardia zibilek une berezi hori baliatu zuten argazkiak atera eta Udalaren argumentua ahultzeko.

Errekurrizko tarterik gabe

Argazkiak jaso ondoren, Estatuko abokatuak mezua bidali zion epaileari. Errekurriztea oso zaila zela esan zuten Udaleko aholkularitza juridikoko kideek, eta "ahalik eta azkarren jartzea" gomendatu zuten; bestela, hori ez egitearen erantzukizun juridikoa alkatearen gain geratuko zen.

Hala, alderdi politiko guztiei abisatu ostean, udaletxeko eskuinaldeko leiho batean bandera txiki bat jarri zuen Udalak, alboan tamaina bereko ikurrin batekin.

Eraginak baretzeko ahaleginak

Aberri Egunaren ataritan, EH Bilduk gaiari buruzko oharra plazaratu zuen. Bandera "meha-

txuen bidez inposatzea" salatu zuten, eta bi proposamen egin zituzten: Herriko Plazan masta batean lehentasunezko presentzia ematea ikurrinari –Bergaran bezala– eta udaletxean plaka bat jartzea, Espainiako bandera Espainiako auzitegiek inposatuta jarri dela salatzeke –Foru Aldundiaren egoitzan bezala–.

EAJren ekarpena

Oposizioko alderdi nagusiaren proposamena begi onez ikusi ostean, EAJk bi ekarpen egin dizkio ekimenari: ikurrina jartzeko erdiguneko lau leku proposatzea –Herriko Plaza, Biteri plaza, Seber Altube eta Jose Maria Arizmendiarrrieta plaza– eta kokapena erabakitzeke parte hartze prozesu bat egitea. Momentu honetan, gainontzeko alderdiekin ari dira gaia lantzen, eta ez dute botaketarako data zehatzik finkatu.

Plaka jartzearekin ere ados agertu dira jeltzaleak, eta testu hau izatea adostu dute: *Hona hemen ikurrina, udaletxeko bandera espainiarra ez bezala, herriarren gehiengo zabal baten borondatez jarria.*

MARIA UBARRETXENA
EAJ

"Ikurrina bada ere euskaldunon nortasunaren aberriaren eta historiaren adierazle nagusia, Arrasaten ikurrina ez eta espainiar bandera da udaletxeko balkoian zintzilik dagoena. Inposizio hau euskal herriko herri gehienek jasan dute eta behartuak izan dira euren udaletxeko balkoietan espainiar bandera jartzera".

ENEO BARBERENA
EH BILDU

"Guretzat, bandera espainiarraren aurrean, egin dezakegun gutxienezkoa da ikurrinaren aitortza egitea eta inposizioa salatuko duen plaka jartzea. Aurrerago, prest egongo gara gainontzeko alderdiekin eta eragileekin desobedientzia aukerez hitz egiteko eta adostasunetara iristeko, balkoiak herriarren nahia isla dezan".

OSCAR GARCIA
PSE-EE

"Alderdi Sozialistatik beti esan izan dugu garrantzitsuena ez dela bandera bat edo beste jartzea, pertsonen arazoei irtenbideak topatzea baizik. Alde horretatik, gure lehentasuna pertsonen gain jartzen dugu, eta ez ikurrinetan. Hau esanda, ez deritzogu gaizki ikurrina jartzeari, are gutxiago egingo den moduan: jendeari botatzeko aukera emanez".

IGOR URIZAR
BALEIKE

"Lege inposizioaren ostean, EH Bilduk eta EAJk ikurrina jartzeko prozesu parte hartzailea adostu dute. Guk hasieratik genuen proposamen bera defendatzen dugu, partaidetza errotik bultzatzea, eta ez kosmetikoki. Arrasatearrei, aukerei eta ondorioei buruz informatzea, eta erabaki dezatela zein ikurrekin ordezkatuak izan nahi duten".

JUAN LUIS MERINO
IRABAZI

"Ikurrinarena eztabaida nazionalista bat da, eta gu ez gara horretan sartuko. Gure sentimenduak ordezkatu ditzaketen bandera asko daude. Plakarena ez dugu babesten. Ados gaude inposizio definizioarekin. Baina beste inposizio asko daude, lan erreforma, adibidez, eta horiek salatzeke ez dugu plakarik jarri".

Magia ikuskizunak egongo dira gaur Ibai-arteren eskutik

Erosketak doan Magiari esker kanpainaren baitako ekimen horretan, Altrius eta Oliver eta Eva magoek hartuko dute parte. Bakoitzak 40 minutuko bi saio egingo ditu. Altrius gasteiztarra Herriko Plazan arituko da, 18:30ean eta 19:30ean. Oliver eta Eva, aldiz, Maiatzaren Bata plazan izango dira, 18:30ean, eta ostean, Seber Altuben, 19:30ean.

Herri Eskolakoek Deba ibaia garbituko dute auzolanean

Domeka honetarako, maiatzak 20, egin dute hitzordua. Zaldibarren batuko dira, 10:00etan, eta ordu eta erdiz arituko dira zikinkeria errekatik ateratzen. Behin hori egin ostean, 11:30 aldera, txorientzako etxetxoak zintzilikatuko dituzte, eta 12:00etan, hamarretakoa egingo dute, xahututako indarrak berreskuratzeke.

Museoen Nazioarteko Egunaren harira, alde zaharrean bisitak

Arrasateko Udalaren Tokiko Garapen Sailak, Victoriano Fuentes buru duenak, erabaki du Arrasateko erdiguneak dituen balio turistikoak eta ondarea ezagutarazteko hiru bisita gidatu berezi antolatzea Museoen Nazioarteko Eguna aitzakia hartuta.

Hiru txanda egongo dira: maiatzaren 18an, 18:30ean, ingelesez;

maiatzaren 19an, 10:00etan, euskaraz; eta egun berean, 12:00etan, gazteleraz.


Bisita gidatu bakoitzean, gehienez, 45 lagun onartuko dira. Interesa dutenek maiatzaren 18ko 13:00ak baino lehen eman beharko dute izena: *turismo@arrasate.eus* helbidera mezu bat bidaliz edo BAZeko telefonora deituz (943 25 20 00) eta Turismo Saileko teknikariarekin jartzeko eskatuz.

Bisita gidatu guztien abiapuntua Biteri plaza izango da.

'Jaiak suaz, euskara zuaz' leloa izango dute jaietako zapiak

Aimar Elortza da AEDk antolatzen duen esaldi laburren lehiaketako irabazlea, eta 100 euroko diru-saria jaso du. Horrez gain, jaietako zapietan haren esaldia joango da serigrafiatuta.

Antolatzaileak oso pozik azaldu dira, inoiz baino proposamen gehiago jaso dituztelako –70 esaldi– eta 30 lagunek parte hartu dutelako, guztira.



Pertsona bat udal webgunean botoa emateko prest. XABI GOROSTIDI

Kirol Sariak herritarrek aukeratuko dituzte

Oñatiko eta beste herri batzuetako eredu jarraituz, herritarren botoekin aukeratuko dira 2018ko Kirol Sarietako irabazleak. Kirolari onenaren eta kirol ibilbidearen sariak, beraz, Arrasaten erroldatuta dauden 14 urtetik gorakoek aukeratu ahal izango dituzte

Xabi Gorostidi ARRASATE

Sari banaketa ekitaldia ekainaren 7an izango da, baina aurtun, beritasun gisa, arrasatearrek izango dute irabazleak aukeratzeko azken hitza. 14 urtetik gora izatea eta arrasatearren erroldatuta egotea dira botoa emateko baldintzak. Botoa udal webgunearen bitartez eman dai-

teke maiatzaren 31 baino lehen. Horretarako, webgunean, *Bozkatu kirola sarietan* atalera sartu behar da.

Aurkezpena, astelehenean

Botoa emateko epea zabaldu zuten lehen egunean aurkeztu zuen ekimen berria Ander Garayk, Kirol, Gazteria eta Ogasun

zinegotziak. "Aurreko ekitaldian kazetariak proposatzen zentituzten hautagaiak, eta ondoren herriko klubek osatzen duten kirol mahaia aukeratzeko zituen irabazleak. Kasu honetan, herriak ematen duen sari bat denez, aukeratzeko ahalmena herritarrei ematea erabaki dugu Kirol batzordeko kideek".

Kirolari onenaren saria

Hautagaiak

- **Izar Bedia:** Aurtun debuta egin du Estatuko emakumezkoen lehen mailan Gasteizko Lacturale Araski taldearekin.
- **Ane Zabala:** Belauneko lesio bat gaudituz eta Arrasate-Udalatx lasterketa irabazi zuen 45 urteko korrikalariak.
- **Leintz-Arizmendi futbol taldea:** Aurtun, lehen aldiz, elkarrekin aritu dira Mondra, UDA eta Arizmendi. Euskal Ligan maila ona eman dute: Mailari eutsi diote, eta Lore Etxeandia ligako *pitxitxi*.
- **Jonathan Perez:** Pertika-jauzilari arrasatearrak 35 urtez gorako Europako txapeldunorde izatea lortu du.
- **Ointxe!-Araski saskibaloiko nesken kadete taldea:** Talde hau Euskadiko txapeldun izan da, Iturripen jokaturako lauko finalean. Horri esker, Espainiako txapelketan lehiatuko da.
- **Malen Ruiz de Azua:** Aurtun pista estaliko Gipuzkoako eta Espainiako txapeldun izatea lortu du pertika-jauzilariak.
- **Unai Rodriguez:** Ford Mugarrik bosgarrenez jokatu du Maila Nazionalera igotzeko *play-off*-a. Rodriguezek asko lagundu dio taldeari. 163 gol sartu ditu denboraldian, ia zazpi gol partiduko.
- **Maialen Axpe:** Espainiako txapelketan brontzea lortu zuen 4,40 metroko langa pasata. Estatuan inoiz egin den laugarren marka onena da eta Europako txapelketan aritzeko txartela eskuratu du.

Kirol ibilbidearen saria

Hautagaiak

- **Iñaki Uribetxebarria:** Asko eman dio squashari, eta kirola hedatzeko herriko edo Euskadiko txapelketak antolatu zituen.
- **Ointxe! saskibaloit-taldea:** Aurtun 50 urte bete ditu eta gazteei kirol honen balioak transmititzeko lan handia egin du.
- **Patxi Gorosabel:** Arrasateko errugbiari lotuta egon da bizitza osoan, jokalaria, entrenatzaile eta zuzendaritzako kide. Gaur egun, kluba laguntzen jarraitzen du.
- **Besaide ME:** 61 urteko ibilbidearekin Euskadiko elkarte garrantzitsuenen artean dago; 1.850 bazkide, eta 967 federatu.
- **Arantzazu Zubia:** Gimnasia erritmikora lotu zen gazte-gaztetatik. Hura izan zen Dragoi gimnasia taldearen sortzailea.

GORA ETA BEHERA



GOIENA

Biribilgune ondoko hesi "arriskutsua"

"Hesi hori ez dago ondo. Bizikletaz, oinez zein autoz goazenok hura joz gero, miraria izango litzateke ezer ez gertatzea. Neurriak hartu behar dira istripuak gertatu baino lehen".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

OHARRAK

Drogak eta nerabeak

Bi gai horiei buruzko hiru hitzaldi egingo dira hilaren 23an, 28an eta 30ean. Hizlariak eta orduetako buruzko informazio gehiago, Goienaren eta Udalaren webgunean.

EH Bilduren hitzaldia

Nerea Kortajarenak eta Marian Esnaolak *Guk gure pentsioak* izeneko hitzaldia egingo dute hilaren 22an, 18:00etan, Kulturaten.

Pentsiodunak

Astelehenean berriz batuko dira Herriko Plazan, 12:00etan. Hilaren 26rako, Donostian dute hitzordua, 17:30ean manifestazioa abiatuko baita Alderdi Edertik.



NIRE USTEZ

AITOR OROBENGOA

Ez al dugu inoiz ikasiko?

Duela 30 urte industria alorrean hauek ziren berrikuntzan eta kalitatean mundu-mailako aberri aitzindariak: Alemania, Japonia, Suitza eta Ameriketako Estatu Batuak. Ez naiz ari aberastasunaz, kalitateaz eta lan egiteko metodoaz baizik.

Geroztik, sailkapena ez da aldatu. Baina aipatzekoa da berauegana iristeko gai izen direla Korea, Suedia, Danimarka eta Israel. Tamalez, gu, euskaldunok, ez gara aitzindarien zerrenda horretan agertzen. Aitzitik, sailkapenean tropelaren erdian jarraitzen dugu. Zergatik ote da?

Aspalditik ezaguna da zertan datzan aberri aitzindari horien handitasuna: ikastea, pazientzia izatea eta kalitatea helburu izanez lan saiaturia egitea. Alegia, ez dago misterio handirik. Izan ere, liburu nahiz artikulua ugari idatzi izan da horren inguruan.

Azken urte hauetan Koreak erakutsi izan duenez, bertute horiek guztiak ikasi egin daitezke. Zergatik ez al da arduratzen Jaurlaritzak hain oinarritzekoak eta erabakigarriak diren metodo horiek euskal gizartearen txertatzen?



Herritar bat, lekualdatu berri den bake epaitegira sartzen. XABI GOROSTIDI

Bake epaitegia BAZen, lau hilabeterako

Ignacio Zuloagako egoitzan irisgarritasuna hobetzeko esku hartzea egingo dute, eta lanak amaitu bitartean BAZen emango dute zerbitzua. Gurpil aulkian mugitzen den herritar batek jarritako kexak eragin du irisgarritasuna hobetzeko lanak egitea

A.T. / X.G. ARRASATE

Arrasateko bake epaitegian irisgarritasun obrak egingo dituzte; hori dela eta, astelehena ezkerro BAZen ari dira zerbitzu hori eskaintzen. Bulego berezi bat prestatu dute horretarako, eta, BAZeko atletik sartu beharrean, Arano eta Garcia Maisu-maistrak kaletik izango du sarbidea.

Normaltasun osoz jasoko dute bertan herritarrek zerbitzua, lau hilabete inguruz, obrak bukatu bitartean.

Kexa baten eraginez

Irisgarritasun lanak egingo dituzte, zehazki, bake epaitegiko eraikinean. Arrasateko bake epaitegiko izapidegile Ugaitz Agundezek honelaxe azaldu du obrak zein arrazoiengatik egingo dituzten:

"Gurpil aulkian zebilen emakumezko bat etorri zen epaitegira. Sarreran koska txiki bat daukagu, eta ezin izan zen bertatik igo. Kexa bat jarri zuen, hori moldatzea eskatzen, eta,

azkenean, sekulako obra egin behar dute".

Egingo den esku hartzea langileek hasiera batean esperotakoa baino handiagoa izango da. "Guk geuk aholkatu genion pertsona elbarriari kexa jartze-ko, ea, horrela, eurentzako aldatu bat jartzen ziguten. Baina harago joan dira, eta, igogailua jartzeaz gain, eta elbarrientzako komunak ere ego- kituko dituzte".

Erregistro zibila, ohikoena

"Bake epaitegian, nagusiki, erregistro zibilarekin lotutako kontuak egiten ditugu, baina baita beste lan batzuk ere: arlo zibilekoak eta baita arlo penalekoak ere. Baina, egia esan, hein han-

ERREGISTRO ZIBILAREKIN LOTUTAKOAK DIRA BAKE EPAITEGIKO JARDUERA OHIKOENAK

di batean, erregistroarekin lotutako jarduerak dira ohikoenak: jaiotzak, ezkontzak eta horrelakoak", azaldu du Ugaitz Agundezek.

Salbuespena artxiboarekin

Artxihoan dauden dokumentu guztiak, baina, Ignacio Zuloaga kaleko eraikinean mantenduko dira obrak egin bitartean ere, eta hori izango da zerbitzuei dagokienez izango duten salbuespen bakarra.

Dena dela, artxiboko dokumentuetara sarbidea ere izango dute langileek, zerbitzua herritarrei osotasunean eman ahal izateko.

Obren iraupena lau hilabete ingurukoa izango dela aurreikusten dute, eta, eraikineko obrak bukatu ostean, betiko lekuan eskainiko dituzte bake epaitegiko zerbitzu guztiak.

Ordutegia ere ez da aldatuko, eta herritarrek lehen bezala artatuko dituzte: astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara.

Ekintza gehigarriak gabeko azoka izango da maiatzekoa

Bihar, maiatzak 19, egingo dute maiatzeko baserritarren azoka. Oraingo honetan ez da ekintza gehigarriarik egingo, eta baserritarren eta ekoizleen produktuak izango dira zapatu goizeko protagonistak. Guztira hamahiru postu izango direla azaldu du Nerea Lazpiurrek, Garapen Iraunkorrek udal teknikariak. Zein produktu egingo diren galdetuta, hauxe erantzun du: "Baserritarrek esan digute negua eta udaberria oso hotzak izaten ari direla. Horren ondorioz, lurra girotu gabe dago eta landareak nahiko geldidute. Hala ere, zerbak, espinakak, berakatz freskoak, letxugak, ilarak eta baba beltzak egingo dira".

Giza katerako berotzen joateko, Klik Eguna bihar

Goiena komunitatea

Gure Esku Dago / ARRASATE

Kaixo, lagun, ekainaren 10ean ospatuko dugun giza katera begira, motorrak berotzen joateko eta herritarrei azken bultzadaxoa emateko, Arrasateko GED taldeak, bihar, larunbata, *Klik Eguna* ospatuko du Arrasaten. Hona hemen egitaraua: 10:45ean, Sanbamaña batukada alde zaharrean zehar; 11:00etan, txosnen irekiera, ongietorria eta ekimenaren hasiera; 11:30ean, kale animazioa erdigunean; 13:00etan, giza katea, Herriko Plazan hasita; eta 14:30ean, amaiera Gure Esku Dago-ren abestiarekin. Txosnan, giza katean izena emateko aukera izango da.

Aita Mennik 8.600 euro batu ditu errefuxiatuentzako

Arrasateko Aita Menni Ospitaleak, Euskal Autonomia Erkidegoan dituen egoitza guztien artean, 8.600 euro batzea lortu du gerretatik ihesi dabilen errefuxiatuei laguntzeko.

Hain zuzen, Libanon desplazatuta daudenei siriarrei laguntza ematen dien Urda Spain gobernuz kanpoko erakundeak jasoko du diru laguntza hori.

Siriako gerratik ihesi doazenei behin-behineko bizilekuak ematen die Urda Spain-ek. "Oinarritzko azpiegiturak jartzen ditugu euren esku, eroso sentitze-ko, eta ahal duten heinean normaltasunera itzultzeko". Urda Spain-en laguntza programak hiru puntu hauek ditu oinarrian: familiei jakiak eta oinarritzko produktuak helaraztea, kanpalekuetan sortzen diren larrialdiei erantzutea eta harrera komunitateko gatazka maila ahal den neurrian murriztea.



IMANOL SORIANO

Ongietorria arrasatear berriei

Maiatzarako, kultur aniztasuna errotzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Horietako bat irudiko arrasatear berriei ongietorria izan da. Astelehen arratsaldean osoko bilkura aretoan harrera egin zieten aurten herrian erroldatu direnei, eta gero, talde argazkia atera zuten. Han izan ziren udal ordezkariak eta, adibidez, SOS Arrazakeria elkarteak kideak.



Gaztetxoak oihalekin jolasean, iaz. TXATXILIPURDI

Naturan jolas egitearen onurak erakusteko eguna

Biharko, 'Naturan jolasean' eguna antolatu du Txatxilipurdik, Besaide Mendizale Elkartarekin, gaztetxeko Guraso eta Haur Asanbladarekin eta Leintz Eskola Kirola elkartarekin batera. Asmoa da natura jolasgune egokiena dela aldarrikatzea

Xabi Gorostidi ARRASATE

Jaiegun hori antolatzeko arrazoiez galdetuta, hauxe azaldu dute Txatxilipurdiko kideek:

"Gero eta kontaktu txikiagoa eta azalekoagoa dugu naturarekin, eta joera honek eragin kaltegarriak ditu gure haurrengan eta familiengan. Natura ordezkorik ez duen osasun, ongizate, ikasketa eta sormen iturri agorrezina da. Interakzio zuzena funtsezkoa da zentzumenen eta adimenaren garapenerako; baita garapen sozial eta afektibitatearentzako ere".

Monterron, jaiaren erdigune

Ekintzen epizentroa Monterron izango da; izan ere, Txatxilipurdiko eragileen ustez, "arrasatearrek gutxi" erabiltzen du.

Hauxe diote egitarauaz: "Behar anitzak dira gaur egun ditugunak, eta horiek naturarekin harremanetan asetzeko egitaraua osatu dugu; jolasa, hausnarketa, gozamena, sormena, emozioak... denak uztartzeko parada izango dugu. Aurretik aipatu bezala, natura pertsonon garapen integralerako iturri agorrezina delako eta, berau zaindu eta mai-

tatzen jarraitzeaz gainera, beronekin dugun harremana berreskuratu behar dugulako". Hau izango da, horrenbestez, maiatzaren 19rako prestatu duten egitaraua:

10:30etik 12:30era, ginkana egingo dute. Herriko Plazan hasiko da, eta Santa Barbara parkean bukatu. Jolasaren bidez, Arrasateko espazio naturalak jolaserako baliatzea izango du helburu.

14:00etan, bazkaria egingo dute. Jakiak etxetik eroatea eta Monterron parkean bertan jatea da asmoa. 15:00etan, Monterron jolas libre eta espontaneorako gune bilakatuko da. "Espazio naturala aprobetxatuta, eta bestelako material natural batzuk gehituta, jolas libre eta espontaneoaz gozatzeko aukera izango da", azaldu dute antolatzaileek.

16:00etan, Monterronen oihalakrobazia egiteko aukera izango da, ohiko legez, gaztetxeko kideen eskutik. 17:00etan, Monterronen, gaztetxeko Haur eta Guraso Asanbladaren eskutik, 0-6 urte bitarteko haurrentzako Txikiginkana, jolas txokoak eta sorpresak izango dira.

LANBIDE HEZIKETA DEBAGOIENEAN



"etorkizuna zure esku"

ARETXABALETAN



ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola

Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA
☎ 943 79 79 00 / 943 79 79 43
ia.iaaretxabaleta.com

www.iaaretxabaleta.com

BERGARAN



Miguel Altuna LHII Bergara

Ibargarai, 1 • 20570 BERGARA
☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40
info@maltuna.eus

www.maltuna.eus

OÑATIN

**Ate irekiak: Maiatzak 23,
18:30ean, Larraña egoitzan**



IES RM Zuazola - Larraña BHI

San Lorentzo, z/g • 20560 OÑATI
☎ 943 78 21 50
013015aa@hezuntza.net

www.onati.net

AURREMATRIKULA: Ekainaren 4tik 15era. **MATRIKULA:** Uztailaren 12tik 18ra.



Alkideba Ointxe! senior mailakoen talde erretratua; ligan lehenengo sailkatu dira. OINTXE.COM

Alkideba Ointxe!-k etzi Gascan lehiatu gura du

Gizonezkoen senior mailan lider amaitu duen talde arrasatearrak asteburuan jokatu du lauko finala. Finalerdiak bihar, zapatua, arratsaldean Iturripen jokatu dituzte, eta irabazleek Donostian izango dituzte finalak, domekan

Xabier Urzelai ARRASATE

Gipuzkoako senior mailako talde onenak zein baino zein gehiago izango dira asteburuan, eta, gainera, lauko finaleko finalerdiak Iturripen jokatu dituzte bihar, zapatua. Alkideba Ointxe!, Zarauzko Zast, Donosti Dolphins eta Alde Zaharra taldeek jokatu dute mailaz igotzeko fase erabakigarrian.

Finalak, Gasca kiroldegian

Bada, bihar, 16:00etan, Alkideba Ointxe!-koen txanda izango da; Zarauzko Zast taldea izango dute aurkari. Ostein, 18:00etan, Alde Zaharra eta Donosti Dolphins taldeak izango dira nor baino nor gehiago, finalerako txartela lortzeko lehian. Hori horrela, Iturripeko kanporaketak gainditzen dituztenek jokatu dute

finala, domekan, 20:00etan, Gasca kiroldegian, Donostian. Ointxe!-k finala ikustera joateko autobusa jarriko du, baldin eta etxekoak finalerako sailkatzen badira. Autobusa, domekan 16:30ean abiatuko da Iturripetik, eta 2 euroko kostua izango du. Joateko interesa duenak idatz dezala, gaur, hona: ointxe@ointxe.eus.

Arrasate Rugby Taldeak webgune berria du

Arrasate Rugby Taldeak webgunea estreinatu du (www.arrasaterugby.eus). Hain zuzen, erabiltzaileei nabigatzeko esperientzia hobea eta erraztasun handiagoa eskaintze aldera egin dute aldaketa.

Diseinua goitik behera aldatu dute, egungo joeretara egokituz, eta berriro ere zuri-morea eta beltza dira kolore nagusiak. Berritasunik azpimarragarriena, baina, hizkuntzaren aldetik dator, ARTk webgunea euskara hutsean izatearen aldeko apustua egin baitu. Zentzu horretan, aurrerantzean .eus domeinua izango du. Eta, lehen ez moduan, sare sozialek ere euren lekua izango dute.

Mondrak eskura du denboraldia bosgarren amaitzea

Ohorezko Erregional Mailan denboraldia bost onenen artean amaitzea liga txukuna egin den seinale da, nahiz eta azken hilabeteotan aurrealdekoen borroka horretan egoteko aukerarik ez izan. Bada, Mondrak (56 puntu) horixe du buruan, atzetik datozkion Zarautzi (55) eta Bergarari (54) ligako azken jardunaldian aurre hartzeko aukerarik ez ematea.

Horretarako, baina, Jorge Davilaren mutilek emaitza positiboa lortu beharko dute Hernani (61) talde zailaren zelaian (zapatua, 16:30). Hernaniarrek, berriz, hirugarren postuan amaitzeko aukera dute azken jardunaldi honetan.

Ekainaren 2an egingo dute beterranoen mendi martxa

Besaideko beterranoek ekainaren 2an egingo dute mendi irteera. Oraingoan, Bizkai aldera joango dira, Urdaibai inguruan lau orduko mendi buelta egitera. Izena emateko azken eguna datorren martitzena izango da, hilak 22, (19:30-20:30) Besaideko egoitzan. Bazkide eta federatuek 46 euro ordaindu beharko dituzte, eta 51 euro bazkide ez direnek.

Arrasate Atletikok, urrezko domina errelebo proban

Joan den astean Tolosan egin zuten Gipuzkoako alebin mailako txapelketan, Arrasate Atletiko bigarren sailkatu zen, taldeka. Eta txapelketan zehar egindako modalitate guztietatik, Arrasatekoak 4x60 errelebo lasterketan nabarmendu ziren: Kepa Maidaganek, Xabi Carrascalek, Almedi Mujikak eta Joan Leibarrek urrea irabazi zuten.

Kadeteak, Espainiako Txapelketara

Domekan jokatu dute, Huelvan, Espainiako kadete mailako txapelketa, eta han izango da EAEn lehen postuan geratu den Ointxe! Araski taldea.

Hala, Iñaki Ogararen neskek domekan (09:30) Movistar Estudiantes taldearen kontra jokatu dute. Astelehenean, hilak 21 (09:30) Bosco Salesiano izango dute aurrean eta martitzenean, Sant Josep (11:30).



Ointxe! Araski taldeko neskek Iturripen ospakizunetan. IMANOL SORIANO



DRAGOI GIMNASIA TALDEA

Dragoikoak, aerobikean txapeldun

Asteburuan Sorian jokatu Espainiako Aerobik Txapelketatik domina sortarekin itzuli ziren Dragoi gimnasia taldeko kideak. N3 mailan hirugarren postua eskuratu zuen Uxue Azkuek, bakarka egindako lanarekin; eta lehen postua hirukotea egindako saioarekin —Izaskun Garcia, Nahia Irazola eta Noah Berrocal—.



Arrasate Musikaleko zenbait ikasle Arrasateko plazan, iaz egin zuten Jazz Session batean. ARRASATE MUSIKAL

Musika kalera aterako du Arrasate Musikalek

Musika Kalean emanaldia eskainiko du gaur, egubakoitza, Arrasate Musikalek, 18:15ean hasita; hainbat taldek herriko lau txokotan eskainiko dituzte emanaldiak: Arbolapetan, Seber Altuben eta Taupa eta Monte tabernen kanpoaldean

Eneko Azurmendi ARRASATE

Urtean zehar landutako guztia kalera aterako du, lehenengoz, Arrasate Musikalek. "Ikasturte hasierako bileran, erabaki genuen antzoki eta aretoetatik kalera atera behar genuela gure musika, eta herrian ezagutzera eman", azaldu du Edorta Aiastuik, Arrasate Musikaleko ekintza arduradunak.

Familiaka antolatuko dira: perkusioa, haizea, haria, egurra eta metala, hain zuzen ere. Perkusiozko instrumentuak handiak direnez, Arbolapetan bakarrik joko dute, mugitu gabe, baina beste guztiak txoko ezberdinetan ariko dira. Abestiei dagokienez, orotarikoak izango dira, taldearen arabera.

Horrez gainera, Arrasate Musikaleko gaiteroek kalejira egingo dute Arbolapeta eta Monte taberna artean. Gero, taberna aurrean erakustaldia eskainiko dute. Bitartean, Monte tabernaren kanpoaldean bateria-jole bat ere izango da, giroa alaitzen.

Emanaldia bukatzean, instrumentuen inguruko azalpen batzuk emango dituzte, eta herritarrek aukera izango dute instrumentuak probatzeko.

Bihar, kontzertua

Bestalde, saxofoi eta gaita ikasleek kontzertua eskainiko dute bihar, zapatua, 12:00etan, Musika Eskolan.

Matrikulazio epea

2018-2019 ikasturteko matrikulazio epea maiatzaren 21ean irekiko dute. "Aipatzekoa da musika tailerra, Suzuki biolin metodologia, gitarra elektrikoa, baxua eta bateria ere eskaintzen ditugula, eta helduentzako eskaintza ere badugu". Informazio gehiagorako, 943 77 05 40 telefonora deitu edo eskolara joan.



AMAIA TXINTXURRETA

Arrakastatsu, beste behin

86 lan aurkeztu dira aurten Arrasate Literatur Lehiaketan, eta AEDko dinamizatzaile Itxaro Artola gustura azaldu da lehiaketak eman duenarekin. "Ikusten da harrobi bat badugula hemen, eta gure helburua da harrobi hori bermatzea. Pena izan da poesia atalean lan gutxiago aurkeztu direla, baina, oro har, parte-hartzeak gora egin du", adierazi du.

OHARRAK

Antzerki-performancea gaur gaztetxean

43° 13' 44"N antzerki-performancea eskainiko dute gaur, egubakoitza, gaztetxean, 20:30ean. Pieza hau autoreak familia-memorian eta memoria kolektiboan egindako bilaketaren ondorioa da, AGAKOko kideen esanetan: "Oroimena landuz, ahaztuko ez dugulako eta ahazten dena errepikatuz kondematuta egon gaitezkeelako. Performance eta dokumentu-antzerki formadun nabigazio-egunkari bat. Biografia politikoduna".

Des-kontrol taldea, Berlinen

Des-kontrol talde arrasatearrak kontzertua eskainiko du bihar, zapatua, Berlingo Clash tabernan. Jaialdia 21:00etan hasiko da eta beste bi talde ere igoko dira oholtza gainera: Pipo & The Bastards eta Sideburns & Switchblades.

Sofa taldearen kontzertua, egunean

Kooltur Ostegunetako hurrengo gonbidatua Sofa izango da. Zarauzko eta Zumaiako hirukote instrumentala da Sofa, math rock melodikoa jorratzen duena. Taldea orain dela lau urte sortu arren, 2014an hasi ziren zuzenekoak ematen. Kontzertua maiatzaren 24an izango da, 22:00etan. Sarrera bost euro da.

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurritan
 Ateak · Eskailerrak ·
 Leihok · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROSZTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
 aroztegia@ugarte-aroztegia.com

121
 KALITATEA
 Enpresa Registrada Nº00025

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA
 Edurne Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta eta logopeda
 Itziar Iriondo - Psikologo Psikoterapeuta
 Saioa Belategi - Psikologoa, Heziketa Bereziko masterra
 Kontzi Lazkano - Pedagogoa
 Ion Astigarraga - Psikologoa

Diagnostikoa · Orientazioa
 Psikoterapia:
 umeak, gazteak eta helduak
 Arreta psikologikoa
 genero indarkerian

Laguntza eskolarrak
 Estimulazio goiztiarra
 Logopedia
 Ikasketa teknika eta ohiturak

Ignazio Zuloaga 10 • Tel.: 943 79 48 77 • ARRASATE
 psikopedagogiko-arrasate@euskalnet.net RPS 295/13



Rotten XIII taldea, iazko Tafallako Gazte Jaietan. ANDER CABRERO

Eguzkierripa Rock, festa bikoitza hamargarrenean

Urteurren borobila du Aramaioko jaialdiak, eta, hori ospatzeko, bi egunekoa izango da aurtengoa; honela, zapatuko Andra Mariko ohiko kontzertuei, bezperan kalean egingo direnak gehituko zaizkie. Rotten XIII tafallarrak daude, adibidez, aurtengo kartelean

Julen Iriondo ARAMAIO

Ari da bere bidea egiten Eguzkierripa Rock jaialdia, eta aurtengoa hamargarren edizioa du dagoeneko. Hori ospatzeko, eta jaialdiaren bueltan sortzen den giroa kalera ere zabaltzeko asmoarekin, barikukoa gehituko zaio zapatukoari.

Askotariko ñabardurekin, baina edizio rockzalea izango da aurtengoa, nahiz eta izango diren bestelako kutsudun emanaldiak ere: Pelax, akustikoa, eta Sara Alonso, horren adibide. "Normalean baino talde ezagunagoak izango ditugu; Rotten XIII nafarrak, esaterako. Kartel potentea egin nahi izan dugu, eta oso gustura gaude", dio Aramaioko Gazte Asanbladako Unai Ettxenausiak.

Edizio honetako beste aldaketa bat izango da zapatuko kontzertuetan talde bat gehiago ariko dela, eta, ohi bezala, herriko taldeek ere izango dute lekua egitarauan: Alonsorekin batera, Libertad Condicionalek,

Xementeriok eta ERMk, hain zuzen ere.

Barikuan, gaueko kontzertuen aurretik, ekitalditxo bat izango da plazan, Eguzkierripa Rocken hamargarren edizioaren harira. Zapatuan, berriz, bazkari ostean, eta iaz hasitako bideari eutsiz, antzerkia izango da, Txabela Bragas ondarrutarren eskutik; antzezlan berria estreinatuko dute. Bazkarirako txartelak herriko tabernetan eta Arrasateko Jaizalen eskura daitezke, 8 eurotan, domekara arte –begetariano edo beganoek mezua bidali dezakete aramaixotropika-la@gmail.com helbidera–.

Erasoen kontrako protokoloa

Aramaioko talde feministarekin –sortu berria– landutako eraso matxistei erantzuteko protokoloa martxan izango da Eguzkierripa Rocken: "Beharrezkoa ikusi dugu, orain arte jai giroan isilean geratu diren kasuengatik, eta etorriko direnak geratzeko", esan dute Asanbladako kideek.

Asteburuko egitaraua

Maiatzak 25, barikua

- **19:00** Sara Alonso, Eki tabernan.
- **20:30** Libertad Condicional, Añai tabernan.
- **22:00** Ekitaldia eta, ondoren, kontzertuak: Txerrikumeak, Los Clayton eta Balarrasa, plazan.

Maiatzak 26, zapatua

- **12:30** Karropoteoa.
- **14:30** Herri bazkaria eta, ondoren, antzerkia: Txabela Bragas, Andra Marin.
- **20:00** Kontzertuak: Xementerio, Pelax, ERM, Rotten XIII, Kañeria 13 eta Krisis, Andra Marin.



Aitor Ugarte, garaikurra eskuan duela. BERTSOZALE ELKARTEA

Arabako Eskolartekoa irabazi eta Euskal Herrikora berriz ere

Aitor Ugarte bertsolari aramaioarrak jantzi zuen txapela Legutioko finalean, eta Saran izango da ekainaren 9an

J.I. ARAMAIO

Berriz ere Euskal Herriko Eskolarteko finalean kantatu ahal izatea ederra litzatekeela zioen Ugartek Legutioko saioaren atarian, esperientzia bikaina izan zela eta; eta lortu du txartela: "Sari potoloa da. Aurreko urtean izan nuen Saran finalean abesteko aukera, eta oso pozik nago, disfrutatzeko eguna da eta". Eta aurtun, gainera, Arabako txapeldun moduan izango da –iaz, txapeldunorde legez joan zen–, aurreko zapatuan Legution nagusitu ostean: "Saio osoan nahi-ko ziur eta eroso sentitu naiz.

Egun polita izan da", zioen Arabako finalaren amaieran. Anaia Xabiri eskaini zion txapela.

Kultura etxeko aretoa bete zuten 120 lagun aurrean, Martin Abarrategi ere aritu zen Ugartekin batera, eta lan polita egin zuen hark ere. Bigarren postua eta, ondorioz, Euskal Herriko finalerako bigarren txartela, baina, iazko txapeldun –Arabako zein Euskal Herriko– Aroa Arrizubietarentzat izan zen. Sara izango da, aurtun ere, herrialdeetako Eskolartekoeta-ko bertsolari onenen topaleku, ekainaren 9an.



Bikotea, bakarka ederki

PERU ABARRATEGI ARAMAIOKO BERTSO ESKOLA

Larunbatean, maiatzaren 12an, Legution Arabako Eskolarteko Txapelketaren finala jokatu zen. Bertan sei bertsolari aritu ziren bertsotan, eta hauetako bi aramaioarrak, herritarrak, Aitor Ugarte eta Martin Abarrategi. Biek eginiko saio bikaina azpimarratu nahiko nuke. Aitorrek finala irabazi eta Euskal Herriko Eskolarteko finalean kantatzeko txartela eskuratu zuen; ekainaren 9an izango da, Saran. Legutioko saioan entzule modura egon nintzen eta bertan ikusi ahal izan nuen ze bikote ederra osatzen duten bi bertsolari aramaioar hauek.

Konplizitate handia erakutsi zuten bai oholitza gainean, baita oholitzatik kanpo ere, elkar animatuz, elkar lagunduz eta elkar lasaituz. Bertso eskoletan egiten den lana ekarri zidan honek gogora, Aramaioko bertso eskola osasuntsu dagoela ondorioztatu nuen, bi gaztetxo hauek erakutsi zidaten astero-astero egin den lana ez dela alferrikakoa. Beraz, bi gazte hauen atzetik bertso eskolan dabilzan belaunaldi jarraitzeko dei egin nahi nieke, denborak ematen baititu bere fruituak. Elkar lagunduz, bakoitzak berea emanez, baina beti elkarrekin, talde bikaina osatzen dugulako adin ezberdinetako bertsolariok Aramaion.



Apirilaren 21ean, Haur Abesbatzen Egunean, Gasteizen, beste abesbatza batzuetako kideekin batera. AIZPEA AJURIAGERRA

Papargorri, jaietarako saio berezia prestatzen

Sanmartinetako aurtengo kontzertua desberdina izango da, "nahikoa muntaia handia", abesbatzako kideek adierazi dutenez. Entseguetan ari dira, alde batetik; eta urteko gastuei aurre egiteko lagungarri zaien zozketarekin, bestetik, maiatz osoan zehar

Julen Iriondo ARAMAIO

Hilabete pasatxo baino ez da falta Papargorri abesbatzaren urteko hiru hitzordu garrantzitsuenetako baterako; Gabonen bueltan izaten da bat, Arabako Haur Abesbatzen Egunean beste bat –apirilaren 21ean izan da 2018koa, Gasteizen– eta herriko jaietan hirugarrena: "Aurtengoa desberdina izango da, ez da ohiko abesbatza kontzertu bat izango, agertokira irten eta abestu; guretzako nahikoa muntaia handia izango da aurtengoa", dio abesbatzako Maria Izagak jaietakoari buruz.

Zehaztasun gehiago eman gabe, "sorpresa" izatea nahi dutelako, baina Izagak dio, baita ere, adin tarteka banatu gabe denek batera egingo dutela aurtengo saioa. Bihar, zapatua, dute ekainaren 28ko emanaldia prestatzeko hurrengo entsegua.

25 kantari

Gaur egun, 1995. urte inguruaz geroztik jaiotako 25 lagun inguruk osatzen dute Papargorri haur abesbatza. 2002an sortu zenetik bestela ere izan den arren, une honetan gehixeago dira nagusitxoenen multzokoak umeak baino: "Eskolaz kanpoko ekintzen araberakoa izaten da hori sarri. Aurten zenbait ekintza berri jarri dituzte, eta neska-mutikoen

denetik probatzeko joera dute", dio abesbatzako Blanca Mendialduak.

Horrela, sarri, lehen urteetan, jarraikortasunik gabea izaten ei da neska-mutikoen parte-hartzea abesbatzan; bestela izaten da behin zaletasunak egonkor-tuta.

Eta ez bakarrik kopuruz, mai-laz ere ondo dabilta abesbatza-

ko nagusien taldetxo osatzen dutenak, eta baita ardura hartzez ere: "Larraitx Arriolabengoa zuzendariaren laguntzaile lane-tan ibiltzen dira horietako zen-bait, eta hark asko eskertzen du haien ekarpena", dio Mendialduak, abesbatzaren "osasun ona" nabarmenduz. Abesbatzako ki-deen artean, bestalde, hiru dira mutilak, "oso kantari onak".

Maiatzeko zozketak martxan daude

Maiatzeko lau egubakoitzetako zozketetako aurreneko bi sariak banatu ditu Papargorrik. Abesbatzarentzat diru pixka bat lortzeko antolatzen duten zozketan, Santi Elejalderi –argazkian, Papargorriko Anje Kortabarriarekin batera– eta Eneritz Kortabarriari egokitu zaizkie herriko produktuz eta bertako denden generoarekin osatutako aurreneko bi saskiak.

Azken bi zozketak gaur eta hurrengo barikuan izango dira –ONCEn kupoitzarraren zenbaki sarituaren azken hiru zifrak hartzen dira zotuan–, eta txartelek euro bateko prezioa dute. Saria, otarra, ikusgai egoten da ekonomatuan.



Santi Elejalde sariarekin. PAPARGORRI

Aramaioko pilotariak, faboritoari ere irabazteko itxaropenez

Herriartekoaren bigarren jardunaldia izango dute bihar Gasteizen kontra, Laudiori 2-1 irabazi eta gero

J.I. ARAMAIO

Puntuak batzen jarraitzeko asmoz, berriz ere etxean jokatu dute aramaiorrek, Herriarteko txapelketaren bigarren jardunaldian. Aurrenekoan, kadete eta senior mailako partiduak irabazi zituzten Laudioren kontra, eta gazteena galdu. Txapelketa irabazteko faboritoetakoa den Gasteizen kontrakoa bihar, zapatua, 10:30ean hasiko da. Kadete eta gazte mailetakoa irabazteko modukoak ikusten dituzte aramaiorrek.



Lehen jardunaldiko irudia. IMANOL SORIANO

Lagun arteko topaketak

Domekan, berriz, Gorbeialdeko lagun arteko topaketen bigarren jardunaldia jokatu da Aramaioko frontoian. Etxekoekin batera, Murgiako, Zigoitiko, Legutioko eta Urkabustaizko pilotariak ariko dira, eskuz binakako partiduetan, hastapen

eta kadete kategorien artekoak. Pala partiduak ere izango dira.

Julen Olaizola txapeldun

Julen Olaizolak irabazi egin du Legutioko txapelketa, bertako pilotari Koldo Riorekin batera, 22-13, Lakuako bikotearen kontra.



GOIENA

Arejolaleiba txapeldun

Zarautzen jokatu zen aurreko zapatuan Gipuzkoako Txirrindularitza Txapelketa, eta Gari Arejolaleibak irabazi zuen, bere mailan, infantiletan. Gainera, lasterketa hartan zuten parte, baita ere, Sabin Abarrategi, Oier Elortondo eta Carlos Ugarte aramaiorrek. Guztiak Dorletako Ama txirrindularitza elkartearen parte dira.

Arrasate Musikalen kontzertu lirikoak datorren barikuan

Datorren barikuan, maiatzaren 25ean, kontzertu lirikoak eskainiko du Arrasate Musikalek Aramaioko kultura etxean. 18:30ean hasiko den kontzertua Arrasate Musikaleko kantu eskolako irakasle Tere Gonzalezek gidatuko du. Emanaldian parte hartuko dute Marta Izagirrek eta Eduardo Artzamendik ere, pianoarekin, ikasleei lagun eginaz. Doan izango da.

Zuntz optikoa sartuko dute laster Ibarran eta Oletan

Aldundiak erabaki du, Aramaiori dagokionez, Ibarran eta Oletan sartzea zuntz optikoa. Horrela, Interneten 15-20 mega izatetik 300 izatera pasa ahaliko dira bizilagunak. Movistar konpainiak egingo ditu lanak, eta egun haue-tan baimenak eskatzen ari dira atarietan instalazioak egiteko. Gero, bakoitzak erabakiko du zerbitzua kontratatu edo ez.

Futbol zelai berrirako, ia 400.000 euro bideratuta

Ia 1.200.000 euro hainbat proiektutara banatzea onartu du udalbatzak. Horien artean daude Ibarra kiroldegi aurrean futbol zelaia egitea; Errekabarren, Loramendi eta Bizkaia kaleak berritzea; eta nerabeekin parte-hartze prozesua egitea

Mirari Altube ARETXABALETA

Ohiko osoko bilkura egin zuen udalbatzak eguaztenean, eta Kurtzebarri eskolako ikasleen proposamenak jaso zituzten lehenengo, uraren gainean landutakoak, hain zuzen. Behin bilkura hasita, kreditu aldaketa garrantzitsuak onartu zituzten.

Gerakinean dagoen dirutik (milioi eta erdi euro) 1.162.000 euro hainbat proiektutara bideratzea proposatu zuen Udal Gobernuak. Kopururik handiena Ibarra kiroldegi aurrean futbol zelaia egiteko izango da, ia 400.000 euro. "Hori sartuko du Udalak orain, baina UDAk konpromisoa hartuta dauka 100.000 euro jartzeko", jakinarazi zuen Unai Elkoro alkateak.

Hiru kale konpontzeaz

Beste kopuru garrantzitsu bat, 275.000 euro, herri barruko errepideak konpontzeko erabiliko dute. Udal aurrekontuan sartuta duten 200.000 eurori batuko diote hori, eta, batez ere, hiru lan egiteko erabiliko dute: "Batetik, Errekabarren kalea berrituko dugu, eta asfaltatze lanekin batera kalearen alde batean falta den espaloi zatia egin. Eta bestetik, Loramendi kalea konponduko da, biribilguneetik Araba ibilbiderainoko zatia", argitu du alkateak, eta gaineratu: "Bizkaia kaleari ere heldu gura dugu. Baina erabaki bat hartu aurretik ondo aztertu gura dugu; baliteke zirkulazio aldaketaren bat proposatzea, oinezkoendako hobeakuntzak egiteko".

Horrez gain, udaletxeko begiratokia konpontzeko 50.000 euro bideratuko dituzte; nerabeekin egin gura duten parte-hartze prozesua abian jartzeko 10.000 inguru; 20.000 euro parkeak txukuntzeko; eta bidegorrian komunak jartzeko asmoa ere badute Eskoriatzako Udalarekin batera. Tirolinak dauden inguruan jarri gurako lituzkete.



Neska-mutikoak proposamenak egiten udalbatzako kideei. MIRARI ALTUBE

Uraren gaineko proposamenak

Kurtzebarri eskolako neska-mutikoen bisita jaso zuten eguaztenean udalbatzako kideek. Eskola Agenda 21 egitasmo barruan ikasturtean zehar uraren gainean landutakoak azaldu zizkieten gaztetxoek udal ordezkariari, eta hainbat proposamen egin. Lehen Hezkuntzakoek, esaterako, uraren inguruko udaleku bat egitea, ibaiak garbitzea eta ura ez zahutzeko sentsibilizazio kanpainak bideratzea proposatu zituzten. DBHkoek, ostera, Ibar basoa berreskuratzea eta ibai ertzean ez eraikitzea. Eta konpromisoak ere hartu zituzten; esaterako, hodiak apurtuta egonez gero abisua pasatzea eta zaborrik ez botatzea.

Udalbatzako kideek adi-adi entzun zituzten proposamenok eta Unai Elkoro alkateak konpromisoa hartu zuen guztiak aztertzeke eta datorren ikasturte hasieran erantzuteko.

Herri barrutik pasatzen den bidegorri zatiari dagokionez, Kurtzebarri eskola albokoaren proiektua egindakoan herritarrei jakinaraziko diete: "Feedbacka jaso gurako genuke. Santa Kurtz kaleko irisgarritasun lanei ere lehenbailehen heldu gura diegu".


Gerakinetik 400.000 euro gorde egingo dituzte datorren urtera begira, alkatearen esanetan, "poltsatxo bat beti datorrelako ondo". Onartutzat eman zituzten kreditu aldaketok, EH Bilduk abstentziora jo zuen arren.

Homofobiaren aurkako mozioa

EH Bilduk, berriz, mozioa aurkeztu zuen maiatzaren 17ko

Homofobiaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira. "Egun hori dela-eta konpromiso batzuk hartzeko eskatu dugu; Udalari, protokolo bat garatzeko eta egiten duen politiketan gaia lantzeko zeharka. Eta Eusko Jaur-laritzari, LGTBI pertsonen eskubideen urraketen gaineko diagnosia egiteko". Aho batez onartu zuten mozio hori.

Datorren urteko egutegian herriko jaiegun zein izendatu ere erabaki zuten; bi data izan zituzten mahai gainean: Arastute biharamuna edo abuztuaren 16a, Andramari jaien bigarrena. Azken horrek irabazi zuen, al-deko lau botorekin.



Deba ibai ertzeko planoak. ARETXABALETAKO UDALA

Ibai alboko pasealekua Ibarra kiroldegiraino iritsiko da aurten

226.000 euroko aurrekontua duten lanak esleitzeko oinarriak dagoeneko argitaratu ditu Udalak

M.A. ARETXABALETA

Deba ibaiaren alboko pasealekua Ibarra kiroldegiraino luzatzeko lanak datozen hilabeteotan egingo dituzte. Obrak esleitzeko oinarriak dagoeneko argitaratu dituzte, eta, proposamenak jasotzeko epea agortu ondoren, kontratazio mahaiak esleipena egingo du; iragarri dute ekainean izango dela, seguru asko. 62 metroko luzera du egiteko dagoen tartea, eta 226.000 euroko aurrekontua; horietatik 35.000 euro aireko linearen lurperatze lanak egiteko izango dira. Behin lanak hasita, lau hilabete beharko dituzte erabat bukatzeko.

Lurraren baldintza zailak

"Mugikortasun jasangarria helburu estrategikoa da Udalarentzat eta horrela izan da azken urteotan", adierazi dute, eta gaineratu: "Helburu horri eutsiz,

oinezko zein txirrindularientzat pasealeku sare zabala egokitu da herrian zehar, Aretxabaleta Arrasaterekin lotzen duena, eta Eskoriatzarantz oraindik ere atondu gabeko tarte batzuk dituen". Oraingo proiektu honek tarte horietako bat "egokitzea" du helburu, erdigunea kiroldegiarekin lotzeko.

Era berean, jakinarazi dute lurrak dituen baldintzak ez direla errazak: "Erreka ertzean landare trinkoak daude eta goiko aldean drainatze lanak egiten dabilta. Ikusi diren arazoak konpontzeko, erreka aldean horma bat egitea aurreikusten da, baita indusketa lanak ere mendira ematen duen aldean".

Pasealekua luzatzearekin batera, aireko argindar sarearen lurperatze lanak ere bukatuko dituzte, Iberdrolak dituen erdi tentsioko aireko lineak, hain zuzen ere.

Bideo jokoan eta umeen gaineko hitzaldia eguaztenean

Udalak eta Guraso Foroak elkarlanean antolatutako eta gurasoei bideratutako trebakuntza saioen barruan, umeek smartphoneekin eta bideo jokoekin duten harremanaren gainean egingo du berba Iratxe Esnaolak (Zarautz, 1981); eguaztenean, maiatzaren 23an, izango da hitzaldia, 18:30ean, udaletxeko ganbaran.

Informatika ingeniaria eta Deustuko Unibertsitateko irakaslea da Esnaola, eta gurasoei gako batzuk emango dizkie, umeekin gaia zelan landu laguntzeko asmoarekin.

Maiatzaren 30ean, eguaztena, ostera, Aretxabaletan kale hezitzaile lanetan diharduten Manex Lizarrak eta Nerea Larrinagak sare sozialak izango dituzte berbetarako gai. Besteak beste, Facebooken eta Instagramen gaineko lantegia eskainiko dute, 18:00etan, udaletxeko ganbaran.

Herriko merkataritza indartzea helburu

Komertzioa biziberritzeko plana egin du EH Bilduk, bost proposamenetan oinarrituta; besteak beste, jaso dituzte Aretxabaleta guneko komertzial irekia izan dadin hainbat aldaketa egitea eta etxeetara erosketak eroateko zerbitzua abian jartzea

Miren Arregi ARETXABALETA

Herriko komertzioaren egoerak kezkatuta, Aretxabaletako EH Bilduk hori biziberritzeko plana egin du. Hainbat proposamen jaso dituzte plan horretan, eta horiek merkatariekin partekatu. "Harrera ona" izan dutela diote, eta gaineratu dute Udal Gobernuak ere "begi onez" ikusi duela proposamena. Erosketak etxeetara eroateko zerbitzua edo Aretxabaleta bere osotasunean guneko komertzial ireki gisa aurkezteko dira horietako bi.

Neurri fiskalak eta laguntzak

Bost ardatz nagusi proposatu ditu EH Bilduk, eta ardatz horien barruan hainbat neurri. Horietako bat da gaur egungo merkatariei eta komertzio berri bat zabaldu gura dutenei laguntzeko neurria. Horretarako, Udalaren esku dauden neurri fiskalez gain, programa zehatzak bultzatzea proposatzen dute. Esaterako, irekiera lizentziak merkatea, obra zergetan %50eko hobaria aplikatzea, transmisio programak bultzatzea eta lokalak alokatzeko diru laguntzak ematea.

Bigarren ardatzean jaso dute herri aktiboa sustatzea. Hala, ekintza kulturalak indartu eta herri mugimenduak mimaatzea garrantzitsutzat jo dute: "Kulturak eta herri mugimenduak kaleari ematen dion dinamismoa eta horrek komertzioari egiten dion ekarpena dela eta; izan ere, herri biziak komertzio bizia edukitzen dute", argitu du Ion Albizu zinegotziak.

Gune komertzial irekia

Hirugarren ardatza bereziki nabarmentzeko dela uste dute, eta da, hain zuzen ere, Aretxabaleta, bere osotasunean, guneko komertzial ireki bezala ulertzea. Horrek hainbat aldaketa ekarriko lituzke. "Irudi korporatibo propioa izatea, zerbitzu integratuak... hau da, merkataritza-



Ion Albizu eta Irati Pagoaga zinegotziak proposamenarekin eskuetan. MIREN ARREGI

UDALAREN ETA MERKATARIEN ARTEAN KOMERTZIO MAHAIA SORTZEA PROPOSATU DUTE

gune batean lez. Hori horrela, Aretxarte merkatarien elkarteak, elkarte bat izatetik zerbitzuen hornitzailea izatera pasatzea proposatzen dugu", adierazi du Albizuk, eta gaineratu: "Horrela, beste gune komertzial handiagoekin lehiatzeko eraginkorreragoak izan gaitezke".

Proposamen horren arabera, ingurune fisikoan ere aldaketa batzuk ekarriko lituzke: "Besteak beste, lehentasunezko gune komertzialak definitzea, kalearen okupazioa arautzea eta aparkaleku politika berrikustea". Gainera, gune estali bat sortzea ere proposatu du EH Bilduk, astelehenetako azokari duintasuna emateko eta ekintza ezberdinak egiteko.

Erosketak mugitzeko zerbitzua
Proposamenaren beste elementu garrantzitsu bat da erosketak

mugitzeko zerbitzua martxan ipintzea, herritarrek gehiago eros dezaten herrian bertan. Hori horrela, Aretxabaleta eta Eskoriatza artean erosketak komertzioen artean egin eta bezeroen etxeetara eramateko zerbitzua martxan jartzea jaso dute planean; Oñatin dagoeneko martxan duten zerbitzuaren antzekoa: "Oñatiko kasua ezagutu genuen, eta oso ondo dabil funtzionatzen. Une honetan, hamasei dendari eta jatetxe daude programa horretan sartuta. Etxeetara eroaten diete erosketak herritarrei".

Azkenik, Udalaren eta merkatarien artean komertzio mahaia sortzea ere proposatu dute, hori guztia ahalbidetzeko. Baita Komertzioa Biziberritzeko Plana egitea, eta Udaleko Enplegu teknikaria, "era aktiboan", komertzioa bultzatzeko zerbitzura jartzea.

EH Bilduk badaki "ezinbestekoa" dela giza baliabide eta baliabide ekonomikoak handitzea proposamena martxan ipintzeko. Horregatik, haxe proposatu dute: "Eroskiren irekierak ekarri ditzakeen baliabide ekonomikoak herriko komertzioa indartzeko erabiltzea".

Emakumeen Bira dela-eta aldaketak kale eta errepideetan

Ondorio nabarmenenak jasango dituzte Durana eta Mitarte kaleek, Basabe poligonoak eta Iralabarri plazak

Mirari Altube ARETXABALETA

Emakumeen Biraren hirugarren etapa Aretxabaletan hasi (15:30) eta bukatuko da (18:45) datorren astelehenean, hilaren 21ean –38. orrian luze eta zabal–. Horren eraginez, asko izango direla herrian sortuko diren gorabeherak iragarri dute udal ordezkariak, eta pazientzia eskatu diete herritarrei: "Egun horretan zenbait kaletan eta herri barruko errepideetan noranzko aldaketak eta mozketak izango dira".

Kale mozketak, domekatik

Aldaketa handienak izango dituzten kaleak honako hauek dira: Durana, Mitarte –Eroski eta okindegiko adarrak barne–, Basabe bidea, Basabe poligonoa eta Iralabarri plaza ingurua. Aparkalekuak kenduko dituzte horietan; trukean, kiroldegi aurreko zelaian aparkatu ahal

izango da. Horrez gain, Azbe aurreko autobus geltokia tokiz aldatuko dute, jaietan bezala, Urkulurako igoera hasten den punturaino.

Besteak beste, honako ibilgailu hauendako beharko da lekua: antolakuntzako 24 auto eta autobus; hiru ibilgailu neutro; hiru anbulantzia; hamabi ibilgailu ofizial; Ertzaintzaren hamazortzi motor; eta beste 23 motor bidegurutzeen zaintza egiteko. Gainera, Global Podium-eko kamioi handia eta beste zenbait azpiegitura ere izango dira. "Ondorioz, domekatik bertatik hasita kale mozketak izango dira", jakinarazi dute. Unean uneko argibideak ematen eta bideak mozten boluntarioak egongo dira bidegurutzeetan. Herrian 30 lagunekoko boluntario taldea dabil etapa koordinatzen, eta Debagoienean 120 bat lagun arituko dira.

Dantzeekin beteko da herria maiatzaren 25etik ekainaren 1era

Laugarrenez antolatu du Jaiki elkarteak Dantza Astea, eta maiatzaren 25etik ekainaren 1era bitartean ikuskizun eta emanaldi mordoa izango dira; gehienak, kaleetan.

Egun mamitsuena hilaren 26a izango da, zapatua; lau ikastaro egingo dituzte orduan –tangoa, dantza afroarrikideak, dantza urbanoak eta Kontakids– eta

ondoren erakustaldiak kaleetan. Dena den, Jaikiko kideek nabarmendu gura izan dute Basotxoko erretiratuekin antolatutako erromeria: "Ilusio handiarekin dabilta-eta gertatzen". Baita hilaren 31n Arkupen izango den ekitaldia ere: "Musikak, dantzak eta Kar mele Igartuaren olerkiek bat egingo dute, eta berritzailea izango da". Horiekin batera beste dantza batzuk ere izango dira: Sevilla-koak, Broadwaykoak, aretokoak, suffle dantzak...

Santa Rita eguna ospatuko dute maiatzaren 22an

Santa Ritaren omenezko bederatziruena egiten dabilta zaindari horri debozioa diotenak astelehena ezker, eta martitzenean, hilaren 22an, ospakizun nagusia izango dute. Urtero lez, Andre Mariaren Zeruratze parrokian meza esango dute lehenengo (19:00), eta bukaeran, bakoitzak eroandako arrosak bedekatuko dituzte.





Sariuak eta Loramendiko ordezkariak diplomatxoak esku artean dituztela. ENEKO AZURMENDI

la 350 lan Loramendi literatura lehiaketan

Herrian ondo errotuta dagoen eta 29.ez egin den lehiaketako lanik onenak saritu ditu Loramendi euskara elkarteak. 8 eta 16 urte arteko ikasleen artean ipuinek izan dute arrakasta handiena; aurtengo berrikuntza, ostera, euskarazko 'meme'-ak izan dira

E. Azurmendi/M.Altube ARETXABALETA Loramendi Euskara Elkartek antolatutako 29. literatur lehiaketa arrakastatsua izan da, beste behin. Aretxabaletan bizi edo ikasten duten 8 eta 16 urte bitarteko ikasleek hartu dute parte eta ia 350 lan aurkeztu dituzte; eguaztenean sariak jaso zituzten lan onenen egileek.

Ipuinak nagusi

Beste behin, ipuinak izan dira arrakasta handien izan dutenak; 138 jaso dituzte. Sentimenduzko gutunak ere asko izan dira, 67; eta horien atzetik geratu dira argazkia duten postalak, 50; bertsoak, 49; iritzi artikulua, 31; eta *meme*-ak, 14. Hain zuzen ere, aurtengo berrikuntza euskarazko *meme*-ak izan dira, eta antolatzaileak pozik agertu dira, harrera beroa egin diete-eta gaztetxoek.

Bertsoak Lekaixoka bertso eskolakoek epaitu dituzte eta gainontzeko lanak, Loramendi elkarteak kultur batzordeko

partaideek. Aipatu dute aurtengo ere "maila polita" erakutsi dutela. Sail bakoitzeko hiru onenek Aretxarteko komertzioetan erabiltzeko bonuak jaso dituzte; elkarteak kideen esanetan, herriko komertzioak sustatzeko helburuarekin eta ikasleak "kontziente izan daitezten herrian erostearen garrantziaz".

Euskara bultzatzea helburu

Loramendi elkarteak kideak pozik agertu dira 29. aldiz antolatutako eman duenarekin: "Idazteko zaletasuna sustatu gura dugu, formatu ezberdinetan, eta, era berean, adin horretan euskara bultzatzeko beste modu bat da lehiaketa; izan ere,

IPIUNAK IZAN DIRA NAGUSI, BESTE BEHIN: 138; ETA GERO, SENTIMENDUZKO GUTUNAK: 67

horregatik, oso garrantzitsua da guretzat halako parte-hartze handia izatea", jakinarazi du Iñigo Iñurrategik, Loramendiko presidenteak, eta gaineratu: "Azpimarratu gurako nuke umeen artean sortzen duen ilusioa. Sari banaketa ekitaldian ikusi dugu zelako urduritasunarekin eta pozarekin datozen gaztetxoak".

Ludotekarako koordinatzailea

Loramendik ludotekako koordinatzaile-hezitzailea behar du —eta udaleku irekietako koordinatzailea—. Jardun erdiko lana da, arratsalde, irailean hasteko.

Curriculumak maiatzaren 21erako bidali: *loramendi.aisia@gmail.com*.

"Ez irabazi arren, izugarria izan da Espainiako Txapelketa"

IHINTZ URKIA ERRUGBI JOKALARIA

Universitario Bilbao Rugby eta UPV taldeetan jokatzen du

M.A. ARETXABALETA

Bi taldeetan jokatzen du Ihintz Urkiak (Aretxabaleta, 1999) errugbian: Universitario Bilbao Rugbyn eta UPVn. Liga bukatu berritan, gustura dago lehen denboraldian egindakoarekin.

Zelan joan da denboraldia?

Nire taldea, Universitario Bilbao Rugby, berria da, lehenengoz jokatu dugu liga txapelketa, eta nahiko ondo ibili gara. Lehenengo fasean, atzean geratu ginen, baina bigarrenetan —B liga—, bigarren postua eskuratu dugu.

UPV taldearekin ere badiharduzu...

Bai. Horrekin ere hainbat txapelketa jokatu ditut; Arabaren, Gipuzkoaren eta Bizkaiaren arteko norgehiagokan txapeldunak izan ginen. Baita bigarren kanporaketa batean ere, beste unibertsitate batzuen aurka. Espainiako txapelketan izan berri gara, Sevillan, eta han, laugarren postuan geratu ginen.

Esperientzia polita izango zen...

Izugarria! Pena irabazi ez izana.

Bukatu da errugbi denboraldia?

Liga bai, baina beste txapelketa batzuk ditugu orain, zazpi jokalarirekin jokatzen direnak, *seven*. **Bilbon egindako lehen denboraldi honetan zerekin geratu zara?**



Jokalaria aretxabaletarra. IHINTZ URKIA

Talde giroarekin; etxetik kanpo bizi naiz eta taldekideon arteko harremana garrantzitsua da.

Bilbon jokatutako Europako finalari egin diozu jarraipena?

Bai, horixe! Partiduak bertatik bertara jarraitu ditut, zelan ez! **Horri lotuta ika-mika ere izan da...**

Bai, promozio bideoa egiterakoan ez gintuzten hartu kontuan neskak, eta gero, guk geure bideoa egin genuen; oso polita izan zen. **Emakumeen talde asko daude?**

Batzuk bai, zortzi, hamar... Askok ez gara, baina hemen gaude, aurrera goaz eta gogotsu, gainera.

Krisis taldea 'Desde otro planeta' disko berriarekin dator

Hiru urteko isilunearen ostean astelehenean kaleratuko du Rock Izar Studioekin grabatutako lana

M.A. ARETXABALETA

Dagoeneko hamahiru urteko ibilbidea duen Krisis hirukote aretxabaletarra —Gorka Borgas, Ander Ibañez *Potras* eta Ibai Mujika— Mikel Zangituren gitarra doinuekin indartuta dator oraingoan. Hiru urte isilik —baina lanean— egon ondoren, *Desde otro planeta* diskoa grabatu berri du Rock Izar Studioekin Ibon Larrañaga buru dela, eta astelehenean, maiatzaren 21ean, ikusiko du argia horrek.

80 hamarkadako doinu indartsuekin datoz beste behin, kale-

ko rock hotsak oinarri hartuta, eta punk jarrerari muzin egin barik.

Hamaika kantu

Taldearen bigarren disko luzea da zaleek, astelehenean, eskuartearen izango dutena —lehenengo, *Ahora puedes gritar*; 2015ean grabatu zuten Aretxabaletako Nekro Sound Estudioan—, eta hamaika kantu jaso dituzte hor, besteak beste, *Raro*, *Mucha mierda* eta *Barrerá toda la mierda*; azken horrekin bi-deoklipa ere egin dute.



Eskoriatzako saihebidetako lanak aurrera doaz. IMANOL BELOKI

Lanak ekainaren 27rako amaitzea espero dute

Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Departamentuak jakinarazi duenez, lehenbailehen amaitu nahi dituzte lanak. Saihebidetako itxita, Jose Arana kaletik bideratu dute zirkulazioa, eta ekainaren 2an egingo den Ferixan eragina izango du horrek

Imanol Beloki ESKORIATZA

Apirilaren 13an, Lete auzora bidean dagoen errepide zatia hondoratu egin zen; izan ere, erreka pasatzen den hodia itxi egin zen, eta presa sortu zen Elorreta eta Sorautz artean. Horren ondorioz, lanak egiteko, Eskoriatzako saihebidetako GI-627 errepideak itxi egin zuten, eta Jose Arana oinezkoentzako gunea ibilgailu pisutsuentzat –autobusak eta kamioiak– bi noranzkoetan zabaldu.

Lanetan buru-belarri

Ordutik hona, GI-627 errepidean buru-belarri ari dira lanekin. Bolibar ibaia bideratzeko, 400 zentimetroko diametroa duen hustubidea egin dute; drainatze obrak 40,5 metroko luzera du.

Pasa den astean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegitura Departamentuak jakinarazi zuenez, lehenbailehen nagusia saihebidetako egonkortzea da: "Lanak lehenbailehen amaitzeko behar diren bitarteko guztiak

jartzen ari badira ere, aurreikuspenen arabera, GI-627 errepideak ekainaren 27an zabaltzea da gure asmoa; betiere, baldintza meteorologikoez uztatu bade".

Herri barruan, zirkulazioa

Lanak hasi zirenetik, Eskoriatza herri barrutik eta AP-1 errepidetik pasatzen da zirkulazio guztia, eta herri barruan nabari da trafikoa. "Obra zailak dira; izan ere, kaltetutako zerbitzu asko dago; ibaia behin-behinekoz desbideratu egin behar da, fase desberdinetan hondaketak egin behar dira... Horiek direla eta, ezinezkoa da lanak ekaina baino lehen bukatzea".

ARIZMENDIK ANTOLATZEN DUEN FERIXIA, EKAINAREN 2AN EGINGO DA ALDAKETA BATZUEKIN

Ferixia ekainaren 2an egingo da Saihebidetako itxita, eta Jose Arana kalea momentu oro zirkulaziora irekita dagoenez, Arizmendik urtero antolatzen duen Ferixia egingo den edo ez zalantza sortu dira herrian. Hala ere, Ferixia ekainaren 2an egingo dela jakinarazi dute antolatzaileek. Honela adierazi du Esti Aguadok, Arizmendiko ordezkariak: "Saihebidetako itxita, erdiko kalea zabalik mantentzera behartuta gaude. Momentu puntualetan soilik pasatuko dira Gatzagara joan behar duten autobusek. Autoen zirkulazioa, berriz, atzeko kaleetatik bideratuko da –Arbiñoste eta Dorleta–. Zirkulazio puntual hori kontrolatzeko, punta bakoitzean guraso eta irakasle batzuk egongo dira. Horrez gain, postuen kokapena ez daukagu guztiz lotuta, aukera ezberdinak ditugu esku artean eta guretako egokiena izango dena hautatuko dugu. Betiere, Ferixiak duen esentzia ez galtzea dugu helburu".



Dorleta Kortazar, Miren Amuriza eta Uxue Alberdi oholtzan. MEREN ARREGI

Genero identitateen gainekoa izan da Literatur Topaketa

Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateak antolatuta, Zaldibarren izan da ekitaldia, eguaztenean

I.B. ESKORIATZA

Genero identitateak: izateko eta esateko erak izena ipini zioten Huhezi fakultateak antolatuta eguaztenean egin zuten literatur topaketari. Zaldibar aretoan izan zen ekitaldia eta Maria Delgadok, Josune Gorostegik, Arantxa Urretabizkaiek, Txaro Gallegok, Uxue Alberdik, Miren Amurizak eta Dorleta Kortazarrek hartu zuten parte bertan.

Bertso saio literarioa

Goizeko lehenengo saioa Uxue Alberdiren, Miren Amurizaren eta Dorleta Kortazarren artekoa

izan zen. Arkaitz Canoren, Danelle Sarriugarteren, Gotzon Barandiaranen, eta abarren testuak errezitatu zituen Kortazarrek. Horietatik abiatuta, gaia ipini zioten bertsolariei. Sexu bereizketaz, normaltasunaren mugetatik irteten diren jarrereztatik eta pertsonen eta eredu patriarkalaren beste ertz batzuek aritu ziren.

Bertso saio literarioaren ostean, idazleen txanda izan zen. Mireia Delgado, Josune Gorostegi, Arantxa Urretabizkaia eta Txaro Gallego igo ziren Zaldibarko agertokira.



I.B.

'Eskola aldiriak' proiektua

Tabakalerak bideratzen duen lehiaketa baten bitartez, eskola bidean inguruko proiektu bat garatzen ari dira Arizmendi-Almen ikastolan: *Eskola aldiriak*. Hain zuzen, DBHko 4. mailako ikasleak eta guraso talde bat ari da buru-belarri lanean. Pasa den astean, guraso talde bat Mario Paniego artistarekin bildu zen, Arizmendi-Almen guneari inguruak aztertzeko.



Eskoriatzako zazpi elizateetako bat, Zarimutz. IMANOL BELOKI

'Zazpi elizateen martxa' egingo dute domekan

Bi urtean behin egiten den martxak 30 kilometro inguru eta 1.988 metroko desnibela ditu. 07:00etan hasiko da, Fernando Eskoriatza plazan, eta herriko zazpi elizateak zeharkatuko dituen bidea egingo dute, horiek ezagutzeko asmoz

Imanol Beloki ESKORIATZA

Domeka honetan, *Zazpi elizateen martxa* izango da Eskoriatzan. 30 kilometro inguru eta 1.988 metroko desnibela dituen bidea egingo dute martxara doazenek, eta aurtengoa bederatzigarren edizioa izango da.

Bi urtean behin egiten den martxa da, eta edizio bakoitzean ibilbidea aldatzen dute antolatzaileek. Hala, parte-hartzaileek elizate guztiak zeharkatuko dituzte, 07:00etan, Fernando Eskoriatza plazatik hasiko den ibilaldian.

Aurreikuspen onekin

Edorta Barandiaran *Zazpi elizateen martxa*-ren antolatzaileetako bat da, eta parte-hartze handia aurreikusten du domekarako: "Elizateen martxak bederatzirte egingo ditu aurtan. Lehenengo hiru edizioetan, urtero egin zen, baina Txikirri-Txikirri martxa zela... bi urtean behin egitea erabaki genuen, prestakuntza lanak ere hobeto

egiteko. Ekimena, bestalde, Jose Manuel Crespok sortutakoa da, eta beste hainbat herritarrok ekimenarekin jarraitzea pentsatu genuen, hasiera batean, berari antolaketa lanetan laguntzen hasita... Iaz, esaterako, 70 pertsona inguruk egin genuen ibilbidea; duela lau urte, bikoitzak; eta aurtan ere, eguraldia lagun badugu, behintzat, 120 lagun inguru batuko garela uste dut".

Gogorra, baina ederra

Ibilbidea honako hau izango da: Fernando Eskoriatza plaza, Bolibar, Mendiola, Gellao, Apotzaga, Marin, Zarimutz, Mazmela, Fernando Eskoriatza plaza.

San Adrianen, bestalde, hamarretakoa izango da parte

ZAZPI ELIZATEEN MARTXAN PARTE HARTZEKO EZ DAGO IZENA EMAN BEHARRIK

hartzen dutenentzat: salda, txistorra, fruta eta fruitu lehorrak, besteak beste. "Ibilbidea egitera doanak, bestalde, prestakuntza pixka bat beharrezkoa duela esango nuke nik. Hala ere, Eskoriatzako zazpi elizateak eta bide ezberdinak ezagutzeko aukera aproposa dela uste dugu. Hasiera batean, asfalto ahalik eta gutxien erabili nahiko genuke, baina leku batzuetan ezinezkoa izan dugu hala egitea".

Parte hartzeko deia herritarrei

Ez dago izena eman beharrik martxan parte hartzeko; beraz, domekan 07:00etan plazan agertzea nahikoa izango da. Hala, antolatzaileek herritarrei gonbidapena egin nahi diete, Eskoriatzako elizateak ezagutzeko aukera emanda: "Ibilbide ederra da, eta herriko txoko eta bide ezberdinak ezagutzeko aukera ematen du. Beraz, anima daitezela herritarrek zein herriko elizateak ezagutu nahi duen edonor martxan parte hartzera".



Merkatari aplikazioaren aurkezpenean batutakoak. I.B

'Merkatari' aplikazioa laster izango da erabilgarri Eskoriatzan

Merkatarien eta herritarren arteko harremana sendotzeko helburua du 'Merkatari'-k

Amaia Txintxurreta ESKORIATZA

Herritarrek eta merkataritza elkarrengana gerturatzeko eta bertako kontsumoa sustatzeko *Merkatari* aplikazio informatikoak urte eta erdi bete du. Goiena bultzagile den proiektua asmo berriekin dator orain, eta Eskoriatzara zabalduko da.

Lehenengo, merkatariekin ezarpen prozesua landuko dute, eta gero, Eskoriatza osora zabalduko dute, aplikazioa erabiliaz merkatarien eta herritarren arteko harremana sendotzeko helburuarekin. *Merkatari*-k aukera ematen du, esaterako, txat

zerbitzu baten bitartez herritarrek merkatariei mezu zuzenak bidaltzeko. Merkatariek euren promozioen berri eman eta katalogoa erakusteko aukera ere izango dute, eta herritarrek balorazioak egin ahal izango dituzte. Proiektuaren kudeatzailerak Asier Amutxastegik azpimarratu du aplikazioaren bitartez merkatariek aukera izango dutela herriko bezeroek dituzten "beharrei erantzuteko".

Hasieran, herriko zazpi komertzioekin hasiko dira lanean, eta asmoa da herriko beste komertzio batzuetara ere zabaltzea.

Beheko Errota Musika Eskolako matrikulazioa, zabalik

Aste honetan ireki dute Beheko Errota Musika Eskolako matrikulazioa. Aukera ezberdin ugari eskaintzen ditu, eta adin guztietarako musika arloko ikasketak egin daitezke, eta musika tresna desberdinak ikasi: gitarra, pianoa, biolina, perkusioa, saxofoia... Horrez gain, abesbatza eta euskal dantza eskaintza ere badago.

Hala, ekainaren 21era arte izango dute ikasleek izena emateko aukera. Horretarako, bulegoko ordutegian joan beharko da bertara; hau da, arratsaldeetan. Informazio gehiagorako, musikesko@hotmail.com helbidera idatzi edo 943 71 49 95 telefonora deitu daiteke.

Olazar Erretiratu Elkartek egun-pasa egingo du bihar

Zapatuan, egun-pasa ederra egingo dute Olazar Erretiratu Elkarteko kideek. 08:30ean irtingo dira Eskoriatzatik Olazar Erretiratu Elkarteko 104 pertsona, eta eguna Tolosako merkatura bisita eginez hasiko dute. Ondoren, Donostian txikiteoa egingo dute, eta, Aginaga sagardotegian bazkaldu ostean, Zarautzen egingo dute arratsalde-pasa.

Asteburuko hitzordu horretaz gain, urtero antolatzen duten merienda ere egingo dute ekainaren 21ean, 18:00etan, Gernika plazan. Izena emateko aukera dago dagoeneko: martitzen eta eguenetan 11:00etatik 12:30era, ekainaren 14ra arte.

Don Inorrez, Imanol Ubedaren proiektu berria

Bide Ertzean taldearen errautsetatik sortutako taldea da Don Inorrez. Egitasmo berriaren lehen lana 'Mugiro bila' da eta hamar kantuz osatuta dago. Hala, gaur, egubakoitza, kontzertua eskainiko dute Eskoriatzako Zaldibar antzokian, 22:30ean

Imanol Beloki ESKORIATZA

Joan den zapatuan ospatu zuten Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna, Eskoriatzan. Era askotako ekintzak izan zituzten, baina egitaraua moldatu egin behar izan zuten euriaren eraginez. Hala, hitzordu batzuk lekualdatu egin behar izan zituzten eta beste batzuk, berriz, bertan behera geratu ziren. Edozelan ere, elkarteko kideek egunaren balorazio positiboa egin zuten, eta giro ederra sortu zela adierazi: "Oro har, esan dezakegu pozik gaudela egunarekin. Eguraldiak lagundu ez zuenez, aurreko urteetan baino lagun gutxiago elkartu ginen. Hori bai, giro ederra sortu zela esan beharra dago".

Gaur, 22:30ean, Don Inorrez

Atxorrotx Kultura Elkartearen egun handia zapatuan izan arren, egitarauarekin jarraitu nahi izan dute, eta, horregatik, Don Inorrez taldearen kontzertua



Imanol Ubeda. DON INORREZ

antolatu dute gaurko, egubakoitza; Zaldibar antzokian izango da hori.

Emanaldia 22:30ean hasiko da, eta sarrerak bost eurotan eros daitezke emanaldiaren aurretik, leihatilan.

Bide Ertzean-en errautsetatik

2016an hartu zuten ibilbidea eteteko erabakia Bide Ertzean taldeko kideek, eta, ordutik hona, Imanol Ubeda abeslari tolosarra Don Inorrez proiektu berriaren bakarkako ibilbidea prestatzen ari da. Hala, gaur aurkeztuko du, Eskoriatzan, *Mugiro bila* izeneko lehenengo diskoa.

Hain zuzen ere, Karlos Aran- zegi bateria-jotzailea, Ruben Caballero gitarra-jotzailea eta Fernando Neira baxu-jotzailea izango ditu bidelagun ohol-tza gainean.

Kantu biziagoak

Musikari tolosarrak Cadizera jo zuen, Paco Loco ekoizle prestigiotsuaren estudioa, eta han grabatu du diskoa. Imanol Ubedaren ohiko kutsua nabaritu arren, kantuek bestelako itxura dute lan berri horretan; indie-pop kutsuko disko bizizale eta gitarrazalea eraiki du.

GORA ETA BEHERA



Arriskua San Pedroko jolas parkeko zoruan

Manuel Muñoz kiroldegia aurrean *Partxis* izenez ezaguna den jolas parkeko zorua hondatuta eta arriskutsu dagoela jakinarazi du herritar batek, sare sozialen bidez. Neska-mutikoei bihurturak edo, okerrago, hausturak izan ditzaketela adierazi du.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.



ENEKO ARRIETA

'La casa de los errores' antzerkia izango da domekan

Panico Escenico taldearen *La casa de los errores* antzerkia ikusteko aukera izango da domeka honetan, Zaldibar antzokian. Emanaldia 19:00etan hasiko da eta sarrerak lau eurotan erosi ahal izango dira, egunean bertan, leihatilan, edo alde aurretik, Manuel Muñoz kiroldegian.

Emanaldia gazteleraz izango da, eta protagonistek egindako akatsak onerako edo kalterako diren erakutsiko dute. Hanka sartu eta ez ohartarazteaz, min egiten duen akats hori hain larria ez dela ulertzea... halakoez ari tuko dira ohol-tzan. Akatsik gabeko bizitza ez litzatekeela dibertigarria izango ulerrarazita.

LEINTZ GATZAGA

23



Pasa den zapatuan egon ziren bisitariak. GATZ MUSEOA

Museoen Nazioarteko Egunaren harira, bisitak merkeago

Gaur, Museoen Nazioarteko Eguna, Gatz Museoko bisita hiru eurotan egin ahal izango da, erreserba eginda

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Nazioarteko Museoen Kontseiluak data jarri zuenetik, maiatzaren 18an Museoen Nazioarteko Eguna ospatzen da; 1977a ezkerro. Horren harira, Leintz Gatzagako Gatz Museoa eskaintza hau egin du gaurko, egubakoitza: Gatz Museora bisita, hiru eurotan.

Gatz Museoko arduradun Aitor Larrañagak adierazi duenez, ez dira bisita antolatuak egingo, aurretik erreserbarik ez badago: "Gatz Museoko bisita gidatuak zapatu eta jaiegunetan egiten ditugu, bost eurotan, baina, Mu-

seen Nazioarteko Eguna izanik, bisita hiru eurotan egiteko aukera jarri dugu. Hala ere, erreserba egitea eskatuko dugu; ez bada erreserbarik egiten, ez da bisitarik izango".

Ordutegia eta erreserba egiteko

Gatz Museora bisitak egiteko ordutegi arrunta hau da: 12.00etan (euskaraz) eta 13.00etan (gaztelaniaz). Eta bisita eskaera edo erreserba egiteko, telefonoz 943 71 47 92 telefonora deitu edo posta elektronikoki bidez reservas@gatzmuseoa.com helbidera idatzi beharko da.



GATZ MUSEOA

Ignaziotar Bidearen azokan

Pasa den asteburuan, Azpeitian egindako jardunaldi gastronomikoaren barruan, gatzagarren ordezkariak ere izan zen. Ignaziotar Bidea igarotzen den lurraldeetako jakiak eta edariak dastatzeko eta, nahi izanez gero, erosteko aukera izan zen bertan. Hala, Kataluniako, Nafarroako eta Arabako Errioxako ekoizleekin batera izan ziren gatzagarriak, gatz postuan.

Debagoieneko OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibarra 9-1B / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANBURU HORTZ KLINIKA

Bergara / Telesforo Aranzadi 1 / 943 76 02 46

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Elixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

IRIARTE IDOIA

Bergara / Artekale 1-1C / 943 76 01 65
Elgeta / Torrealdea 2 behea ezk. / 943 76 80 06

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea / 943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

ALBERDI MIREIA

Bergara / Masterreka kalea 11, behea
943 76 33 99 / 646 43 34 58

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO - FONALIA

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68

ERREUMATOLOGIA

GOROSARRI ZUBIZARRETA, XABIER DOKTOREA TROJAOLA ZULUETA, LURDES DOKTOREA

Arrasate / Zaldibar kalea, 1-1 / 943 77 00 40

HOMEOPATIA

AMAIA IRIARTE (MEDIKU HOMEOPATA)

Arrasate / Nafarroa etorbidea 11
943 08 11 00 / 695 78 19 21

KIROPRAKTIKA ZENTROA

LARRAÑAGA ANDREA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

LOGOPEDIA

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibarra 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Arebaleta / Laramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Arebaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ MEDIKU-ZENTROA

(ERRESONANTZIA MAGNETIKOA)

Arrasate / Nafarroa Etorbidea, 3 / 943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk. / 943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g / 943 76 07 84

OINEZ PODOLOGIA KLINIKA

Arebaleta / Belorrieta 10 / 943 79 16 45

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

PSIKOPEDAGOGIA ZENTROA

Arrasate / Inazio Zuloaga 10 / 943 79 48 77

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

YOGA

SAMADHI YOGA

Bergara / Masterreka 13, behea
943 76 11 38 / 639 23 57 53.

Pintxo 'historikoa' jaio da, herrian errotzeko sortua

750. urteurrena gogoratzeko ekintzen barruan, martitzenean jokatu zen, Sagarpén, pintxo lehiaketaren finala; tostoiak eta erreilenoak oinarri hartuta eta txanpinoia osagai nagusi duen Madura elkartekoek sortutako 'Tranpantojua' pintxoa izan da irabazlea

Jokin Bereziartua BERGARA

Ze osagai izan beharko luke pintxorik bergararrenak? Horixe izan da 750. urteurrenako pintxo lehiaketan parte hartu duten bederatzi elkarte gastronomikoe-tako -32 elkarte daude egun-kideek euren buruari egin behar izan dioten galderetako bat. Erantzuna martitzenean eman zitzaion, Sagarpén jokaturako final handian; Madura, Zaspí eta Sagarpe aritu ziren lehian.

Sebas Agirrek, Jose Mari de Borjak eta Xabier Agirrek osatu zuten epaimahaia; zaporea, originaltasuna, presentzia eta Bergararekin lotura zuzena duen osagaia izatea baloratu zuten -egiteko erraza izatearekin batera-, eta, irizpide horien arabera, Zaspíren *Mari* pintxoak 24,5 puntu jaso zituen, Sagarpénen *Pintxoko*-k 26,5 puntu eta irabazle izan zen Maduraren *Tranpantojua*-k 27 puntu. Lehia borrokatua izan zen, eta, hiru epaimahaikideek onartu zuten, "zaila" izan zen onena aukeratzeko: "Hirurek merezi zuten, baina irabazle bakarria behar genuen...", esan zuen De Borjak.

Tabernariak hartuko dute lekukoa 50. urteurrena ospatzen diharduen Madura elkarteari dagokio orain pintxo *historikoa* herrian



Hiru elkarte finalistetako eta antolakuntzako kideak, Sagarpén. JOKIN BEREZIARTUA



Pintxo irabazlea: *Tranpantojua*. J.B.

zabaltzea. Izan ere, Udalaren eta 750. urteurrenako ekintzen antolakuntzan diharduten herritarren asmoa da uztailan zehar tabernariei irakastea zein den *Tranpantojua* egiteko pro-

zesua. "Egiteko oso erraza den pintxoa da, tabernariak erraz gerta dezaten", dio Madura elkarteak sukaldari arduradun Jonbi Bengoak. Lehiaketa berezi horren antolakuntzan aritu da Iñaki Arregi *Bizkai*, eta uste du halako ekimenek elkar-teak eurak eta herria bizirik mantentzen dutela: "Gustura egiten den lana da, eta orain, tabernariak hartu beharko dute lekukoa. Horregatik, egiten erraza den pintxoa, merkea eta Bergararekin lotura berezi bat duena egitea proposatu genien elkar-teei".



IMANOL SORIANO

Ereindajan-en topagunea, martxan

Astelehena ezker martxan da Ereindajan-en topagunea. "Bertakoa, osasuntsua, justua eta kooperatiboa" den proiektuak 160 bazkide ditu eta honako ordutegi honetan egongo da zabalik *Zapaterikua* zena: astelehenetik egubakoitzera, 10:00etatik 13:00etara eta 16:30etik 20:00etara; zapatuetan, 09:00etatik 13:30era. Bazkide izan barik ere, edonork eros dezake bertan.

GORA ETA BEHERA



JOKIN BEREZIARTUA

Zuloa Labegaraietako edukiontzien ondoan

Herritar batek salatu du "zulo erraldoia" dagoela Labegaraieta auzoko edukiontzi-gune baten ondoan. Zuloa gero eta handiagoa dela dio, eta dagokionari eskatu dio "lehenbailehen" konpontzeko.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.



AINHOA BENGOA MADURA ELKARTEKO PRESIDENTEA

"Tostoiak eta erreilenoak *tranpeatu* ditugu pintxo egiteko. Oso pozik gaude 750. urteurrenako pintxo gurea delako; are pozikago, gure elkar-teak 50 urte bete ditu eta".



SEBAS AGIRRE EPAIMAHAIKIDEA

"Zaporea, originaltasuna, presentzia eta Bergararekin lotura zuen osagaia izatea baloratu dugu, ordena horretan. Goi mailako pintxoak izan dira guztiak".



IÑAKI ARREGI 'BIZKAI' ANTOLAKUNTZAKO KIDEA

"Udalak elkar-teongan jarri duen konfiantza pozgarria da. Oso gustura eta harro gaude ekintzak izan duen erantzunarekin. Herrian baloratu egingo da lan hau".

2019an jarriko dute martxan herritarren arreta zerbitzua

Herritarrek tramite guztiak leku fisiko berean egiteko proiektua "aurrera doa", Udal Gobernuaren arabera. Asmoa da zerbitzu berri hori 2019an martxan egotea, eta orain, espazio fisikoa aukeratzeko eta diseinatzea eta hango langileen inguruko erabakiak hartzea falta da. Maiatzaren 28ko osoko bilkuran landuko dute gaia.

OHARRAK

Pentsiodunak

Maiatzaren 21ean ez dute elkarretaratzerik egingo, jaiak direla eta. Maiatzaren 26an manifestazioa egingo dute Donostian; autobusa hartzeko, San Joxepea jo edo Asanbladako kideei esan.

Zergak: ibilgailuak

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga ordaintzeko azken eguna hilaren 26a da (ordainagiriak).

Egunerokotasuna iraultzeko egunak

Jai batzordeak "esfortzu berezia" egin du aurten bailarako lehen festen antolaketa "ahalik eta parte hartzaileena" izan zedin, eta prebentzioaren zein berdintasunaren arloetan jarri dute fokua, bereziki; Pentekosteen aurrekontu osoa 130.000 euro da

Jokin Bereziartua BERGARA

Gaur Miguel Altuna Lanbide Heziketakoek suzuria bota, Bitorianatxo (20:00) jaitsi eta martitzenean (22:00) *zerura* igo artean, ez da aspertzeko astirik izango Pentekosteetan. Jai batzordeak "esfortzu berezia" egin du aurten jaien antolaketa "ahalik eta parte hartzaileena" izan zedin, jaiak ere hala izan daitezen. "Eragile askorekin lan-kidetzan, egitaraua borobila osatu dugu, adin eta gustu oso ezberdinak asetzeko eta bergararren parte-hartzea areagotzeko", esan du Elena Lete alkateak.

'Edan? Hartu? Hausnartu!'

Partaidetza indartzen saiatzeaz gainera, prebentzioan eta berdintasunean jarri dute fokua aurten. *Edan? Hartu? Hausnartu!* kanpaina abiatu dute Lankurerekin elkarlanean, "oso gaur egungoa" den bertsoa txertatuz egitarauan: *Parranda egitean dantzan zein hitzezko, izan ditzadan zenbait une umorezko, marra txuri, pilula, kalimotxo fresko... Aukera zaituztet ez derigorrezko!* Horrez gain, ikas-tetxeekin eta osasun zentroarekin

batera, gutuna bidali zaie gurasoei, kontsumo eta ohitura arduratsuak bultzatzeko. Bestalde, berdintasunaren arloan –eta hori jaietako egitarauan espresuki dago jasota– "urrats bat harago" joan gura izan dute. Emakumeei eta gizonei zuzendutako aholkuak txertatu dituzte, edozein arazoren aurrean, "isileko zein ageriko" izan, nola jokatu jakiteko.

Bergararren presentzia oholztan

Jai batzordeak azpimarratu nahi izan du, besteak beste, zuzeneko ikuskizunetan bergararrek presentzia izango dutela: Nomadak, Garilak 26, Edu Muruamendiarazek zuzentzen duen Aukeran dantza taldea, DJ Oihan Vega... "Nabarmentzeko da Bergarako Low Cost de Luxe taldearena; udaletxera etorri ziren eta jai batzordeak kontratatzea erabaki zuen", diote. Gainera, Gatibu ekartzea "foro ezberdinetan" herritarrek eskatu duten zer bait izan da; zapatuan joko dute, San Martin plazan (22:30).

Barraken prezioa mantentzea

Ez daude jaiak ulertzerik Matxiategiko barrakak barik, eta

horien prezioa izan ohi da gurasoen kezketako bat. Bada, 2018an eta 2019an barraken prezioak ez dira igoko; 2008a ezker Udalak ez du lurzoruagatik kobratzen, prezioak izozteko asmoz. Bidaia- ren prezioa bi euro da eta atrakzio berezietan, bi euro eta erdi; bi horietan hiru minutu iraun beharko du bidaia, gutxienez. Abonuen bidez merkeago bidaia- tzeko aukera egongo da, eta prezio murriztuen egunak izango dira hilaren 21 goiza eta hilaren 23a egun osoan –euro bat eta euro eta erdi, hurrenez hurren–.

Xaxauren Txoko Morea


Bideberriko txosnagunerako antolatutako egitarauarekin "pozik" dago Xaxau: "Gustu eta adin ezberdinak asetzen saiatzeaz gain, agertoki gainera eskaintza ahalik eta parekideena egin dugu, agertokia emakumeena ere badelako". Gainera, Martxanterekin batera, Bideberrikoa "eraso matxistarik gabeko gune segurua eta eroso" izan dadin Txoko Morea jarriko dute. Beste nobedade bat da bertako jakien eskaintza "ohi baino zabalagoa" izango dela.

Jaien antolaketan jardun duten eragileetako batzuen gomendioak



MAITE AGIRRE JAI ETA BERDINTASUN ZINEGOTZIA

"Jaiak antolatzeko prozesu berri bati ekin diogu, sei bilera eginda, eta eragileei eskerrak eman gura dizkiet. Aurten lehen aldiz harreman parekide eta askeen aldeko gomendioak atera ditugu eta prebentzioaren arloan *Edan, hartu? Hausnartu!* izeneko kanpaina abiatu dugu".



IOSU AGIRRE XAXAU JAI HERRIKOIEN KONPARTSA

"Martxanterekin batera Txoko Morea jarriko dugu txosnetan, erasorik balego nola erantzun jakingo duen jendearekin. Erraz ikusteko bereizgarri more bat izango dute. Era berean, jatekoa guk emango dugu aurten; aukera zabalagoa izango da, betiere, bertako jakiekin".



IÑIGO ALMORTZA BERGARAKO ZEZENAK

"Hurrengo urtean 25. aldiz muntatuko dugu zezen-plaza eta zer bait berezia egingo dugu. Ondoen baloratutako ekintzen artean daude zezenak, errektadoreak eta kuadrillen arteko jolasak, eta oso gustura gaude horrekin. Iaz 7.800 bat lagun pasatu ziren zezen-plazatik".



REYES AZKOITIA BERGARAKO PILOTA SAILA

"Pazko astelehenez jokatuko diren Bergara Hiria pilota txapelketan emakumezkoen finalak ere izango dira aurten, lehen aldiz. Frontoira etortzera animatzen zaituztet; batez ere, nesken partidua ikustera. Lehenago etorri eta gozatu nesken finalez!".



JON ANDER GARITANO ERRALDOI TALDEA

"Zapatua erraldioen bueltan ibiltzeko eguna izango da: puzgarriak, dantzak, kalejirak... Iruñeko, Artikako, Berriozarko, Ondarroako eta aurten Reusko [Katalunia] taldea ekartzea lortu dugu. 40 bat erraldoi eta 200 partaide izango gara, guztira".



ROBERTO KAREAGA SAN JOXEPE ELKARTEA

"Aurtengo jaietarako antolatutako ekintzen artean nabarmendu behar duguna da martitzenean bazkaria izango dugula lehen aldiz, eta ondoren dantzaldia izango dugu. San Joxepetik dei egiten dugu gainerako ekintzetan ere parte hartzera".

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93



ZARE
FRUTA-DENDA

- Irizar 3
- Matxiategi 4

BERGARA
Tel.: 943 76 38 83

Ondo pasau jaixak!

Pentekosteak 2018: Egitaraua

EGUBAKOITZA 18

15:00 IKASLE BAZKARIA Seminarioko karpan.

17:00 TTEK ELEKTRO-TXARANGA kaleetan zehar.

19:00 Matxiategin BARRAKAK IREKITZEA.

20:00 Jaiei hasiera emateko TXUPINAZOA Miguel Altuna Lanbide Heziketaren eskutik eta BITORIANATXOREN JAITSIERA, San Martin plazan. Segidan, BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KALEJIRA, hiriguneko kaleetan San Martin plazatik irtenda.

20:30 Bideberrin TXOSNAK IREKITZEA (Bertsu eskola).

20:30 PARRILLADA auzolanean Seminarioko karpan Oxirondo Aisialdi Guneko gurasoek prestatuta, haur eta gurasoentzat. Tiketak salgai 6 eurotan Azokako Izotz postuan.

21:00 KONTZERTUA Bideberriko txosnagunean: Turtukiña VJ.

22:00 Kili Kili Punk HAUR BERBENA, Seminarioko karpan.

22:30 Nomadak eta Garilak 26 taldeen KONTZERTUA San Martin plazan.

23:00 KONTZERTUAK Bideberriko txosnagunean: Sofa eta Anita Parker.

02:00 DJak txosnagunean: Aitor_MU eta Alvva.

ZAPATUA 19

09:00 GAUPASEROEN ARGAZKIA. Ondoren, IZENBAREKUAK txaranga eguerdi arte. Bideberriko txosnagunean.

10:00 DIANA. Bolutik, Bergarako Txistulari Banda; Labegaraletatik, Bergarako trikitilariak; Oxirondotik, Elgoibarko dultzaineroak. Ondoren, herriko plazan elkartuko dira guztiak eta Mizpirualdera egingo dute bisita.

11:00 ERRALDOIEN GUNEA, San Martin plazan: erraldioen erakusketa, erraldoiak egiteko tailerra, gomazko erraldioen erakusketa, palomita-makina, umeek

margotzeko erraldioen liburuxka, xaboi-ponpa erraldoiak, umeentzat puzgarria. Antolatzailea: Bergarako Erraldoi Taldea.

11:00 Herriko Elkarteen arteko BAKAILAO LEHIAKETA San Martin plazan.

11:30 Pentekosteetara ONGIETORRIA EMATEKO EKITALDIA. Iazko jaietatik hona, jaio diren bergarrei, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Ondoren, argazki bateratua udaletxearen kanpoaldean, San Pedro kalean.

11:30 Espoioitik KALEJIRA Artikako, Berriozarko, Ondarroako eta Reusko erraldoi konpartsekin.

12:00 ERREKORTADOREEN ESKOLA IBILTARIA zezen-plazan. Sarrera 2 euro.

13:00 ERRALDOIEN DANTZAK, San Martin plazan. Ondoren, ongietorria erraldoi taldeko ordezkariak, udaletxeko osoko bilkuren aretoan.

13:30 BAKAILAO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA, San Martin plazan.

14:30 Erraldoi konpartsen BAZKARIA Seminarioko patioan.

15:00 ELKARTASUN BAZKARIA Bideberriko txosnagunean.

17:00 'FREESTYLE' ERAKUSTALDIA: *dirt jump*, Trialsin eta *flatland*, Mariaren Lagundiko jolas-tokian.

17:30 BURUHANDI ETA KILIKIEN IRTEERA San Martin plazatik.

18:00 Bergarako, Artikako, Berriozarko, Ondarroako eta Reusko ERRALDOI KONPARTSEN KALEJIRA Bergarako kaleetan. Ibilbidea: San Martin plaza, Bidekurutzeta, Ramon Maria Lili, Ibargarai, Irizar, Kruz Gallastegi, Bideberri, Fraiskozuri, Herrilagunak, Domingo Irala, Barrenkalea, San Martin plaza.

18:30 ERREKORTADORE GAZTETXOEN ERAKUSTALDIA (8-15 urte). Sarrera: 3 euro.

19:30 TTIPATIKA Bideberriko txosnagunean.

20:30 LOW COST DELUXE eta KOBRAZULoren kontzertuak Irizarren.

22:30 GATIBU taldearen kontzertua San Martin plazan.

23:30 KONTZERTUAK Bideberriko txosnagunean: Nogen eta Atom Rhumba.

00:00-03:00 TESTING Irala kalean.

02:00 DJ AIFIL Bideberriko txosnagunean.

DOMEKA 20

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

11:00 MEZA NAGUSIA San Pedro parrokian.

11:00 Umeentzat GOITIBEHERA zirkuitua Herrilagunak kalean. Antolatzailea: Inertzia kirol elkarteak.

11:30 37. HAUR ETA GAZTEEN SIMON ARRIETA PLASTIKA SARIKETA, San Martin plazan. Laguntzailea: BEART elkarteak.

12:30 BERGARAKO MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA Espoioian. Egitaraua: *Campo de rosas* (pasodoblea), Miguel Gonzalez Bastidarena; *Egmont* (obertura), L. van Beethoven-ena; *Arizona* (indiar folk abestia), F. Cesarini-rena; *Call of the valley*, J. de Haan-ena; *Euskal Herria kantuz*, Alfredo Gonzalez Chirlaquerena; *Solo bossa* (fliskorno eta bandarentzat, Mikel Maniega bakarlarri dela), O. M. Schwarz-ena; *Bergarako ereserkia*, Alfredo Gonzalez Chirlaquerena. Zuzendaria: Alfredo Gonzalez Chirlaque.

13:00 Haur eta gazteen Simon Arrieta plastika lehiaketako SARI BANAKETA, San Martin plazan.

14:00 JAU/KANAU BAZKARIA Bideberriko txosnagunean: nork berea eroanda.

15:30 GOITIBEHERA TXAPELKETA San Martzialgo bidean. Antolatzailea: Inertzia kirol elkarteak.

16:00 SORMEN TAILERRA: Makedo. Bideberriko txosnagunean.

17:00-20:00 EGURREZKO JOKO ERRALDOIAR Arrizuriaga azpiko jolas-parkean.

17:30 IKUSKIZUN PARTE-HARTZAILEA: Munduan berbera. Bideberriko txosnagunean.

18:30 GAZTEEN ERREKORTADORE TXAPELKETA, hainbat modalitatetan, zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

19:30 KONTZERTUA Bideberriko txosnagunean: Audience.

20:00 GIMNASIA ERRITMIKO ERAKUSTALDIA, San Martin plazan. Antolatzailea: Ariznoa Gimnasia Erritmikako Taldea.

21:00 LOKATZA AFAIXA Bideberriko txosnagunean.

22:00 AUKERAN dantza taldearen *Aukeran 20 urte* DANTZA EMANALDIA, Udal Pilotalekuan, zuzeneko musikarekin.

22:30 KORTO LEHIAKETAKO EMANALDIA, Bideberriko txosnagunean.

ASTELEHENA 21

KUADRILLEN EGUNA

11:30 KUADRILLEN ARTEKO HERRI KIROLEN TXAPELKETA, zezen-plazan, Zaldibiako trikitilariak eta Incansables txarangak animatuta.

12:30 DANTZALDIA La Nueva Talisman Orkestrarekin Espoioian.

14:30 HERRI BAZKARIA San Martin plazan.

17:45 I. EMAKUMEEN BERGARA HIRIA pilota txapelketako finalak. Ondoren, Gizonezkoen BERGARA HIRIA TXAPELKETAKO FINALAK Udal Pilotalekuan. Antolatzailea: BKEko pilota saila.

18:30 GAZTETXOENTZAKO ZEZENTXOAK ETA BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 3 euro.

19:00 Kantu Kolore taldearekin *Far West* HAURRENTZAKO ERROMERIA, San Martin plazan.

20:00 ERROMERIA Bideberriko txosnagunean: Laketa taldea.

23:00 CAMP DANTZALDIA La Nueva Talisman Orkestrarekin Espoioian.

23:00 Ilargi Beltza taldearekin ERROMERIA, San Martin plazan.

23:00 KONTZERTUAK Bideberriko txosnagunean: Liher, Bad Sound eta Sista Kata.



MARTITZENA 22

UMEEN ETA HELDUEN EGUNA

09:00 BIGANTXAK zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

11:00-14:00 HAURRENTZAKO eta GAZTEENTZAKO JOLAS-PARKEA Ipintza II-ko patioan. Puzgarriak, *jumping-a*, *wipe out-a* -egur zoroak-, giza futbolina, *super jumping-a*...

12:00 IDI-PROBEN ERAKUSTALDIA Bergarako abeltzainen eskutik, San Martin plazan.

13:00 MARIATXIAK Iralan: Los Tenampas.

14:30 BAZKARIA eta DANTZALDIA, San Joxepe elkarteak.

16:30 Bergarako BOLO, TOKA ETA IGEL JOKOEN TXAPELKETA San Joxepen. Antolatzailea: San Joxepe Elkartea.

17:00-20:00 HAURRENTZAKO JOLAS-PARKEA, Ipintza II-ko patioan.

17:00 PILOTA PARTIDA PROFESIONALAK Bergarako Udal Pilotalekuan.

18:30 ERREKORTADORE ESKOLA IBILTARIA ZEZENTXOEN zezen-plazan. Sarrera: 2 euro.

19:00 KONTZERTUA: Anje Duhalde, Bideberriko txosnagunean.

20:00-22:00 DJ FESTA, Oihan Vegarekin, San Martin plazan.

22:00 BITORIANATXOREN IGOERA San Martin plazan.

00:00-AK ARTE DJ FESTA, Oihan Vegarekin, San Martin plazan.

PENTEKOSTE JAIK 2018 BERGARA

Maiatzaren 18tik 22ra



Ondo pasau jaixetan!

ETXAGI • IRISH PUB GALWAYS • BULE • EUXEBIO II • USOA • POL POL

"Entrenatzaile izan gura dudala oso argi daukat"

BEÑAT LABAIEN LEEDS UNITED TALDEKO ENTRENATZAILE LAGUNTZAILEA

29 urte ditu Beñat Labaien bergararrak, eta gaur egun, Ingalaterrako Leeds United taldean entrenatzaile laguntzaile lanetan dihardu; beste bi urterako kontratua du han

Eneko Azurmendi BERGARA

17 urte zituela irten zen Bergararik, eta, hara eta hona ibili ostean, Leeds (Ingalaterra) hirian egin du bere tokia. Etorkizunean Lehen Mailan entrenatzaile izatea du helburu.

Zer moduz joan da bukatu berri den denboraldia Leeds Unitedentzat?

Oso ondo hasi ginen eta urrira arte lehenengo postuan egon ginen. Gero, emaitzak okertzen joan ziren eta entrenatzailea aldatu genuen; azkenean, sailkapenaren erdi inguruan bukatu dugu denboraldia.

Urtebete daramazu han. Zer moduzko esperientzia ari da izaten?

Luxua da 29 urterekin Ingalaterra joatea bigarren mailako talde batera. Jende askok amesten du hori eta zorte bat da hau bizi ahal izatea. Gure futbol zelaian partidu bakoitzean 30.000 pertsona batzen dira, eta hori bizitzea esperientzia bikaina da. **Gaur egun, bigarren mailan dago Leeds United, baina Ingalaterrako talde klasikoetako bat da, ezta?**

Noski. Ingalaterrako talde handienetako bat da eta Europa mailan ere bere izena du. Orain, bigarren mailan gaude, baina espero dut laster Premier Leagueira igotzea.

Zer moduzko hiria da Leeds?

Londresen ostean, Ingalaterrako bizi-kalitate maila handiena dago Leedsen, Manchesterrekin batera. Txikia da, Donostia baino pixka bat handiagoa. Hiruzpalau unibertsitate ditu, jende gazte asko dago eta giroa ederra da. Gainera, oso polita da.

Desberdintasun handia dago hango eta hemengo futbolaren artean?

Oso desberdina da. Niri, zaila egin zait egokitzea. Epaileen kasuan, oso bestelakoa da epaitzeko modua. Han asko uzten dute jokatzeko, eta hemen falta argia dena han ez da ezer. Zaleei dagokienez, ezberdin ulertzen dute futbola. Etxean jokatu genuen azken partiduan, adibidez,



Beñat Labaien, Leeds Unitedeko kamisetarekin, Agorrosingo harmailetan. E.A.

"GURE FUTBOL ZELAIAN 30.000 ZALE BATZEN DIRA PARTIDU BAKOITZEAN; HORI BIZITZEA EDERRA DA"

35.000 pertsona zeuden harmailetan, eta 13. postuan geunden, ez genuen ezer jokoan.

17 urterekin Bergararik irten zinen, eta gaur egun oraindik ere kanpoan zabilta. Nondik nora ibili zara?

Amets bat neukan txikitatik, eta horren bila irten nintzen, Madrilera. Entrenatzaile izateko ikasi nuen, eta 11 urtez egon nintzen Madrilan. Ordutik, Atletico Madrilan, Real Madrilan, Fuenlabradan eta Elxen egon naiz, eta hortik Leedsera.

Hala ere, Bergaran gertatzen denaren berri edukitzea gustuko duzu. Hala da. Internet bidez egunero irakurtzen dut hemengo prentsa, eta Bergarako futbol taldea gertutik jarraitzen dut, lagunak ditut-eta bertan.

Aurrera begira, ze proiektu duzu esku artean?

Leeds taldean beste bi urterako kontratua daukat eta han jarrai-

tzeko asmoa dut. Esperientzia handia daukat, baina gaztea naiz oraindik, eta argi dut entrenatzaile izan gura dudala. Fernando Morientesekin lau urte egin ditut eta elkar oso ondo ulertzen dugu. Beraz, ahal bada, harekin aurrera egitea gustatuko litzaidake; bestela, bakarrik. Gertuko adibide bat dugu Asier Garitano, ikusi besterik ez dago egin duen ibilbide bikaina.

Realera joango dela uste duzu?

Hori diote komunikabide guztiek, eta, egia esan, asko gustatuko litzaidake. Ikusiko dugu.



BERGARA KE

Neskek kopa irabazi dute

Bergara Kirol Elkartearen futbol saileko kadete mailako neskek kopa irabazi dute, Aretxabaletan husna berdindu ostean –zortzi taldeko ligaxka izan da–. Zuzendaritza oso pozik dago lorpenarekin: "Oso maila ona eman dute eta merezimendu osoz dira txapeldunak". Bestalde, infantil mailako neskek ere kopa irabazteko aukera izango dute bihar, 10:30ean, Azkoitian.

Saskibaloian, infantil mailako mutilek, ezin lauko finala irabazi

Saskibaloian, gizonezkoen infantil txiki mailako lauko finala irabazteko zorian egon zen Bergara, baina bigarren postuarekin konformatu behar izan zuen, azkenean. Partidu osoan aurretik joan ostean, laugarren laurdenean egin zien ihes partiduak bergararre, eta, azkenean, bi punturengatik galdu zuten Goierri taldearen aurka (43-45). Hala ere, saskibaloia saila gustura azaldu da taldeak egin duen "denboraldi bikainarekin", eta jokalariek zoriondu dituzte mailagatik.

Bestalde, saskibaloia sailak antolatzen duen hiruko txapelketaren XI. aldia ekainaren 16an eta 17an jokatu dute aurten.

Bergara Hiria txapelketako finalak, astelehenean

Maiatzaren 21ean, astelehena, jokatu dituzte Bergara Hiria pilota txapelketako finalak. 17:45ean hasiko da jaialdia, Bergarako Udal Pilotalekuan.

Azpimarratzekoa da aurten, lehenengoz, emakumeek hartu dutela parte. Hain zuzen ere, emakumezkoen finalak jokatu dituzte lehenik, eta ondoren, gizonezkoenak. Hauek izango dira finalistak: promes mailan, Galeano-Agirre/Gaminde-Romero; eta nagusietan, Larrarte-Mendizabal/Arrieta-Etxaniz.

Gizonezkoetan, berriz, hauek dira finalistak: promes mailan, Osa-Elizegi/Murua-Gaskue; eta nagusietan, Lerena-Otadui/Salaberria-Uriondo.



Aitor Zabaleta
Tel.: 606 58 18 10
www.txipi.com

TXIPI

LEIHO ISOLATZAILEAK

Amillaga 5, behea - BERGARA

Kabutzia

ARRANDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62



Jose Agustin Gurrutxaga bergararrak bi sari irabazi ditu; zuri-beltzean sari nagusia, goiko *Mujeres* lanari esker. J.A. GURRUTXAGA

Argazki gehiago aurten; kalitateari eutsiz, betiere

Bergara Hiria Argazki Lehiaketaren 34. edizioan iaz baino 14 argazki gehiago jaso dira eta bergararrak protagonismo berezia izan dute aurten ere; 40 argazki onenekin erakusketa jarriko dute gaur Aroztegin ekainaren 3ra arte, eta sariak maiatzaren 25ean banatuko dira

Jokin Bereziartua BERGARA

Euskal Herri osoko argazkilariak erakartzen dituen Bergara Hiria Argazki Lehiaketako irabazleen berri eman du Udalak. 34. edizio honetara 171 aurkeztu dira; 78 zuri beltzean eta 93 koloretan. Zuri-beltzekoan 23 pertsonak hartu dute parte, eta horietatik bederatzi izan dira bergararrak. Koloretakoan, berriz, 27 argazkilari izan dira eta horietatik 14 izan dira bergararrak.

Lan onenak Aroztegin erakutsiko ditu Udalak gaur hasi eta ekainaren 3ra bitartean; zuri-beltzeko eta koloreko 20na erretratu aukeratu dira eta 40 horiek izango dira ikusgai. Sariak maiatzaren 25ean banatuko dira Aroztegin bertan, 20:00etan.

Zuri-beltzeko onena, Gurrutxagak
Zuri-beltzeko sari nagusia Jose Agustin Gurrutxaga bergararrak irabazi du *Mujeres* argazkiarekin -210 euro eta garaikurra-; bigarren saria Donostiako Gorka Elarreren *El pianista* argazkiak

eskuratu du -180 euro eta garaikurra-; hirugarrena, Irungo Oskar Gaskonen *San Juan* argazkiak -150 euro eta garaikurra-; eta herritarrek Aritz Ugarte bergararraren *Begira* aukeratu dute -120 euro eta garaikurra-.

Koloretako argazkietan, berriz, sari nagusia Beasaingo Manu Barreireoren *Danae* argazkiaren-tzat izan da -210 euro eta garai-

kurra-; bigarren saria, Urretxuko Miguel Angel Perezen *Mushing*-entzat -180 euro eta garaikurra-; hirugarren saria, Jose Agustin Gurrutxaga bergararraren *Margotzen hondartza*-entzat -150 euro eta garai-kurra-; eta herriko saria eskuratu du Juan Jose Lopez Azurmendiren *Urizar* argazkiak -120 euro eta garaikurra-.



IMANOL SORIANO

Bedelkar, herritarrendandik gertu

Herritarrei eskerrak emateko antolatu zuen Bedelkarrek 25. urteurreneko festa, eta hainbat herritar gerturatu ziren Espoloiara. Agertokia arkupeetan jarri behar izan zuten arren, giro berorik ez zen falta izan: "Izugarria izan zen. Eskerrik asko hurbildu zineten guztioi!". 300 euroko abonua irabazlea izan da Maria Isabel Urtaza: "Zorionak eta eskerrik asko parte hartzaile guztiei!".

Izen-ematea zabalik dago musika taldeen bigarren lehiaketarako

Bergarako Musika Eskolak bigarren urtez antolatu du musika taldeen lehiaketa. Lehiaketa ekainaren 24an izango da, Seminarioko karpan (21:45). Oinarrien artean jaso dute antolatzaileek musika talde bakoitzeko bi partaide musika eskolako ikasleak izan beharko direla eta talde bakoitzak gehieenez hamar minutu jotzeko aukera izango duela. Lehen saria 200 eurokoa izango da eta bigarrena, berriz, 100 eurokoa.

Izena emateko azken eguna izango da maiatzaren 29a; eskolako bulegoan, 943 76 57 80 telefono zenbakian edo idezkaritza@bme.e.telefonica.net helbidean eman behar da izena.

Hitzaldia eta ospakizun eguna, glutenik gabeko mundua aldarrikatzeko

Bergarako Zeliako Taldeak antolatuta, "glutenik gabeko dieta osasungarri eta orekatua" aldarrikatzeko hitzaldia egongo da hilaren 23an Irizar jauregian (18:00). Julia Guijarro izango da hizlaria eta saioa gaztelaniaz emango du; antolatzaileek herriar oro gonbidatu gura dute "oso interesgarria" izango den saiora. Horrez gain, maiatzaren 25ean Zeliakoen Jaia egingo dute San Martin plazan, 17:00etatik 20:30era. Antolatzaileek aurreratu dutenez, glutenik gabeko pintxo-potea, postre lehiaketa, umeendako askari handia, puzgarriak, erraldoiak eta Artotxo maskotaren agerraldia izango dituzte, besteak beste.

Ondo pasau jaixetan!



LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Masterreka, 10 · BERGARA
Tel.: 943 76 16 63

Santa Ana 11 · ELGOIBAR
Tel.: 943 74 10 11

Ondo pasau jaxak!



Iturgintza - Berokuntza

Laskurain

- Energia berriztagarriak (biomasa, aerotermia, solarra...)
- Kalefakzioak (lur-radiantea, radiadoreak...)
- Minusbaliarako adaptazioak
- Altzariak, manparak, osagarriak, iturriak...

Barrenkaldea 44 • Tel.: 943 76 24 89 • 610 20 54 99
fontanerialaskurain@gmail.com

Emakumeen lana omenduko da desafioan

Bihar, zapatua, ospatuko dute San Isidro eguna antzuolarrek. Aurten ere, behi-jezte apustua egingo da, baina berrikuntza batekin, emakumeak ariko dira-eta behiak jezten. Helburua da urteetan emakumeen ardura izan den lana bistaratzea

Maidar Arregi ANTZUOLA

Indartuta dator aurtengo San Isidro jaia. Bihar, zapatua, urtero legez, ganadu feria eta barazki zein artisau postuak egongo dira Kalebarren eta Herriko Plaza inguruan. Baina aurten, Aiherra-Antzuola senidetze eguna ere ospatuko dute herritarrek. Hala, Antzuolako festarik kutunenetakoa bertatik bertara eza-gutzeko aukera izango dute aihertarrek. Goizeko hamaiketan, harrera egingo diete Antzuolako udal ordezkariak eta antzuolarrek.

Egitarau zabala

09:00etatik 13:00etara bitartean zabalduko da San Isidro azoka: ganadu feria, herriko artisauak, *Ez dot moztuko bizarra* taldearen postua, bidezko merkataritzako produktuak –Anelkarren esku-tik– eta bestelako artisauen salmenta postuak izango dira.

Hamaiketan egingo zaie aihertarrei ongiatorria. Eta ordu berean, kukumarro edo txorimalo lehiaketara aurkeztu diren hiru kategorietako lanak ikusgai jarriko dituzte plazako iturri inguruan. Aurkezten den bakoitza arduratuko da kukumarroa ipintzeaz eta 13:00etan sari banaketa egingo da Herriko Plazan. Trekutz elkartean salda bana-



lazo San Isidroko ganadu feria. GOIENA

AIHERTARREI ONGIATORRIA EGINGO DIETE ANTZUOLARREK GOIZEKO HAMAIKETAN

tuko dute, 11:00etan. 12:00etan, txistularien eta trikitilarien kalejirak giroa alaituko du. 12:30ean, berriz, behi-jezte desafioa egingo da Zurrategi plazan. Aurten emakumeak izango dira protagonistak azpimarratu

gura izan dute. Izan ere, emakumeek izan dute baserrian behia jezteko ardura hori. Hala, bi bikotek parte hartuko dute desafioan: Jaime eta Garazi Larrea antzuolarrek eta Enrike Pagoaga eta Eli Garai arrasatearrek. Hauxe da egin beharko duten lana: bi behi jetzi bost minutuko bi txandatan eta behiak aldatuz. "Baserri munduan lan hau egiteko ardura zutenak emakumeak izan dira. Horregatik, hau plazaratu eta erakutsi gura dugu", argitu du Garazi Larreak.

Gorlako errekorra gainditu gura duenak izena eman dezake

Jose Inazio Garitano atletak Gorlako joan-etorrian marka jarri zuenetik 55 urte beteko dira ekainean

Maidar Arregi ANTZUOLA

Gorlako errekorra gainditzen saiatu nahi duten antzuolarrek edo, beste barik, korrika egin nahi duten herritarrek izena eman dezakete udaletxean bertan edo 943 76 62 46 telefonora deituz.

Izan ere, aurten 55 urte beteko dira Jose Inazio Garitanok errekor bitxia ezarri zuela korrika eginez: Antzuolako plazatik irten, Gorlako sozietateko horma ukitu eta buelta plazara. Ibilbidea, joan-etorria, 34 minutu eta 46 segundoan osatu zuen. Bi gaztetaldere arteko apustua izan zen hura, eta erronka ibilbidea 45 minutu baino gutxiagoan egitea zen.

Emakume zein gizon

"Argi dagoenez, helburua oso atzean utzi zuen Garitanok. Ezarritako marka ez da makala, eta

egin zenetik inor ez da saiatu hura gainditzen. Orain, baina, Jose Inazio Garitano bera ari da gazteria animatzen ea inor baden ezarritako errekorra gainditzeko gauza. Izan ere, une honetan Antzuolan badira berriro maila oneko korrikalariak. Duela 55 urte apustua galdu zuen gazte-taldeak Jose Inazio Garitanoren kuadrillari txuleta-jana ordaindu behar izan zion; Garitanok, orain, antzerako saria egingo dio errekorra gainditzeko duenari: bazkaria bere kontu", diote antolatzaileek.

Saiakera antzuolarrentzat –herrian jaioak edo bizi direnak– erreserbatua dago, eta emakumezkoen errekorra ezartzea ere libre dela azpimarratu dute. Errekorra gainditzeko asmorik ez duen edozein antzuolarrek ere izango du parte hartzeko aukera.

Mendilibarrek eta Labakak solasaldia eskainiko dute

Antzuolako Kirol Elkartek 25 urte beteko ditu udazkenean –2018-2019 denboraldia–. Hala, hainbat ekintza egingo dituela iragarri du AKEK. Lehena Jose Luis Mendilibarrek –Eibarko entrenatzailea– eta Mikel Labakak –Realeko bigarren entrenatzailea– emango duten solasaldia izango da –maiatzaren 23an, Torresoroa aretoan, 18:30ean–.

Odola emateko aukera egongo da eguaztenean

Maiatzaren 23an, Gipuzkoako Odol Emaileen Elkartea Antzuolan izango da. Herritarrek odola emateko aukera izango dute Orlanen, arratsaldeko bost eta erdietatik aurrera. Begoña Letek, elkarteko kideak, dei berezia egin gura die herritarrei; bereziki, gazteei. Izan ere, odola ematen dutenen artean gazteen beharra ere badagoela dio.

Bertso jaialdiaz gozatzeko aukera gaur Torresoroan

Igor Elortza, Agin Laburu, Iker Zubeldia, Miren Artetxe eta Oihana Arana bertsolarien eskutik bertso jaialdia egingo da gaur, egubakoitza, Torresoroa aretoan. Aurkezle eta gai jarzaile lanak Alazne Jauregi antzuolarrak egingo ditu. Gaiak lantzen Antzuolako *Sasibertso-laixak* ibili dira. Emanaldia 22:00etan da. Sarrera, 10 euro.

Ekainera atzeratu dute agroekologiaren gaineko hitzaldia

Asteon egitekoa zen agroekologiaren gaineko hitzaldia, baina, azkenean, ekainaren 5era atzeratu dute. Orlanen egingo da, 18:30ean. Bertan izango dira, gainera, agroekologia bultzatzen duten herriko hainbat baserriar. Nekazaritza ekologikoa eta landa garapen iraunkorra biltzea eta bultzatzea du helburu agroekologiak.

Behi-jezte desafioa, Zurrategin

"Desafio honen asmoetako bat behi-jezte kalera ateratzea da", azaldu du Beñardo Kortabarria alkateak. Enrike Pagoagak Balentin Agirre Urruti-
ren aurka afaria jokatu zuen. Jendez bete zen plaza hura ikusteko. Kontuan hartzekoa da bien bitartean Urruti hil egin zela, ezustean. Omenaldi kutsua ere izango du, horrenbestez".



Enrike Pagoaga eta Balentin Agirre Urruti, apustuan. GOIENA



Mikel Mujika, Miren Oianguren eta Peio Legorburu. MAIDER ARREGI

Irumendi: lehen sektorea sustatuz eta indartuz

San Isidro nekazari eta abeltzainen festaren baitan, Antzuolako Udalak hainbat ekintza antolatu ditu asteen. Tartean, lehen sektoreaz hausnartzeko eta, besteak beste, Irumendi Kooperatibaren eredua gertutik ezagutzeko aukera izan da

Maidar Arregi ANTZUOLA
Gorlako larreetatik kalitatezko okela sortzen 50 urte daramatza Irumendi elkarteak. Kooperatibako kide Mikel Mujikak azaldu du edozein baserritan egiten den lanaren oso antzekoa dela euren egunerokoa: "Goizero ganadua gobernatzera igotzen gara. Bi gunetan dauzkagu, eta, behe-

ko gunean jaiotzak ditugunez, lan handiagoa izaten dugu".
'Baserria kilometro 0'
Ustiaketak ondo funtziona dezan, baina, komertzializazioa gakoa dela ere badio Peio Legorburu bazkideak: "Harakai-Urkaiko kooperatibako kide gara eta 300 bazkidek osatzen dugu komuni-

tate hori. Bertan, okelatarako edo bizirik mantentzeko behiak saltzen ditugu. *Baserria kilometro 0* markarekin komertzializatzen dugu jatekoa den okela; etiketa gorria daramana da. Merkatua asko aldatu da, ebo-luzionatu egin du, eta eredu horrekin oso gustura gaude; nolabait, kooperatibako base-



TXOMIN MADINA

Musikari bultzada emanaz

"Indarrak batzeko egitasmoa", halaxe definitu du *Mukuru* musika ekimena Josu Isaias kideak. Hamar talde batzen ditu, oraingo, kolektiboak, eta horietako bik, Klak!son-ek eta Seitan-ek, hartu zuten parte Antzuolako gaztetxean ekimenak antolatuta egin zuten

lehen kontzertuan. "Orain arte bakoitza bere kasa ibili da diskoak grabatzen eta kontzertuak antolatzen. *Mukuru*-ren helburua da jardun hori guztia kolektibizatzea". "Ilusioa dugun lagun taldea gara", azaldu dute Klak!son taldeko musikariek.



Gorlako larretan herri-behiak. MAIDER ARREGI

Herri-behiak berreskuratuz

Irumendi elkarteak lan handia egin du Hego Euskal Herrian galtzearekin den herri-behi arrazarekin (*pirenaica*). "Betidanik lan egin dugu herri-behi arrazarekin eta gure helburua arraza hobetzen joatea da; intseminazioak egiten ditugu", dio Mujikak.

rritarrei ere itzuli egiten zaie-eta lortutako etekin hori".

Herri-lurren kudeaketa

Larreak txukundu, basoak belardi bilakatu... lan handia dagoela azpimarratu dute Irumendiko bazkideek: "Ingurumenaren alde ere lan egiten dugu; azpiegitura ondo jartzea garrantzitsua da, belar txarrak kendu, zelaia garbi mantendu, pinudiak belardi bilakatu... esfortzu handia da guretzako ez den arren maiz errekonozitzen". Hala, Landa Garapeneko teknikari Miren

Oiangurennek dio herri lurrak erosteko plangintza ere aurrera doala Antzuolan: "Herriko lurrak larre bilakatzeko lanean gabiltza, eta aurrean, gainera, aurrekontua dagoeneko bideratua dago plangintza hau gauzatzeko eta lurrak erosteko".

HERRI LURRAK LARRE BILAKATZEKO HELBURUAREKIN, LURRAK EROSIKO DITU ANTZUOLAKO UDALAK



ARROLA

Paraje berrietan barrena

Baso ikusgarriak eta mendi ezezagunetan barrena ibiltzeko aukera izan dute Arrolako irteeran parte hartu duten mendizaleek. "16,5 kilometroko ibilbidea egin dugu. Artzanburu igotzen ari ginela, elurra ere izan dugu bidelagun. Denok oso gustura jaitsi gara Barrendiolako urtegira. Gertuko mendiak izan arren, inguru ezezagunetan ibili gara", azaldu dute.



Eguerdiko kantu saioa iazko Kantu eta Dantza Egunean. IMANOL SORIANO

Domeka girotzeko, betiko kantuak eta dantzak

Eguerdian emango diote hasiera Elgetako Kantu eta Dantza Egunari. Kantu-jira, bazkaria eta Jainaga eta Narbaiza trikitilariekin egindako Herrixa Dantzan saio berezia daude iragarrita. Antolatzaileek parte hartzera deitu dituzte herritarrek

Larraitx Zeberio ELGETA

Kantuan emango diote hasiera Elgetako Kantu eta Dantza Egunari, domekan. "Urtero bezala, betiko euskal kantuak aukeratu ditugu domekarako. Saiatzen gara urte batetik bestera kantuak ez errepikatzen, eta aurtengo egitarauan sartu ditugunak dira: *Maitasun hitzak, Maitetxo, Markoxen txerrixe, Martxa baten lehen notak, Mendian gora, Mendizaleak aurrera, Nere herriko neskak maite, Neska zaharrak eta Nevadarat joan nintzen*. Bi kantu izaten dira beti berdinak; hasteko abesten dugun *Aitorren hizkuntz zaharra* eta amaitzeko dugun *Elgetako ereserkia*, biak plazan", azaldu du Elgetako abesbatzako kide Lorea Larrañagak. "Jendearen erantzuna ona izaten da. Inguruko herrietako kantu taldeak ere gonbidatzen ditugu, eta etorri izan dira Eibartik, Aretxabaletatik, Arrasatetik, Oñatitik... Baina edozeinek har dezake parte, noski", azaldu du Larrañagak.

Elgetako korua domekako Kantu eta Dantza Egunean parte hartzekoa da, eta gonbidatuta daude baita ere ikasturte honetan musika gelatik sortua izan den neska-mutikoen abesbatzako kideak.

Herrixa Dantzan arratsaldean

Jainaga eta Narbaizaren zuzeneko musikarekin egingo du saioa Patxi Monterok. "Egunari egokitutako piezak joko ditugu. Alde batetik, kantuari lotuta kantuz ere laguntzeko eta bestetik jolaserako dantza errazak direnak", aurreratu du. "Egun polita izaten da eta giro polita sortzen da. Aurreko urteetan 80 lagun inguru elkartu izan dira kantu-bazkarira". Dantzarako

UDALA, ELGETAKO KANTUZALEAK TALDEA ETA HERRIXA DANTZAN EKIMENA DIRA ANTOLATZAILEAK

giro berezia sortzen dela dio Patxi Monterok. "Normalean dantzarako joerarik ez duen hainbat lagun animatu ohi da egun horretan dantzara. Giro dibertigarria eta *sanoa* sortu ohi da ahaztu gabe inguruko herrietako herritarren arteko harremana sustatzea eta estutzea dakartela halakoek, eta euskaraz. Oso esker oneko eguna da".

Domekako egitaraua

- **12:30** Harrera plazan.
- **13:00** Kantu-jira, tabernaz taberna. Esku-orriak banatuko dituzte.
- **14:30** Kantu-bazkaria, kiroldegian.
- **18:00** Herrixa Dantzan saioa kiroldegian Jainaga eta Narbaiza trikitilarien zuzeneko musikarekin.



NAGORE OJANGUREN

Txomin de Vega, sasoi onean

Euskadiko Txirrindulari Federazioak antolatuta jokatu zen zapatuan BTT Euskadi Open-DH txapelketa, Igantzin. Lokatz eta ur handiko proba izan zen. Master 30 kategorian, Txomin de Vega izan zen onena. Nor bere kategorian podiumean izan ziren, baita ere, Lokatza taldeko Jon Larrea, Manu Castro eta Unai Larrea antzuolarrak eta Ibon Odriozola bergararra.

GORA ETA BEHERA



Txakur kaka nonahi eta jendea haserre

Ez da kontu berria. Herritar bat baino gehiago kexatu da txakur jabe batzuek ez dituztelako beraien animalien gorotzak jasotzen. Haur parkeetan ere egoten da kaka. Arazoa ikusgarriago egiteko, etxe inguruan aurkitutako txakur kakak seinaleztatzen hasi dira herritar batzuk.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



L.Z.

Beheko kaleko jai batzordea hasita dago lanean

Torrealdeko auzotarrak hasita daude Beheko kaleko jaiak prestatzen. Ekaineko hirugarren aste bukaerarako iragarri dituzte 2018ko festak. Ekintza nagusiak barikuan, ekainaren 15ean, egingo dituzte. Auzo afaria eta arratsaldeko Amaia DJ-ren saioa lotuta daude. Gauean, berriz, Gau Argi taldeak egingo du erromeria.

Jai batzordeak jakinarazi du antolaketa lanekin jarraitzeko aurrerantzean eguenetan elkartuko direla Mendi Mendian elkartearen, 19:30ean. Interesatu eta auzotar guztiak dauden festen antolaketan parte hartzera gonbidatuta.

Festak finantzatzeko, bestalde, martxan dira jakiz beteriko saskien zozketak El Rincon de Lola tabernan. Bi saski banatu dituzte dagoeneko. Lehenengoa Jose Luis Larrañagak irabazi du eta bigarrena, Txus Molak.

"Azpiegiturak bultzatzea da gure egiteko nagusia"

SEBASTIAN ARANTZABAL BASERRITARREN ETA INGURUMEN BATZORDEETAKO BURUA Baserri-bideak egoki mantentzeak aurrekontu zati handia eskatzen du. Baso ustiatzaileen ardura ere badela uste du Arantzabalek, eta auzolanean sinisten du

Larraitz Zeberio ELGETA

Baso ustiaketak baserri-bideetan eragindako kalteak buruhauste dira Elgetan ere. Hainbat neurri hartu dituzte aurre egiteko.

Lehenengo sektoreko jarduerak zein pisu dute gaur egun Elgetan?

Lehenengo sektoretik bizi den familia bakar bat ere ez da egongo Elgetan. Abereak daude, gehienbat, inguruak garbi mantentzeko. Sasoi batean artalde handiak zeuden eta gaur egun 140 bat ardi daude erregistratuta herrian, baina hamabost ustiategitan. Ortuak ere autokontsumorako lantzen dira. Gutxi batzuk dira baserriko produktuak kalera ekartzen dituztenak.

Zeintzuk dira, orduan, baserritarren batzordearen zeregin nagusiak?

Nekazaritza jarduera ugari ez egotera, azpiegiturak bultzatzea eta horiek mantentzera bideratzen dugu gehiago gure lana: Foru Aldunditik dauden diru laguntzak bideratzea, bideak eta ur hornidurak mantentzea...



Sebastian Arantzabal, martitzenean, *Hemen Debagoiena* saioan. L.Z.

Berriki onartu du udalbatzak baserri-bideen erabilerarako udal ordenantzaren moldaketa bat.

Elgetako mendi eta baso pribatu gehienak pinuz beteta daude. Pinu horiek atera behar direnean, baserri-bide publikoetara ateratzen dira, eta kalte dezente sortzen dira. 2007an onartu zen ordenantza bat erabilera hori arautzeko, eta agintaldi honetara arte ez da modu serioan bete. Agintaldi honetan hasi gara. Kexa izaten zen baserri-

tzen dira, eta kalte dezente sortzen dira. 2007an onartu zen ordenantza bat erabilera hori arautzeko, eta agintaldi honetara arte ez da modu serioan bete. Agintaldi honetan hasi gara. Kexa izaten zen baserri-

tarrak eta baso jabeak egiten zirela beti sortutako kalteen erantzule, eta ordenantzaren moldaketak jasotzen du basoa erosten duen enpresa eta garraio lanak egiten dituen ere eragindako kalte horien erantzule direla. Egia da gorabehera handiak daudela. Elgeta herri txikia da, eta ez dugu udaltzaingorik horrelakoak zaintzeko.

Baserri-bideen mantentze-lanak, orduan, lan handia ematen du.

Baserritarren batzordeko aurrekontu zati handiena horrek eramaten du. Hiru urteotan bi bide berri asfaltatu ditugu: Etxetxokoa eta Iturbe-Etxebarrikoa. Konponketak egin dira, bestalde, Egoetxeagako, Txulokuako eta Azulako bideetan. Gehienbat, pinu ustiaketak eragindako kalteak dira konpondu direnak.

Hilabeteotan, sumatu duzue ordenantzaren moldaketaren eraginik?

Baso ustiaketa egiteko baimenak eskatu behar izaten dira eta nahiko luze jotzen dute kontu horiek. Oraindik ez dugu aldaketarik sumatu. Ordenantzak, bestalde, baditu beste arlo batzuk. Jasotzen du, esaterako, bide bazterren garbiketa auzotarrek eta baso jabeek egin behar dutela, auzolanean. Badihardugu lanketa horretan ere agintaldi honetan. Hiru urteotan hiru auzolan deialdi egin ditugu eta aurtan Azurtzako bidea egitea da asmoa. Hala, Elgetako lau bide luzeenak eginda geldituko lirateke.

Zelakoa izaten da parte-hartzea auzolan deialdietan?

Gorabeheratsua, baina uste dut hori ere bultzatu beharreko arloa dela. Joaterik ez duen auzotarrari eskatzen zaio orduko hamar euro ordaintzeko. Ez da beste munduko gauza, eta lehenagoko auzolanetan ere horrela egiten zen. Joaterik ez zuenak dirua ipintzen zuen. Esan beharra dago urtero-urtero bide bazterrak garbitzen bost mila eurotik gora joaten direla.

Egin berria da Elgetan Debagoieneko Artzainen Eguna. Garrantzitsua da lehenengo sektoreko jarduerak plaza erdira ekartzea?

Balorazio positiboa egiten dugu. Produktu salmenta izan zen eta gauza interesgarri ugari erakutsi ziren: gatzatua zein gazta ezberdinak egiten, ardi motak bereizten... Gaztetxoak dira, akaso, mundu hori gutxien eza gutzen dutenak, eta beraiei zuzenduta egin ziren hainbat joko, artilea lantzeko tailerra, eta abar. Erakusleho moduan, baliagarria izan zen, kaleko jendeari gerturatzeko urruti gelditzen zaion baserriaren mundua. Bai jendea, bai saltzaileak nahiko gustura gelditu ziren.

"HIRU AUZOLAN DEIALDI EGIN DITUGU ETA AURTEN ASMOA DA AZURTZAKO BIDEA GARBITZEA"



JOSE ANTONIO OJANGUREN

Ordizian eta Donostian paseoan

Goiena komunitatea / Xalbadorpe elkarte / ELGETA

Eguraldi eskasarekin, baina erretiratuak gustura ibili ziren hilaren 9ko irteeran. Xalbadorpe elkarteak antolatutako Ordiziako azokan eta Donostian ibili ziren. Aterrunak ere izan ziren eta egun-pasa polita egiteko aukera izan zuten. Aginaga sagardotegian egin zuten bazkaria.

OHARRAK

Gure Esku Dago

Gaur 19:30ean eta domekan 12:30ean material salmenta kultura etxean.

Gaztelekuko irteera

Gaztetxoek Donostiako Aquariumera egingo dute txangoa, bihar, zapatua.

Nekazarien elkarte

Elgetako nekazarien kooperatiba katolikoak urteko batzar orokorra deitu du domekarako, hilak 20. Ozkarbi elkarte izango da, 12:45ean.

Jaietako kartela

Eguaztenean amaitzen da jaietako kartel lehiaketara lanak aurkezteko epea. Argibideak, udal webgunean.



KANTSATZEKE MENDI TALDEA

Bi mendi irteera maiatzean

Eguraldiarengatik, zapatuan, Xoxote ingurura egin zuten mendi irteera Kantsatzeke mendi taldekoek. Ondo ibili ziren, eta hurrengo baterako laga dute Burutzuzingo meategietarako plana. Domekarako, berriz, Okina-Saseta-Okina ibilbidea du iragarritako taldeak. Adinez nagusi direnendako irteera izango da. Taldea 08:30ean abiatuko da, herriko plazatik, autoetan.



Zubikoa kiroldegiaren eraikin osoan egingo dituzte eraberritze lanak. O.E.

Kiroldegi berriak nolakoa behar duen zehaztu dute

Lan handiena gunee hezean egingo badute ere, igerileku biak handituta eta aldagelak putzuen parean jarrita, gimnasio handiagoa eta bi sauna izango ditu kiroldegi berriak. 2019ko bigarren erdian hasiko dituzte lau milioi euroko kostua duten lanak

Oihana Elortza OÑATI

Oñatiko Udalak Zubikoa kiroldegia eraberritu eta handitzeko proiektua idatziko duen zerbitzua kontratatzeke prozedura hasi du. Udalak hainbat baldintza finkatu ditu eta proiektuak baldintza horiek jaso beharko ditu. Lehen fase honetan, enpresak aurkeztu beharko dira proiektua egiteko prest daudela esateko,

eta obra nork egingo duen esleitu ondoren hasiko da enpresa hori proiektua bera lantzen. Gero etorriko dira obrak.

Hezea eta lehorra

Baldintzak lau atal nagusitan banatu dituzte: igerilekua, gaintzeko kiroleko kantzak, zerbitzu orokorretako langileen gunek eta padel erabilerarako

esparrua. Kirol zinegotzi Borja Moiuak azaldu duenez, igerilekua handitu egingo da, bai, baina lanak ez dira esparru hezean bakarrik egingo, kiroldegi osoan egingo dituzte, esparru lehorreko zerbitzuetan barne; kiroldegi osoa eraberrituko dute.

Aldaketa handiena, hori bai, igerilekuak dauden aldean egingo dute. "Baldintzetan jarri dugu

igerileku handia hiru kaletan handitzea, gutxienez. Eta harmailak egoteko aukera. Norbait jasotzen badu, adibidez, lau kale handitu eta harmailarik ez, baloratu egingo da proposamena eta aztertu posible izango litzatekeen edo ez. Txikia ere handitu egingo da eta horrek eragina izango du egun sauna dagoen eremuan. Aldagelek igerilekuen parean egon beharko dute eta baldintza horrek aerobik eta karate getan izango du eragina. Zerbitzu horiek gero ere egongo dira, baina eremu hezea handitzeak beste zerbitzu horiendako tokia egotea eskatzen du. Espazio hori, adibidez, eraikinari goian beste solairu bat eginda lortu daiteke. Baina hori enpresek aurkeztuko dituzten proiektuetan ikusiko dugu", azaldu du Borja Moiuak.

Epeak

Kiroldegi berrian bi sauna egongo dira, lehorra bata eta hezea bestea, eta sarrera ere ez da oraingoa bezalakoa izango. Kantxa berdeko teilatua konpondu egingo dute, eta pilotalekuko paretan dagoen sabela kendu. "Sabel hori tenis pistatik datorren urak sortu duen edo ez ikusi beharko da eta horretarako tenis pistan ere egin beharko dira lanak", zehaztu du Moiuak. Kantxa urdineko temperatura baxua eta aldageletako ur arazoa ere konpondu gura dituzte lan hauekin. Gimnasio berria handiagoa izango da eta litekeena da squashean jokatzeko gela bat gutxiago egotea gero, gimnasioaren mesedetan. Padel pistak jartzea ere badator jarritako baldintzen zerrendan.

Baldintzen plegua argitaratu du orain Udalak, eta ekainaren 1era arte dute enpresek euren

proposamenak aurkezteko. Proiektua bera udazkenerako egongo litzateke gertu eta ondoren hasiko lirateke obrak. Horiek, baina, ez 2019ko uda aurretik.

Obrek zenbat iraungo duten oraindik ez dago jakiterik, baina litekeena da kiroldegia itxita egon behar izatea lanak egiten dituzten bitartean. "Aproposena litzateke gunee batean ari diren bitartean bestea zabalik egotea, baina ez dakit hori posible izango den edo ez, bata bestea eskatzen duelako. Horregatik jaso dugu baldintzetan kiroldegia itxi beharra egonez gero ahalik eta denbora gutxien egotea", dio Kirol zinegotziak. Hori, baina, proiektua zehaztutakoan jakingo dela dio Moiuak, eta adituek esango dutela noiz.

Ikastaroak

Obrak egiten dituzten bitartean kiroldegiak emango duen zerbitzua ez da erabatekoa izango; ez, behintzat, ikastaroei dago kienez. Moiuak esan duenez, ikastaro asko dituzte kiroldegian eta zaila izango da horiek beste herri batean eskaintzea; beraz, tamalez, ez dute ikastarorik eskainiko eraberritze lanetan ari diren sasoian. Bazkideek inguruko herrietako kiroldegiak erabiltzeko modua, baina, izango dute. Aretxabaletako eta Legazpiko kirol ordezkariekin jarriko dira harremanetan Oñatikoak, oñatiarrek hango instalazioak erabil ahal izan ditzaten.

ONDOKO HERRIETAKO INSTALAZIOAK ERABILI AHAL IZANGO DITUZTE OÑATIAK ERREK BITARTEAN

Gurasoendako jolasak ere egongo dira bihar, Urgain Egunean

Bihar, zapatua, ospatuko dute aurtengo Urgain Eguna eta egitarau bete-betea prestatu dute. 11:30ean hasiko dute eguna, Zuazola institutu aurrean, haurrendako jolasekin eta batukadarekin. Bazkaria, ikasleek prestatutako antzezlanak eta puzgarriak ere egongo dira. 17:00etan hasiko dira gurasoendako jolasak.

Proposamenak jasotzeko beste bi saio datorren astean

Partaidetzako aurrekontuen lanketan, herriarrendako beste bi saio ireki egingo dituzte datorren astean. Astelehenetako gaztelekuan izango da eta, batez ere, emakumeen ekarpenak jaso gura dituzte hor. Egueneko Urgain Errekalde ikastetxean egingo dute. Saio biak 18:30ean hasiko dira; eta irekiak dira, edonork har dezake parte.

Lurrera jausi aurretik

Behin baino gehiagotan jausi dira zatiak plazako arkupeetako sabaitik, eta egoera konpontzen hasi dira aste honetan. Sabaiaren egoera zein den aztertu behar dute, eta horren arabera erabakiko da hurrengo pausoa zein den; erortzeko moduan dauden beste zati batzuei konponbidea ematen hasi dira. Aldamioak jarri dituzte arkupeetan, gora heltzeko.





Martitzenean Artasora egindako irteeran. OÑATIKO UDALA

Pago mozketaren adibidea ezagutu dute

Frantziako eta Kataluniako Pirinio inguruko hainbat basozain eta ingurumen teknikari izan dira astean Artason pago mozketaren teknika eta arrazoiak bertatik bertara ikusten. EAEko hiru aldundiek eta Hazi Fundazioak antolatutako jardunaldia izan da

Oihana Elortza OÑATI

Zuhaitz motzak babesteko, pago mozketak egin zen Iturrigorriin, duela hamar urte, Europa mailako Life ekimenaren babespean. Aste honetako lehen bi egunetan, Frantziako eta Kataluniako Pirinio inguruko herritarrak izan dira Oñatin, Euskal Herrikoekin batera, ekimen horrek duen eta izan dituen garrantzia eta ondorioak bertatik bertara ikusten. EAEko hiru aldundiek eta Hazi Fundazioak antolatutako jardunaldia izan da.

Elkartrukea

Herrialde ezberdinetako basozainak, landa garapeneko teknikariak eta basogintzan aritzen diren 35 bat lagun elkartu ziren astelehenean Arantzazun. Hurrengo egunean, Life programaren emaitzen aurkezpena eta Oñatiko esperientzien berri eman zien Gomiztegin alkateak, Mikel Biainek, eta, parketxea bisitatu ostean, irteera egin zuten Artaso ingurura. "Duela hamar ur-

teko Life programaren jarraipenak Poctefa Green du izena orain eta horren barruan egin diren ekimenak ezagutu eta ikusi genituen. Pasa den abenduan egin zen Artaso inguru horretan beste pago mozketak bat eta haraxe joan ginen", dio Landa Garapeneko udal teknikari Itziar Iglesiasek.

Elkartruke teknikoak ere egin zituzten irteera hartan, Pirinioetako zona ezberdinetako herrialde bakoitzak bere beharren edo egoeraren arabera erabili baitu Poctefa Green programa. "Guk pago mozketak egin ditugu, baina Katalunian, esate baterako, basoen heldutasun maila neurtzeko lanak egin dituzte", dio Iglesiasek.

DUELA HAMAR URTE ITURRIGORRIIN EGIN ZUTEN PAGO MOZKETA ETA ABENDUAN ARTASON EGIN DUTE

Biodibertsitatea

Burdinolen garaian ikatza egiteko erabiltzen zituzten pago motzen adarrak, eta haien azpian sortzen zen larrea abeltzainendako zen egokia. Pago motzak ziren ganadua eta basoa osagarri izan zitezten. Pago motzak aukera ematen zuen ardiak, behorrak eta behiak behean ibili zitezten, zuhaitzak mantenduz, bestela adarrak jango zituzkeen-eta ganaduak. Forma berezia hartzen dute zuhaitzek eta ez dira horra gora iristen; goian dago egurra eta behean belarra. Behin altuera batera moztuta, adar asko ematen ditu, eta 10-15 urtean behin moztu behar dira.

Paisaia horrek ahalbidetzen duen bioaniztasuna oso handia dela gaineratu du Iglesiasek: "Hildako zuhaitzak hainbat zomorroren bizitoki dira eta horiek, aldi berean, hegaztien jaki. Biodibertsitatea ikaragarri handitzen da eta ondare naturala, aberastu".

Etzi hasiko dira Euskal Herriko memoria-lekuak ezagutzen

Nabarralderekin Udalak antolatu dituen jardunaldien barruan, egun osoko saioa egingo dute hilaren 26an

O.E. OÑATI

Nabarraldeko Angel Rekalderen esanetan, historian zehar izan diren gertaeren agertokiez jardungo dute maiatzaren amaieran Oñatin egingo dituzten jardunaldietan: "Praktika hori egiten da munduan zehar, baina ez horrenbeste Euskal Herrian. Hemen oso historia aberatsa, trinkoa, dugu, baina ez dugu ezagutzen. Kontzeptu hori jaso eta landu gura dugu Oñatiko saioetan. Hori izango da gure lehenbiziko asmoa edo helburua, eta, horrekin batera, historiari errepeaso bat egitea".

Jardunaldia

Euskaldunen historiako gertaeren gune nagusiak izango dituzte hizpide, eta Amaia Nausia, Iñaki Sagredo, Eneko Bidegain, Beñi Agirre eta Xabier Irujo etorriko dira, besteak beste. Kataluniako azken berriak direla eta, aurreikusita zegoen Quim Torrarren hitzaldia bertan behera gelditu da. Haren orde, Antoni Furio Valentziako Unibertsitateko Erdi Aroko Historia katedraduna izango da Oñatin irekiera ekitaldian, maiatzaren 25ean, egubakoitza.

Maiatzaren 26an, historiako jardunaldia izango da Sancti Spiritus unibertsitatean. Egund osokoa da eta gai hauen inguruko hitzaldiak egingo dituzte: Zugarramurdiko sorginak, Orreaga, karlistak, itsasoa eta Gernika, besteak beste. Parte hartzeke, izena eman behar da www.nabarralde.eus atarian. Hamar euro da izen-ematea.

Memoria lekuak izeneko jardunaldiak hasiera emateko, baina, irteera antolatu dute Nabarraldeko eta Aloña Mendiko mendi sailak domekarako. Orreaga izango da txangoa, Ibañeta gainera eta Orbaitzetako armalara; Beñi Agirrek emango ditu historia azalpenak. Astean, beste bi ekimen ere egingo dituzte: martitzenean, hilak 22, *Beloagako gaztelua*. *Memoriaren behatokia* dokumentala eskainiko dute, zinema aretoan, 19:00etan. Eguaztenean, berri, euskarari buruzko erakusketa zabalduko dute kultura etxean. "Batuetan in-materialak dira lekuak eta hor ere sartuko gara. Euskara, adibidez, memoria-gunea da", adierazi zuen Angel Rekaldek jardunaldien aurkezpenean.

GORA ETA BEHERA



Latak, parke naturaleko lurra estaltzen

Arantzazuko azken aparkalekuan, Urbiara joateko barrera ondoan, atera du argazki hau irakurle batek; dozenaka lata lurrera botata. "Lotsagarria" iruditzen eta argitaratzeko bidali digu. "Parke naturala izan eta horrelakoak ikustea...", dio irakurleak.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.





Urzelai, Lazkano, Palacios, Lizarra eta Irizar. ENEKO AZURMENDI

Talde nortasunari eustea izango da lehentasuna

Aloña Mendik duen filosofiarekin bat egingo duen entrenatzailearen bila dabilta; etxeko jokalariekin osatu nahi dute etorkizuneko Aloña. Kirol ikuspegiari baino gehiago, indarra eman nahi diote taldearen belaunaldi aldaketa bermatzeari

Arantzazu Ezkibel OÑATI

Gotzon Urzelai entrenatzaileak ez du taldean jarraituko datorren denboraldian. Urzelairekin batera, beste lau jokalarik ere agur esan dute denboraldia amaitzearekin batera: Gorka Lazkanok, Mikel Palacios, Aimar Lizarrak eta Joseba Irizarrek ez dute futboleko jarraituko. Partidu hunkigarria izan zen domekan Az-

koagainen jokaturakoa. Aipatu-tako jokalarien eta entrenatzailearen agurra.

Kirol ikuspegitik ezer gutxi zegoen jokoan berdegunean. Aloña Mendik Eibar Urko liderra zuen aurrean –pasilloa egin zieten oñatiarrek lehenengo postu hori lortu izanagatik—. Hala ere, partidua irabazteko gogoz eta ilusioz irten ziren

etxekoak. Egindako lanak bere fruitua eman zuen: 1-0 irabazi zuten oñatiarrek.

Gol izugarria

Lehenengo zatian ipini zen etxeko taldean aurretik. 22. minutuan Aritz Zabaletak gol ikusgarria sartu zuen: 35 metrotik egin zuen jaurtiketa eta baloia sareetan sartu zen eskuairatik.

Herri arteko txapelketa hasiko du Oñatik, Bidania-Goiatzen

Txapelketako final-zortzirenak jokatu dituzte; joaneko partiduak izango dira, 18:30ean hasita jokatu dituzte

A.E. OÑATI

Gipuzkoako herri arteko txapelketa hasiko du bihar Oñatik, Bidania-Goiatzen aurka. 18:30ean hasiko dira partiduak: kadete, gazte eta nagusi mailetak partiduak jokatu dituzte. Itzule-

rako partiduak astebete geroago izango dira Oñatin.

"Iazko sailkapenaren arabera antolatzen da txapelketa", azaldu du Josu Osa entrenatzaileak. Dagoeneko hainbat partidu jokatu dituzte beste talde batzuek;

baina Oñatik bihar hasiko du txapelketa, final-zortzirenetan.

Ondoko bikoteak osatu ditu Osak, baina azken momentuko aldatetak izan daitezkeela aurreratu du: kadete mailan, Azkarate eta Loiti lehiatuko dira; gazte mailan, Perez eta Gartzia; eta nagusien mailan, Biain eta Escalero. Kanporaketa erara jokatu da norgehiagoka. Lehiatuko diren jokalariez gain, ordeko jokalariek ere behar izaten dituzte, "lesioaren bat egonez gero...".

Talde nortasuna

Julen Barrena eta Endika Ruiz dira Aloñako koordinatzaileak, eta euren ardura izango da entrenatzaile berria bilatzea: "Horretan dihardugu, eta uste dugu laster izango dugula entrenatzailea", dio Ruizek. Taldearen nortasunari eutsi gura diote, Aloñak duen nortasunari, eta, horretarako, etxeko jokalariekin osatu nahi dute taldea. "Nortasun horrekin" jarraituko duen entrenatzailearen bila dabilta la gehitu du Ruizek.

"Belaunaldi aldaketa izango da, eta gura duguna da aldaketa horretan bermatzea Aloñak duen nortasuna, eta ahalik eta gutxien kaltetzea", gehitu du. Kirol emaitzak bigarren maila batean geratu arren, indarra eman nahi diote belaunaldi aldaketa horri. "Oinarri on bat lortzen baldin badugu, badakigu

"Urtebetean, behintzat, geldi egongo naiz"

GOTZON URZELAI ENTRENATZAILEA

Bi denboraldi egin ditu Urzelai Aloña Mendi zuzentzen. Bada, bi urte gogor izan direla dio, eta atsedean hartu behar duela, etxekoekin gehiago egoteko. **Entrenatzeari uzteko erabakia hartu duzu.** Otsail bukaeran hartu nuen erabakia; etxean egoteko denbora behar nuelako. **Igoera lortzea zen aurtengo helburua?**



E.A.

Helburu moduan, bai, hori falta izan da.

Futbolari izandakoa, eta entrenatzaile orain. Ikusten duzu zeure burua futbol barik?

Ez, ez dut ikusten. Ingurukoek esaten didate asko sufritu dudala, eta pazientzia gubxi izan dudala hainbat momentutan, eduki dudana presio handiagatik. Aurrerantzean, ez dakit zer egingo duan. Urtebete, behintzat, geldi egongo naiz. Futbola ikusiko dut.

emaitzak etorriko direla", azaldu du Ruizek. Igoera lortzea helburua den galdetuta, Ruizek dio lehenengo postuan geratzea zaila dela, baina taldeak baduela horretarako maila.

Batzarra eta Afaria

Denboraldia amaitzeko batzarra egingo dute Aloña Mendiko futbol saileko kideek. Ekainaren 15ean, egubakoitza, urteko batzar orokorra izango dute. Ondoren, afaria egingo dute eta sariak banatuko dizkiete denboraldian zehar nabarmendu diren jokalariei.

EKAINAREN 15EAN BATZAR OROKORRA EGINGO DUTE ETA HORREN ONDOREN, AFARIA

Udako kanpaina izena emateko aukera badago oraindik ere

Udako kanpaina izena emateko interesa duenak badu horretarako aukera oraindik ere. Izan ere, tokia dago bai lehenengo txandan eta baita bigarrenean ere. Zubikoan eman behar da izena, eta han emango dute informazio zehatza. Helduentzako patin ikastaroan izena ematea gura duenak Zubikoan eman dezala izena, lehenbailehen.

Goi mendietara joateko goi mailako bertso saioa

Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Aitor Sarriegi eta Uxue Alberdi ariko dira bihar Zubikoan Amaia Agirrek jarritako gaiei kantuan, ikastoletako ikasleak Himalaiara eramango dituen 'Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere' ekimenerako dirua batzeko

Julen Iriondo OÑATI

Euskal Herriko herrialde guztietako ikastoletako ikasleak – Gipuzkoakoak, Txantxiku ikastolakoak– Nepalera eramango dituen ekimenera bideratuko dute Lujanbio, Arzallus, Sarriegi eta Alberdi entzutera joango direnek ordainduko dituzten sarreretatik batutako dirua. 10 euro dira bakoitzeko, eta egunera arte Txokolateixan moduan, saio aurretikoan Zubikoan bertan egongo dira salgai.

Amaia Agirrek jarriko dituen gaiei botatako bertsoen ordaina, beraz, txalotan eta elkartasun modura ere izango da kasu honetan. Mendia, xerpa hizkuntza eta euskara batzen dituen ekimena da *Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere*.

Udazkenean izango da espedizioa, eta ikasleek mendi zeharkaldia egingo dute Khumbu eskualdean, Everest eta 8.000 metroko beste hainbat tontorren inguruan, eta 6.000 metroko bi



Maialen Lujanbio. IMANOL SORIANO

gailur eta 5.000 metroko beste hainbat egiteko asmoa dute. Felipe Uriarterengandik –mendi gidaria– sortutako ekimena da.

Euskal Herritik joango diren gazteek harremana izango dute

hango hainbat xerpa gazterekin, eta elkarren arteko komunikaziorako hizkuntza nagusia ingelesa izango den arren, xerpa hizkuntzarekin eta euskararekin ere egingo dute saiakera, besteen hizkuntzaren hainbat hitz ikasiz.

Zangoak indartzen

Himalaiara bertaratuko diren ikasleek mendi ibilaldiak egiten dihardute, besteak beste, elkar ezagutu eta zangoak zailtzen joateko. Otsailean Oñatin egingako lehen topaketaz geroztik, Laudion eta Baigorriren ere izan dira gazteak, elkarrekin mendiaz gozatuz.

Prestaketa horietaz gain, finantzazioan ere lanean ari dira ekimeneko partaideak. Adierazi dutenez, hainbat enpresa eta erakundek babestu dute proiektua, eta dirua batzeko –eta egitasmoa ezagutarazteko– izango da biharko bertso saioa ere. 22:30ean izango da, Zubikoa kiroldegian.

Azken Ostegun Kontalaria, udako etenaldiaren aurretik

Izaskun Mujikaren saioa hilaren 31n izango da, eta astelehenean hasiko dira gonbidapenak banatzen

J.I. OÑATI

Urrian hasi eta maiatzak bukatu bitartean *kontalariak* izaten dira Oñatin hileko azken ostegunak, eta uda parteko etenaldiaren aurretik beste istorio batekin gozatzeko aukera izango dute neska-mutikoei; 3 eta 5 urte artekoak, kasu honetan.

Izaskun Mujika izango da oraingoan ipuin kontalari jardungo duena, 18:00etan, haur liburutegian, ohi bezala. Bertara joateko gonbidapenak banatzen astelehenean, hilak 21, hasiko dira.

3 eta 5 urte artekoentzat eta 6 eta 9 artekoentzat txandaka, hilero egiten dute saioa, eta aurtengoek ere harrera ona izan dutela dio liburutegiko Marina Etxegoienek; hala ere, nagusienekin gehiago kostatzen ei da: "Kontalariak eurek ere esaten dute; 6 urtetik aurrera umeei gauza gehiago izaten dituzte eskolaz gain". Baina Ostegun Kontalariak *harrobi* bat ba omen dute eginda, eta lortzen dute emanaldietarako lekuak betetzea. Kontaketak urrian itzuliko dira, beraz, maiatzekoa pasata.

Non Servium talde madrildarraren kontzertua, egunean

Non Servium talde madrildar entzutetsuak kontzertua emanango du egunean, hilak 24, gaztelekuan. 22:00etan hasiko da, eta, haiez gain, John Dealer & The Coconuts legazpiarrak ere igoko dira taula gainera. Sarre-rak salgai daude, aurrez, *Pandaartistmanagement.net* helbidean, 8 eurotan. Leihatilan 10 euro kostako dira.

Jaietarako txosnak antolatzeke lehen bilera, astelehenean

Bilera irekia izango da hilaren 21ean Eltzia eraikinean egingo dutena; 19:00etan da hitzordua, antolaketan parte hartu nahi dutenentzat edo ekarpenen bat egin nahi dutenentzat, norbanako zein taldeentzat. Antolaketaz gain, San Migel eta Errosario jaietarako programazioa lotzen ere joango dira bilera hauetan.

Debagoieneko GREMIOAK

ARROZTEGIAK

AZKARATE AROZTEGIA BERGARA

- Ateak, leihoak, horma-armairuak, tarimak, parket flotatzaleak, sukaldeak.
- K-21

Telleria 19 B02-B03
Tel.: 943 76 47 19 / 610 88 40 20
blogak.goiena.net/azkarate

HONDEAKETAK

EXCAVACIONES Y CONTRATAS ARRASATE SL
ARRASATE
Mestiznaka 30
Tel.: 943 77 12 26 / 646 29 59 87
e.arrasate@gmail.com

ITURGINTZA

EGIA ITURGINTZA ARRASATE

Gipuzkoa etorbidea 39, behea
Tel.: 943 77 01 85

OYANGUREN ITURGINTZA ESKORITZA

- Iturgintza eta gasa
- Berogailuak eta petrolio-produktuak
- Klimatizazioa

Aranburuzabala 15
Tel.: 943 71 47 14 / 606 00 73 69
f.oyanguren@ctv.es

URKO MANTENIMIENTO SL ARETXABALETIA

- Instalazioen mantentze-lan guztiak
- Berokuntza eta gasa
- Aire girotua eta haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3
Tel.: 943 77 19 88
Faxa: 943 79 59 97

LEIHOAK

ARGI-PLASTIK

ARRASATE
Zigarrola kalea 1, 8 pab
Tel.: 943 77 11 30

LOREZAINNTZA

MAKAI KOOP. ELKARTEA ARETXABALETIA

- Barruko zein kanpoko lorezaintza
- Ureztatzeke sistemak
- Loreontzi-euskarriak eta balkonoak

Basabe poligonoa D-2-1
Tel.: 943 79 78 45 / 616 96 57 98
Faxa: 943 79 78 45

Iraperkia jami nahi baduzu,
deitu 943 25 05 05 zentekira.



lazko Emakumeen Bira, lurretan hasi zuten etapan. GOIENA

Aretxabaletakoan, Aramaio epaile

TXIRRINDULARITZA Zapatuan hasi eta martitzenera arte 31. Emakumeen Bira jokatu dute Euskal Herrian. Astelehenean Aretxabaletan hasi eta amaituko dute hirugarren etapa, eta kilometro gehienak ibarrean egingo dituzte; horietako asko, Aramaion

Xabier Urzelai ARETXABALETA

Astelehenean txirrindularitza onenarekin gozatzeko aukera egongo da, Emakumeen Bira Aretxabaletara iritsiko da eta -lehenengoz UCI World Tour barruan-. Emakumezkoen 24 talde indartsuenak egongo dira, eta tartean izango da Bizkaia Durango-Euskadi Murias euskal taldea: "Logikoa den moduan, izugarrizko ilusioa dugu etxeko lasterketan gauzak ondo egiteko. Aurtengoa World Tour barruan dago, eta igarri egingo dugu hori; alegia, mailari dagokionez koska bat egingo dugu gora eta munduko txirrindulari onenen kontra lehiatuko gara. Ibilbidea oso ondo ezagutzen dugu; ihesaldietan sartzen ahaleginduko gara, eta, zergatik ez, baita postuengatik borrokatzen ahalegindu ere", adierazi du taldeko zuzendari Agurtzane Elorriagak.

Hain zuzen ere, ziklista euskaldunei dagokionez, Bizkaia Durango-Euskadi Murias taldeko Ane Iriarte, Lierni Lekuona eta Agurtzane Elorriagarekin batera Legazpiko irteera puntuan egongo dira bihar Sopela Womens

Team taldekoak, Movistarko Eider Merino eta Lourdes Oiarbide eta Ale Cipollini taldeko Ane Santesteban.

Faboritoen zerrenda


Luxuzko ziklistak batuko dira WWT 31. Emakumeen Bira honetan, eta lasterketa irabazteko faboritoen artean, egungo lider Anna Van der Breggen dago, baita Elisa Longo-Borghini, Annemiek Van Vleuten eta 2017ko irabazle Ashleigh Moolman-Pasio ere. Halaber, ezin da alde batera utzi Lauren Stephens iparramerikarra. Ibilbideari dagokionez, lehenengo etapa Legazpin hasi eta amaituko da (108 kilometro), bigarrena Agurain eta Gasteiz arteko erlojupekoa izango da eta laugarrena, berriz, Iurretan hasi eta amaituko dute (120 kilometro).

Eta datutan

- **Eguna:** Astelehena, 21
- **Lekua:** Aretxabaleta
- **Irteera:** 15:30
- **Helmuga:** 18:40 aldera
- **Kilometroak:** 114,5
- **Talde kopurua:** 24
- **Mendateak:** Bigarren mailako Etxaguen (55. kilometroa) eta Arlaban (81. kilometroa), eta hirugarren mailako Untzilla (64. kilometroa).

Etaparen profila:

ITURRIA: EMAKUMEEN BIRA



Eta gorabeheratsua

Aretxabaleta eta Oñati arteko lehenengo 50 kilometroak lautadan egingo dituzte.

Bigarren zati gogorra

Mendate gogorrik ez dago, baina metro bakarra ere ez dute izango atsedenerako.

"Guztira, 130 boluntario inguru izango dira astelehenean lanean"

GORKA ETXABE UDA KIROL ELKARTEKO KIDEA

Emakumeen Birako hirugarren etapa Aretxabaletako UDA Kirol Elkarteak antolatuko du: "Baina nabarmentzekoa da Oñatikoekin, Aramaiokoekin, Arrasatekoekin... harremanetan jarri garenean jaso dugun erantzuna", dio Etxabek. Astelehenean hainbat herritako 130 boluntario inguru ibiliko dira lanean.

Ibilbide ederra prestatu duzue Biraren hirugarren etaparako.

Mankomunitatetik UDARA proposamena iritsi zenean, ziklismoazaleak garbi geneukan lasterketa zikloturistok horren gogoko dugun Aramaioko bialarara eraman behar genuela, auzoetara. Aramaio Debagoiena dela aldarrikatzeko modua ere bada, baina baita paraje aldetik ederra delako ere.

Jaitsieraren bat kontuz egitekoa du.

Bai, kontziente gara Etxaguen eta Aretxabaleta arteko zatian errepidea ez dagoela ondo. Baina Gabonetan Birako zuzendariarekin egin genuen ibilbidea, eta Bizkaia Durango-Euskadi Murias taldekoek ere

erreparatu dute etapa, eta ez dute apartekorik aipatu, polita dela, eta gogorra. Egun horretan zuzendariari esan beharko diegu tarte horretan abisua pasatzeko ziklistei, kontuz jaisteko.

Ihesaldiendako etapa aproposa da.

Bai; lehenengo 50 kilometroak lautadan egingo dituzte, Aretxabaleta eta Oñati artean, baina Aramaiora sartzen diren momentuan tropela apurtu egingo da. Etxaguen, Azkoagatik Untzilla, Arlaban, Kruzeta... etengabeko gorabeherak daude hor.

Zaleendako gomendioa: non ikusiko zenuke etapa?

Irteera eta helmuga Aretxabaletan ikusiko nituzke, giro polita egongo da-eta herrian. Hor, herritarrei pazientzia izateko eskatu nahi diegu, aparkalekuetan, errepide mozketetan... eragina izango du eta. Eta, etapa erdian, Aramaio aldera joango nintzateke, ziklistak igoeraren batean ikustera.



ARTEMAN

"Oso haserre" dagoen UDAk jokatzearabaki du

FUTBOLA Gorabehera handiko astearen ondoren, Gipuzkoako Federazioak eguazten eguerdian jakinarazi zion UDARI, mailari eusteko promozio partidua Antzuolak beharrean Aretxabaletak jokatu duela: "Bi klubek idatzi bateratua egingo dugu"

Xabier Urzelai ARETXABALETA
Erregional Preferenteko Aretxabaletak mailari eusteko promozio partidua jokatu beharko du, eta klubak onartu egin du partidua hori jokatzearabaki du. Ez da erabaki erraza izan, UDAko zuzendaritza lau orduz egon zen eta batzartuta eguazten ilunkeran, Federazioaren partetik berri txarra eguerdian jaso eta gero. Izan ere, astelehenean Federazioak adierazi zien Antzuola zela promozio hori jokatu behar zuena, eta bi egun baino ez dituzte izan partidua hori prestatzeko. Bada, beste multzoko Ostadarrek Aretxabaleta izango du aurrean zapatuan, Lasarten (17:30).



Aretxabaleta eta Antzuola, Erregional Preferenteko derbi batean. GOIENA

Baina, zer gertatu da?
Bi klubetako ordezkariak haserre eman dute astea, jakinda beste klubak ez duela inongo kulparik. Azken jardunaldia hiru talderen arteko berdintarekin amaitu zuten: Antzuola (32), Aretxabaleta UDA (32) eta Antzuola (32). Eta berdinketa hirukoitz horren aurrean araudiaren interpretazio ezberdinek ekarri dute zalantza eta ikamika. Hori gutxi balitz, Federazioak Aretxabaleta aurretik geratu dela esateak eta ondoren sailkapen ofizialean egoera bestelakoa zela erakustek ez du lagundu.
Hala, klub bakoitzak araudiaren interpretazio propioa egiten eman du astea, eta, GOIENAK jakin duenez, Federazioako ordezkarien artean ere kontua ez da garbi egon. Bada, Euskadiko eta Espainiako futbol federazioekin kontsultatu ostean etorri da Antzuolaren aldeko erabakia, eguazten eguerdian: "Uste dugu Gipuzkoako Federazioak errespetu falta handia izan duela bi klubetik; eguazten eguerdian Antzuolako presidentearen bitartez jakin genuen albiste txarra, eta ondoren jaso genuen

ARETXABALETAK EZ DU ATZERAPENIK ESKATUKO, EZTA ERREKURTSORIK AURKEZTUKO ERE

guk berria. UDAkoak oso amorratuta gaude, uste dugu Federazioak ez duela jakin arazo hau azkar konpontzen", adierazi du UDAko presidente Agurtzane Elkorok.

"Idatzia egingo dugu"
Logikoa den moduan, Antzuolan poztasunez hartu dute albiste, baina, hala ere, Aretxabaletarekin batera Federaziora idatzi bateratua bidaltzea erabaki dute: "Ulertzen dugu aretxabaletarren haserre, gu ere egoera berberean egon gintezkeelako", adierazi du Antzuolako kapitain Ibai Zabalkok.
Hala, behin erabakia hartuta, Aretxabaletak ez dio gai honi buelta gehiago eman gura, ez dute atzerapenik eskatuko, ezta errekurtsorik aurkeztuko ere: "Gaur [eguna] egongo gara jokalariekin eta azalduko diegu

zein izan den zuzendaritzaren erabakia. Badakigu ez dela halako promozio bat jokatzeko baldintzarik onena, ezta gutxiago ere. Baliteke amorrua kanporaketa ona egiteko motibagarri izatea, edota oso partidua txarra egitea, denerako egongo gara gertu. Eta ondoren idatzi bateratua egingo dugu Antzuolarekin. Baina datorren astean izango da hori, Emakumeen Bira antolatzen ere badabilelako UDA, eta horra bideratu gura ditugu indarrak. Amaitzeko, zorianak Antzuolari! Eurek ez dute inongo errurik honetan guztian, ezta Ostadarrek ere".

Ordizia mailaz igotzera dator
Bestalde, Ohorezko Erregional mailan, Bergarak Donostian jokatu du gaur (21:00etan, Vasconiaren kontra), eta Mondrak Hernanin (zapatua, 16:30). Aretxabaletako talde nagusiak, berriz, kategoriako liderra hartuko du Ibarran (domeka, 16:30), Hirugarren Mailara igotzeko asmoz datorren Ordizia (69) –autobusa antolatu dute–. Hala, berdinketa batekin ere nahikoa dute mailaz igotzeko, eta Pasaia (66) derrigor irabazi behar du.

ASTE BUKAERAKO HITZORDUAK

FUTBOLA	GIPUZKOAKO 3. MAILA	GIPUZKOAKO KOPA
OHOREZKO ERREGIONA	Barrantol-Mondrate Gaur. 20:30. Tolosa.	Arrasate-Bergara Zapatua. 11:30. Iturripe.
Vasconia-Bergara Egubakoitza. 21:00. Dono.	SASKIBALOIA	TXIRRINDULARITZA Infantil mailako lasterketa. Zapatua. 16:30. Aretxabaleta.
Hernani-Mondra Zapatua. 16:30. Zubipe.	SENIOR LAUKO FINALA	TXIRRINDULARITZA
Aretxabaleta-Ordizia Domeka. 16:30. Ibarra.	Alkideba Ointxe!-Zast Zapatua. 16:00 Iturripe.	EMAKUMEEEN BIRA
ERREGIONAL PREFERE.	Alde Zaharra-Dolphins Zapatua. 18:00 Iturripe.	Astelehena, 15:30ean, Aretxabaletak Durana kalean.
Ostadar-Aretxabaleta Zapatua. 17:30. Lasarte.	JUNIOR PARTAIDETZA	GOTIBEHERRAK
ERREGIONALA IGOERA	Aloña-Grupo EME Zapatua. 16:00. Zubikoa.	BERGARAKO JALETAN
Usurbil-Aloña Mendi Zapatua. 16:30. Usurbil.	Bergara Soralu-Take Gaur. 17:30. Labegarieta	Domeka. 15:30. San Martzialgo jaitziera.
GAZTEAK, IGOERA	KADETEAK GIZONEZK.	PILOTA
Santo Tomas-Antzuola Zapatua. 15:30. Donostia.	Aloña Mendi-Zast Zapatua. 12:00. Zubikoa.	BERGARA HIRIA
EMAKUMEZKOEN IGOE.	MU C-Cafes Aitona Zapatua. 12:00. Musako..	Astelehena, 18:30ean hasita, gizonetzkoen eta emakumezkoen finalak.
Eibar-Bergara Zapatua. 16:00. Unbe.	ESKUBALOIA	HERRI ARTEKO TXAP.
EMAKUMEZK, KOPA.	GIPUZKOAKO KOPA	Bidania Goi-Aloña M. Zapatua. 18:00. Bidania.
Aloña Mendi-Urola Zapatua. 18:00. Azkoaga.	Sesi. Aloña-Ormaiztegi Domeka. 12:00. Zubikoa.	GIMNASIA ERITIMIKOA
ARETO FUTBOLA	Soraluce BKE-Urola Zapatua. 20:00. Labegar.	Domekan, 20:00etan, Bergarako San Martin plazan.
MAILA NAZIONALA	Ford Mugarri-Elgoibar Domeka. 11:30. Iturripe.	
Internacional-UDA Domeka. 12:10. Donostia.		

ARETO FUTBOLA Azkenak, baina azkenera arte amore eman barik

Maila Nazionalean denboraldi bat egin eta gero, domekan agurtuko dute kategoria Aretxabaleta UDAko mutilek. Donostian izango da azken partidua, 12:10ean, liga seigarren postuan amaituko duen Internacionalen kontra. Nahiz eta hamahiru partidua jarraian galdu, ez dute amorarik eman; joan den astean, 3-6 irabazi zioten Soloarteri.

SASKIBALOIA Asier de la Iglesia fitxatu du Delteco GBC taldeak

Urteetan Aloña Mendiko talde nagusiko jokalaririk izan zen Asier de la Iglesia taldea fitxatu du Delteco GBC taldeak. De la Iglesia urteak daramatza esklerosi anizkoitzari aurre egiten –Ordizian jokatzeko du egun, EBAn– eta gaixotasuna ezagutzera emateko asmoz egindako fitxaketa da. De la Iglesia, horrela, ACBn debutatu egiteko aukera izango du etzi.

MENDIKO BIZIKLETA Igantziko DH proban, ibarrekoak aurrean

Asteburuan Igantzian egin zuten DH edo bizikleta jaitzieren lasterketa. Kadetetan, Jon Larrea lehenengoa izan zen, Ibon Odriozola bigarrena eta Unai Larrea bigarren izan zen 23 urtez azpikoetan. Txomin de Vega, berriz, scratch-ean hirugarren izan zen, eta master 30 kategorian irabazile. Eta Manu Castro ere lehenengoa izan zen bere kategorian.

PILOTA Irribarriak eta Rezustak bikotea osatuko dute Bergaran

Pentekoste jaien barruan, pilotari profesionalen jaialdia prestatu dute martitzenean Bergaran (17:00). Lehenengo partiduan, Retegi Bik eta Erostarbek Mendizabal III.aren eta Merinoren kontra jokatu dute eta partidua nagusian, Irribarriak eta Rezustak bikotea osatuko dute Ezkurdiaren eta Zabaletaren kontra.

Suak kiskalitako musika altxorra eta "topagunea"

Shot! estudioan kalte handiak sortu zituen egubakoitz goizean izandako suteak; aparailuez gainera, urteetan egindako grabaketen master-kopiak galdu dira. 1994an jaiotako estudioa, herrian, eta, orokorrean, Euskal Herrian "erreferente" da gaur egun

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Tristura handia sortu zuen herrian eta, orokorrean, herriko mugak gaindituta, musikazaleen eta musika industriakoen artean, egubakoitz goizean Shot! grabazio estudioa erre izanak. Hiru parketako suhiltzaileak joan ziren: Zubillagakoak, Arratekoak eta Korostikoak; hala ere, ezin izan zuten askorik salbatu.

1994an sortu eta oraindik ere San Andres auzoan dagoen estudioak, Iñaki Bengoaren gidaritzapean, musikarekin lotutako zeregin askotan jardun du: askotariko grabazioak eta ekoizpenak egiteaz gainera, zuzeneko emanaldietan eta musika-aholkularitza ere eskainiz. Grabazio estudio edo lantokiaz gainera, garai batean Gosereren eta gaur egun Anita Parker taldearen etxea, entsegu-lokala, ere bada Shot!

Zenbatu ezineko kalteak

10:30ean hasi zen sutea, eta oraindik ere gertakariaren arrazoia aztertzen ari diren arren, estudioko arduradun Iñaki Bengoak kontatu du "bulegoan" sortu zela sua, itxura guztien arabera, eta handik zabaldu zela gero, estudio osora. Bezperan La Furiaren kontzertuko soinu teknikari lanetan ibili zen Bengoa, eta



Anita Parker taldearen diskoak erreta, Shot! estudioan. MAUKA MUSIKAGINTZA

sutea sortu zenean etxean zen oraindik; ez zegoen inor lokal barruan, eta alboko lokalekoek eman zuten abisua. "Dolua pasatzen ari naiz poliki-poliki; oraindik [martitzenean] ez naiz sartu estudioan, lagunak ari dira hango gauzak uzten eta perituarekin harremanetan".

Segituan zabaldu zen berria sare sozialetan eta bestelako agerkari digitaletan, eta asko dira Bengoa jasotzen ari den elkartasun mezuak. "Ikaragarria da jaso dudana laguntza eta elkartasuna; banekien lagun asko

nituela, baina ez nuen uste horrenbeste eta horren onak zirenik. Denetik eskaini didate, eta oso eskertuta nago. Kalteen kopurua ez dago jakiterik, oraingoz, baina ia dena galdu da: tresneriaz gainera, urteetan egindako grabazio masterrak".

Grabazio estudioa baino harago Sona handiko eta talde askoren lanak grabatu dituzte: RIP, Potato, Gatillazo, Soziedad Alkoholika, Des-kontrol, Su Ta Gar, Audience... Eta musika taldeetara eta rock estilora mugatu

barik, Arrasateko bestelako kultura sortzaileen bilduma asko ere ekoiztu dituzte; horregatik, bada, samina sumatzen da herrian eta kanpoan. "Shot! erreferente da Euskal Herrian. Eta, nola ez, gertatu dena galera da Arrasaterendako. Onena besterik ezin diogu opa", dio Arrasateko Kultura teknikari Jon Garaik, eta zera kontatu dio GOIENARI Baga-Biga musika ideiak ekoiztetzeko Ritxi Aizpuruk: "Suak dakarrena keak darama; kantuetan emandakoa diskoetan geratzen da. Suak ekarri duen hondamendia estali dezatela grabazio berriek Iñaki Bengoaren eskutik". Eta zera dio Arrasateko musikazale eta Bengoaren aspaldiko lagun Iker Barandiaranek: "90eko hamarkadatik gaur egunera arte Arrasaten izan diren esperientzia askoren sorleku eta lekuko izan da Shot!; estudio bat baino gehiago topalekua izan da eta. Gauzei erreparatzen diegu galtzen edo kaltetzen direnean; ea gai garen buelta eman eta segida ematen".

Musikariaren partetik ere, mezu gozo ugari, horien artean, Arrasateko Anger taldearena: "Musika munduan halako jakintza duten pertsonekin lan egitea aberasgarria da. Pauso bat aurretik ibili dira beti Shot! estudioko lagunak".

Eta orain zer?

Etorkizunaz galdetuta, oraingoz ez duela ezer finkatuta dio Bengoak: "Musikari dagokionez, oraingoz, nire bi neskatan -Anita Parker eta La Furia- jarriko dut indar guztia. Asteburu honetan birritan igoko gara agertokira: gaur, egubakoitza, Bergarako txosnetan, 23:00etan, eta zapatuan, Cascanten, La Furiaren herrian".

Sari nagusia Orozko eta Gasteiz artean banatu da

Atzo egin zuten, Arkupen, Euspot euskarazko iragarkien lehiaketako sari banaketa ekitaldia

A. A. ARETXABALETA

Antolatzaileak pozik daude aurtengoak emandako emaitzekin: 73 spot jaso dituzte Euskal Herriko txoko askotatik; *Euspot.eus* atarian daude ikusgai.

Spotik onena erabakitzeke berdinketa egon zenez, sariaren 1.000 euroak Orozkoko Nora Lataturen eta Gasteizko Andoni Martinez de Madinak, Ieneko Ruiz de Azuak eta Iratxe Agilerak osatutako taldearen artean banatu zituzten. Latatuk *Gizaki programatuak* aurkeztu zuen eta Gasteizko hirukoteak, *Sare sozialekin liorik ez* izenekoak.

Ez zen izan, baina, Orozkokoak eraman zuen sari bakarra; MUKO ikasleen spotik onenarena ere -500 euro- *Gizaki programatuak* iragarkiak lortu zuen.

Publikoaren boto gehien, berriaz, Eskoriatzako Danel Charrok, Oihana Benitok eta Lierni Castillak egin duten *Ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez dago* izenekoarentzako izan dira.

Gazteen BHKlip saria, Arrasateko Oihan Loiti Iraolarentzako, *Izan zu zeu, baita digitaletan ere* spotagatik; eta Music Library saria, Aretxabaletako Lorea Otaduik, Markel Bazanbidek eta Beñat Abasolok, *Deskonektatu konektatzeko* lanarekin.

PAZKOAK 2018

GOIENA TELEBISTA | HEMEN DEBAGOIENA | JAIK: PAZKOAK 2018, BERGARAKO JAIK

MAIATZAK 21 ETA 22, 18:00, 20:00, 22:00

GOIENA TELEBISTA | JAIK: PAZKOAK 2018, BERGARAKO JAIK

MAIATZAK 23, 21:00 ETA 23:00

goiena
Zu hemen zaude.



Etorkizunera bidaiatzeko txartela Amaia antzokitik

Logela Multimedia antzerki taldeak 'Drag-e uraren bila' ikuskizuna eskainiko du etzi, domeka, Amaia antzokian, 17:00etan —sarrera bost euro da—; hainbat diziplina uztartzen dituen emanaldia da, eta, aktore eta dantzarietz gain, bi robot ere badaude

Eneko Azurmendi ARRASATE

"Ordubete inguru irausten duen emanaldia da eta hainbat diziplina uztartzen ditu: antzerkia, dantza, bideo animazioa, interakzioa, musika eta, berrikuntza modura, robotika ere bai. Dantzari eta aktoreez gain, bi robot ere ariko dira oholtza gainean", azaldu du Ander Garaizabalek, Logela Multimediako kideak.

2800. urtean girotutako istorio bat kontatzen du ikuskizunak. Hori dela eta, roboten presentzia beharrezko ikusi zuten. "Bage-neukan istorio bat kontatzeko gogoa eta istorio horrek eskatzen zuen robotak egotea oholtza gainean. Ikerketa-lan baten ostean, irten dira robotak, eta emaitzarekin oso pozik gaude", dio Garaizabalek.

Istorioari dagokionez, etorkizuneari girotuta egon arren, aktualitatearekin lotuta dago. "Fokua jarri dugu natura zain-tzeko behar horretan. Natur baliabideak agortu egiten dire-



Ikuskizuneko une bat. LOGELA MULTIMEDIA

la jakinarazi nahi diegu umeei, eta beste hainbat mezu ere helarazten saiatzen gara ikuskizunaren bidez".

Lau lagun dira, bi pertsona eta bi robot. Ura lortzeko misio batean daude. Badago Sara ize-

neko ikerlari bat eta hark dar-rama misioaren pisua. Ura lortzeko, natura ulertu eta maitatu beharko dute.

Harrera ona

Duela zortzi hilabete estreinatu zuten ikuskizun hori eta dagoeneko hamabost emanaldi eskaini dituzte. Gustura daude izandako harrerarekin. "Umeak lehenengo momentutik lilurata geratzen dira eta komunera joateko ere ez dira altxatzen. Gurasoek ere ondo pasatzen dute ikuskizunarekin".

Ikastetxeekin lanketa

Emanaldiaz harago, hainbat ikastetxerekin lanketa berezia egiten ari dira, "naturaren aldeko mezua zabaltzeko". Hala, ikastetxeetara hazi batzuk bidaltzen dituzte eta planteatzen dutena da ikasleek hazi horiek ereitea eta jarraipena egitea. Arrasate Herri Eskolan, adibidez, landatu dituzte dagoeneko.

Jaurlaritzak EAEko herritarren kultur ohiturak aztertu ditu

Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 18 urtetik gorako 1.973 pertsonari egin die inkesta etxez etxe

E.A. DEBAGOIENA

Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen hizkuntza ohiturak aztertu ditu Eusko Jaurlaritzak, inkesta baten bitartez. Inkestak utzitako emaitzen arabera, biztanleriaren %57k uste du kultur politikek lehenetsun handia izan beharko luketela Jaurlaritzaren politiken artean. "Herritarrek nabarmendu dute kulturak erakunde publikoen babes handia jaso behar duela. Gehienek esaten digute erakundeok era argian babestu behar dugula kultura", adierazi du Bingen Zupiriak,

Kultura eta Hizkuntza Politika-ko sailburuak. Herritarren %80k adierazi dute kulturaren inbertitzeak "asko" edo "dezente" hobetzen duela elkarbizitza, bizikaltatea eta ekonomia.

Emaitzak, arloz arlo

Irakurtzeko maiztasunari dagokionez, herritarren %47k egunero edo ia egunero irakurtzen dute. Hala ere, gutxiengoa dira liburuak euskaraz irakurtzen dituztenak. Irakurtzen dutenentatik %28k irakurtzen dute euskaraz sarritan.

Musikarekiko zaletasuna handia edo nahikoa dutela adierazi dute biztanleen %81k.

Zinemagintzari dagokionez, hamarretik zortzik diote asko edo nahikoa gustatzen zaiela.

Hamar biztanletatik lauk adierazi dute arte eszenikoak —antzerkia eta dantza— asko edo nahikoa gogoko dituztela, eta zenbat eta helduagoak izan, orduan eta zaleago direla.

Bertsogintzarekiko zaletasunaz ere galdetu dute, eta biztanleen %21 dira bertsozaleak. Euskal hiztunen artean, herena. Euskal hiztunen %25 joan da azken 12 hilabeteetan bertsolariak ikustera edo entzutera.

Bestalde, herritarren %40k diote museo eta erakusketetara joateko zaletasuna dutela.

Azkenik, praktika kulturalen bat egiten dutenak %20 dira.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko maitezko sariak!



Doctor Deseo
taldearen liburua
+ diska

Parte hartzeko sariaren izena:
doctordeseo



Sarrerak
Arrikutz kobak bisitatzeko,
sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikutz

ARRIKUTZ
GARAIZABALEK



Otarrea
Bidezko merkataritzako
produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarrea

www.hanemamendi.a.eus
Emanaldiaren maiztasunak

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoa: klub@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "sariaren izena"
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Inkiden dagoen (07/15/2018) lehen ordua, geroztik dagoen bakoitza pertsona bakoitzari zuzenean bidaltzen da. Zozketaren itzulpena zuzenean bidaltzen da. Zozketaren itzulpena bidaltzen da inkiden dagoen bakoitzari zuzenean.
Eskubideak: goiena.eus, klub@goiena.eus, 688 69 00 07 zenbakia.

Irabazi bi lagunendako otordua

ITURRIETA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu parte!



943 25 05 05



klub@goiena.eus



KLUBA Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

Irabazi bi lagunendako sarrerak

Arrasateko Udalari esker

"Not Simons" abeslariaren kontzerturako sarrerak ditugu.

Arrasate | Amaia Antzokiaren halla | Maiatzaren 26an | 20:00etan

PARTE HARTZEKO: MAIATZAREN 23A

Posta elektronikoa: klub@goiena.eus **Whatsapp:** KLUBA "Kontzertua"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Inkiden dagoen (07/15/2018) lehen ordua, geroztik dagoen bakoitza pertsona bakoitzari zuzenean bidaltzen da. Zozketaren itzulpena zuzenean bidaltzen da. Zozketaren itzulpena bidaltzen da inkiden dagoen bakoitzari zuzenean.
Eskubideak: goiena.eus, klub@goiena.eus, 688 69 00 07 zenbakia.



Puntua aldizkaria
jasotzeko,
zozketetan parte
hartzeko eta txartelaren
abantailez gozatzeko...



Bazkidetu orain 2018ko 56€ ordainduta.
Deitu: 943 25 05 05. klub@goiena.eus

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Bergara. 70 metro koadroko etxebizitza salgai Martoko kalean. Sukaldea jantzi berria, estreinatze-ko. Bainugela, hiru logela eta trastelekua. Guztia berritua. Eguzkitsua. Gellek eta bainugelak kanpora ematen dute. Igogailua. Teilatua eta fatxada isolamendu energetikoz hornitu berriak. Aukera ona. 688 63 36 26

Bergara. Matxiategi kalean, 120 metro koadroko etxebizitza salgai. Bost logela, bai komun, sukaldea eta egongela. Igogailua eta berokuntza. Telefonoa: 645 00 56 81

103. ERRENTAN EMAN

Eczaray. Eczaray erdialdean, hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea dituen etxebizitza errentan ematen da. Telefonoa: 607 84 86 73

104.ERRENTAN HARTU

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan. Pre-sazkoa da. 696 84 19 51

Debagoiena. Etxebizitza behar dut errentan. Bi edo hiru logelakoa. Berdin da jantzi barik badago edo igogailurik ez badu ere. Hilean gehienez 500 euro ordain ditzaket. Lana daukat. 632 77 35 38

Oñati. Etxebizitza behar dugu errentan Oñatin, abuztuan. 654 12 89 95

105. ETXEAQ OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan. Telefonoa: 659 05 53 65

4. LANA

401. ESKAINTZAK

ARRASATE

Esperientziadun sukalde laguntzailea behar da asteburuetarako Meneta tabernan. 943 79 65 31

402. ESKAERAK

Arrasate edo Bergara. Gauetan nagusiak zaintzeko gertu nago. Telefonoa: 632 70 04 60

Arrasate. Neska gertu etxeetan garbiketa lanak egiteko. 667 88 69 79

Bergara. Nagusiak zaintzen, garbiketan, sukaldaritzan eta abarrean lan egingo nukeen emakumea naiz. 612 47 87 68 edo 615 73 68 07

Debagoiena. 16:00etatik aurrera nagusi edo umeak zaindu eta garbiketak egiteko gertu nago. 634 26 10 92 (Ana)

Debagoiena. Emakume arduratsua gertu nagusiak zaintzeko, arratsalde, gau eta asteburutan. Etxeko garbiketa lanak ere egingo nituzke. Esperientzia daukat plantxa egiten eta sukaldean. 631 86 83 69

Debagoiena. Emakume euskalduna gertu nagusiak zaintzeko, klinika laguntzaile titulua erekin. 632 40 41 01

Debagoiena. Emakumea gertu etxe, baserri eta abarretan garbiketak egiteko. 631 92 87 66

Debagoiena. Etxeko lanak egiten eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Lisatzen eta eskuz josten ere bai. 631 18 49 03

Debagoiena. Garbiketan, zaintza lanetan, tabernan, sukalde laguntzaile moduan edota lantegian aritutako neska lan bila. Soziosanitario titulua daukat. 634 84 41 94

Debagoiena. Gizona gertu atari, taberna edo etxean garbiketak, banaketak, baserri lanak, etxeak hustu, nagusiei lagundu edota bestelako lanak egiteko. Autoa daukat. 632 77 35 38

Debagoiena. Lan ezberdinetan aritutako neska lan bila: ume eta nagusiak zaintzen, lantegian, garbiketan eta abarrean. Bergara eta Eskoriatza artean lan egingo nuke. 696 84 19 51

Debagoiena. Mutila gertu nagusiak zaintzen,

garbiketan edota zerbitzari moduan jarduteko. 632 70 04 60

Debagoiena. Mutila gertu orduka nagusiak zaindu eta laguntzeko, baserriko lanak egin eta abarretarako. Autoa daukat. 662 43 08 54

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke. Gida-baimena daukat. Bana-tzaile edo bestelako lanetan ere arituko nintzateke. 631 98 15 50

Debagoiena. Neska arduratsua etxeko lanak egin edota ume eta nagusiak zaintzeko gertu. Telefonoa: 631 37 82 84

Debagoiena. Neska arduratsua gertu etxeko lanak egin eta ume zein nagusiak zaintzeko. Telefonoa: 631 06 74 61

Debagoiena. Neska arduratsua nagusiak zaintzeko lan bila. Etxean bertan bizi izaten edo bestela. 602 02 78 81

Debagoiena. Neska arduratsua, erreferentzia onekin, lan egiteko gertu. Baserrietan, garbiketan. Nagusiak zaintzeko eta soziosanitario titulua, gidabaimena eta legezko agiriak daukat. Telefonoa: 680 87 38 66

Debagoiena. Neska espainiarra gertu astean zehar eta asteburuetan gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientziaduna. Telefonoa: 661 15 11 29

Debagoiena. Neska euskalduna prest adineko pertsonak zaintzeko. Eskarmendua daukat. Telefonoa: 686 72 88 97

Debagoiena. Neska gertu etxean bertan bizi izaten nagusiak zaintzeko. Berehala hasteko moduan. 632 70 04 60

Debagoiena. Neska nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Umeak ere zainduko nituzke. Dokumentazioa eta profesio-naltasun ziurtagiria daukat. 662 02 45 80

Debagoiena. Orduka zein etxean bertan bizi izaten nagusiak zainduko nituz-

ke. Titulua, legezko agiriak eta gomendio gutuna daukat. Gainera, bulego, etxe, sukalde eta abarren garbiketak ere egingo nituzke. Baita sukalde laguntzaile moduan ere. 612 20 35 71

Debagoiena. Umeak zaintzeko gertu nago. Itzulpena eta interpretazioa ikasten dut gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. 632 77 22 13

Haurrak zaindu Bergaran. Haur Hezkuntzako ikasketak dituen 27 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zainduko nituzke udan. Esperientzia handia daukat. Telefonoa: 680 17 33 61

Zaintza lanak. Nagusi eta umeak zainduko nituzke. Etxez etxeko laguntzaile titulua daukat. Oñatin, Arrasaten edo Bergaran lan egingo nuke. Telefonoa: 680 63 67 80

Zure haurrak zaintzeko prest! 30 urte dituen neska Bergararra naiz. Haur hezkuntzako ikasketak ditut. Hurrekin lan egitea oso atsegin dut eta esperientzia zabala daukat. Pertsona arduratsua naiz, arteaz eta naturaz gozatzen duena. Telefonoa: 635 20 76 90

7. ANIMALIAK

703. EMAN

Txakurkumeak. Arratoi txakurkumeak ematen dira opari, Bergaran. 685 75 86 49 (Aranbxa)

8. DENETARIK

801. SALDU

Balkoiak. Etxea uzteagatik, hiru balkoi oso (bi atekoa bakoitza) saltzen dira. Haritz egurrezkoak, Climalit klistal bikoitze-koak. Egoera oso onean. 656 71 04 11

Lursailak. Aretxabaletan lursailak saldu edo errentan emateko. Telefonoa: 618 76 34 40

802. EROSI

Arrasate eta inguruak. Lursaila erosiko nuke. Telefonoa: 680 53 76 16

Umeendako mahai borobila. Marrasteko umeendako bigarren eskuko plastikozko mahai borobil baten bila gabiltza. Bergaran. 635 20 18 56 edo 943 76 25 94

803. EMAN

Bainuontzia. Umeendako plastikozko nahiko handia den bainuontzi urdina oparitan eman nahi dugu. 635 20 18 56 edo 943 76 25 94

808. BESTELAKOAK

Ortua errentan hartu. Aretxabaletan ortu biki bat egiteko lursail bat hartuko nuke errentan. Erosi ere egingo nuke. 606 56 97 49

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



GOIENA

ELIKADURA OSASUNTSUARI BURUZKOAK

'Elikatu' Egubakoitza, 21:00



GOIENA

BERGARAKO PAZKOEK EMANDAKOA

'Jaiak' Eguaztena, 21:00

EGUBAKOITZA, 18

10:00 Hemen Debagoiena
11:00 Onein: Orburuak
11:30 Hemen Debagoiena
12:30 Hurretik: Marije Ugalde
13:00 Kantari 26
13:30 Hemen Debagoiena
14:30 Albisteak
14:45 Galdegazte: Josune Arakistain
15:15 Hemen Debagoiena
16:15 Albisteak
16:30 Onein: Orburuak
17:00 Albisteak
17:15 Amaia DJ
17:45 Albisteak
18:00 Hemen Debagoiena
19:00 Kantari 25
19:30 Hurretik: Marije Ugalde
20:00 Hemen Debagoiena
21:00 Elikatu
21:30 Amaia DJ
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Galdegazte: Josune Arakistain
23:30 Amaia DJ

ZAPATUA, 19

09:00 1 2 3 Hemen da miru
09:30 Kantari 28
10:00 Kantari 27
10:30 1 2 3 Hemen da miru
11:00 Hemen Debagoiena
12:00 Erreportaje: Biki bizi
13:00 Adi! Iskanbila: Iker Piris
13:30 Hurretik: Marije Ugalde
14:00 Galdegazte: Josune Arakistain
14:30 Elikatu
15:00 Hemen Debagoiena
16:00 Kulturriketak: Kike eta Amuriza
16:30 Kantari 28
17:00 Kantari 27
17:30 Amaia DJ
18:00 Galdegazte: Josune Arakistain
18:30 Elikatu
19:00 Astearren errepasoa
20:00 Kantari 27
20:30 Amaia DJ
21:00 Erreportaje: Biki bizi
21:30 Hurretik: Marije Ugalde
22:00 Hemen Debagoiena
23:00 Galdegazte: Josune Arakistain

DOMEKA, 20

09:00 1 2 3 Hemen da miru
09:30 Kantari 27
10:00 Kantari 28
10:30 1 2 3 Hemen da miru
11:00 Galdegazte: Josune Arakistain
11:30 Amaia DJ
12:00 Astearren errepasoa
13:00 Hemen Debagoiena
14:00 Elikatu
15:00 Adi! Iskanbila: Iker Piris
15:30 Galdegazte: Josune Arakistain
16:00 Amaia DJ
16:30 Kantari 27
17:00 Kantari 28
17:30 Hemen Debagoiena
18:30 Elikatu
19:00 Erreportaje: Biki bizi
20:00 Kantari 28
20:30 Galdegazte: Josune Arakistain
21:00 Hurretik: Marije Ugalde
21:30 Kulturriketak: Kike eta Amuriza
22:00 Astearren errepasoa

EGUBAKOITZA, 18

IKUS-ENTZULEEN BIDEOKLIPAK

'Amaia DJ'

21:30

ASTE BUKAERAN

KARAOKE IKUSKIZUNEKO UMEAK

'Kantari'

09:30/16:30



GOIENA TELEBISTAKO PROGRAMAZIO OSOA: **goiena.eus/telebista** Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

ASTELEHENA, 21



GOIENA

EMAKUMEEN BIRARI BURUZKOAK

'Harmailatik'

21:30, 23:30

EGUNERO

EGUNEKO ALBISTE NAGUSIAK

'Gaurkoak'

14:30/16:15/17:00/17:45

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

• Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.

• Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.

• GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu. Animaliak/Saldu. Denetarik/Saldu.
- Iragarkiak Goiiena paperean eta Goiiena.eus-en argitaratuko dira.
- Astebeteko prezioa: 17 euro 15 euro Goiena Klubeko bazkideentzat (BEZ barne).
- Astebete baino gehiagaz argitaratzeko, prezio bereziak aplikatuko dira.
- Profesionalen moduluak. Modulo bakarra: 22 euro (+BEZ).

OROIGARRIA



Maritere Arregi Letamendi

Imanol Mondragonen alarguna

2018ko maiatzaren 10ean hil zen, 85 urte zituela.



Etxeurreko okaranak loran
Zirolako parajeetan
Altzan jaio artzubitarra
Zerrajeran gaztaroan
Bizitzaren bidezidor

Estu eta zabaletan
Borrokalaria hutsa
Aldarte ta umorean
Beti gordeko zaitugu
Gure bihotzean.

Etxekoak.
Arrasaten, 2018ko maiatzaren 18an.

ESKER ONA



Maritere Arregi Letamendi

Imanol Mondragonen alarguna

2018ko maiatzaren 10ean hil zen, 85 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Arrasaten, 2018ko maiatzaren 18an.

ESKER ONA



Maria Pilar Garmendia Agirre

2018ko maiatzaren 10ean hil zen, 89 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko, sendikoen izenean.

Hitzak gubxi dira nolakua ziñan jakiteko
zortea izan dugu ama eta amamatzat euki zaitugulako,
beti pozik gogoratuko zaitugu...
Mila esker erakutsitakoagatik,
negatiboa positibo bihurtzen zenuen...
Maite zaitugu, ama, amama
agur eta bidala ona izan.

Bergaran (Osintxu), 2018ko maiatzaren 18an.

OROIGARRIA



Iñaki Bereziartua Odriozola

2008ko maiatzaren 17an hil zen.



Denbora aurrera doa, aita;
hamar urte zu gabe, jada.
Baina urteak joan ahala,
aldatzen ez den zerbait bada:
zure lezioek aurrera egiteko ematen diguten indarra.

Arrasaten, 2018ko maiatzaren 18an.

ESKER ONA



Jose Mondragon Elorza

2018ko apirilaren 27an hil zen, 89 urte zituela.



Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi,
hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.

Ondra meza zapatuan, maiatzaren 19an, izango da, 19:30ean,
Oñatiko agustindarren elizan.
Bertaratuko zaretenoi aldeztu aurretik eskerrik asko.

Oñatin, 2018ko maiatzaren 18an.

ESKER ONA



Juan Plazaola Barrena

Andresa Anduagaren alarguna

2018ko maiatzaren 15ean hil zen, 97 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara etorritakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko, sendikoen izenean.

Bihotz handiko gizona,
guztion eredu eta gidari,
etxean, mendian, kalean,
asko diguzu irakatsi.
Zure irribar eta argiak
gurekin jarraituko du beti.
Asko maite zaitugu, aittaita.

Zure seme-alabak, bilobak eta birbilobak.
Oñatin, 2018ko maiatzaren 18an.

OROIGARRIA



Nerea Altube Arrese

2013ko maiatzaren 17an hil zen.



Beti izango zara gure bihotzetan.

Aretxabaletan, 2018ko maiatzaren 18an.

URTEURRENA



Juan Jose Marin Herrera

Ana M. Cueva Valenzuelaren alarguna

2017ko maiatzaren 22an hil zen, 87 urte zituela.



Urteurreneko meza zapatuan izango da, maiatzaren 19an,
19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin, 2018ko maiatzaren 18an.

URTEURRENA



Agustin Guridi Guridi

2017ko maiatzaren 16an hil zen, 90 urte zituela.



Lehen urteurreneko meza zapatuan, maiatzak 19, 20:00etan,
Araozko San Migel parrokan izango da.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean.
Oñatin (Araotz), 2018ko maiatzaren 18an.

OROIGARRIA



Pepita Telleria Oria

Joxe Martinandiarenaren alarguna

2016ko maiatzaren 18an hil zen, 92 urte zituela.



Bi urte pasa dira joan zinela.
Izan zarenagatik eta erakutsi diguzunagatik
ez zaitugu inoiz ahaztuko.
Ama, asko maite zaitugu.

Etxeko denok.
Oñatin, 2018ko maiatzaren 18an.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE EGUNEZ

Egubakoitza, 18 SANCHEZ ALVAREZ: Santa Marina 32 / 943 79 09 74
Zapatua, 19 ESPAÑOL MORALES: Araba etorbidea 14 / 943 79 18 65
Domeka, 20 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Astelehena, 21 ETXEBERRIA: Zarugaide kalea / 38 / 943 77 16 30
Martitzena, 22 ALBERTO AZKOAGA: Ferrerías kalea 1 / 943 79 15 15
Eguaztena, 23 M. FCA. AZKOAGA: Iturriotz 17 / 943 79 79 99
Eguena, 24 FERNANDEZ: Maisu Aranbarri 1 / 943 79 22 26

BERGARA EGUNEZ

Egubakoitza, 18 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Zapatua, 19 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Domeka, 20 URRITIKOETXEA: Orixondo plaza 4 / 943 76 11 74
Astelehena, 21 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 8
Martitzena, 22 OIARBI: San Antonio 5 / 943 76 11 05
Eguaztena, 23 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Eguena, 24 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

OÑATI EGUNEZ BAKARRIK

Egubakoitza, 18 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 19 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 20 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 21 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Martitzena, 22 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguaztena, 23 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16
Eguena, 24 ANDUAGA: San Lorenzo 3 / 943 78 21 16

ARRASATE GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2018ko abenduaren 31ra arte:
IRIZAR: Erquin 11 / 943 79 12 39

BERGARA GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)
2018 osoan:
MOZOS: Iparragirre 2
943 76 12 15

Gipuzkoako farmazien egutegia
eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa
deskargatu Google Play eta
App Store dendetan.

OROIOLORE

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu



Jakin ezazue
nahiz eta heriotz
asegurua
izan, zuek
nahi duzuen
hileta-zerbitzua
aukeratzeko
eskubide osoa
duzuela.

Lasaitasuna, maitasuna eta laguntza
dut beti zuentzako.

Maribi • Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA

TXUTXU-MUTXUAK

**1. Derbia ikusten eta txalotzen**

Realarekin hitzarmena duten klub guztietako ordezkariak egon ziren Realaren eta Athleticen arteko derbia ikusten. Bailarako ordezkariak ere egon ziren.

2. Ignaziotar Bidea egiten

Argazkikoak australiarrak, argentinarrak eta mexikarra dira. Ignaziotar Bidea egiten, Urbiatik pasa ziren aurreko domekan. Atsedean hartu eta argazkia atera zuten han.

3. Zilarrezko ezteiak ospatzen

Arrasateko Anak eta Eskoriatzako Juan Ignaziok 25 urte bete dituzte ezkunduta. "Zuen alabak oso harro gaude sortu duzuen guztiaz. Bihotzez, zorionak!".

4. Urgaingo ikasleak Anoetan

Anoetan ahalik eta giro onena egote aldera, ikastetxeetara eta klubetara sarrerak bidali zituen Realak. Oñatiko Urgain eskolakoak emakumeen futbolaz gozatzen egon ziren.

5. Pol-Poleko beteranoak

Amezketan Intza izan zen mendizaleek egindako ibilbidea. Eguraldi txarrari aurpegi ona ipinita, dotore ibili ziren Gipuzkoa aldeko paisaiaz gozatzen.

6. Bihar ezkunduko dira

Elena eta David arrasatearrak bihar ezkunduko dira. "Zorionak, bikote! Zoriontsu izan eta ondo ibili eztei-bidaian! Musu handi bat, kuadrillakoen partetik".

7. 50 urte ezkunduta

Begarako Itziarrek eta Fernandok urrezko ezteiak beteko dituzte gaur, maiatzak 18. "Zorionak, aita eta amama, denon partetik. Segi horrela! Asko maite zaituztegu!".

Kontatu, kontatu!

Badakazu ezkontzaren baten berririk? Edo kintada egin duzue eta argazkia erakutsi nahi zenukete? Kontaiguzu eta bidalguzu argazkia!

Posta elektronikoa

Mezua bidali berriak@goiena.eus helbidera, eta idatzi nortzuek, non, noiz, zergatik eta zer ospatu edo egin duzuen.

Ordezkaritzak

Zatoz Goienaren ordezkartzara (Otalora 31, Arrasate) edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Eguazteneko 12:00ak arte jasotakoak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

ZORION AGURRAK



ONATI
Alazne Bolinaga Barrena
Maiatzaren 24an, 6 urte. Zorionak eta patxo handi bat, etxeko danon partetik. Ondo-ondo pasatu zure urtebetetze eguna.



DONOSTIA
Maialen Agirre Pinacho
Maiatzaren 22an, 4 urte. Zorionak eta patxo handi bat Arrasateko amama Andrearen eta Anttoniren, anaia Mikelen, izeba Amaiairen eta osaba Hakanen partetik!



ONATI
Luken Olalde Agiriano
Maiatzaren 21ean, 7 urte. Zorionak, pitusin! Oso ondo pasaizu zure eguna! Muxu pila bat, etxeko guztien partetik.



ARRASATE
Jokin Guzman Orobengoa
Maiatzaren 21ean, 7 urte. Zorionak, maitia! Dagoeneko zazpi urte! Ederto ospatu eguna eta patxo potolo bat aitaxoren, amaxoren eta Oierren partetik.



ARRASATE
Goizane Naranjo Jimenez
Maiatzaren 20an. Zorionak, maitia! Izugarri maite zaitugu. Muxu pila bat! Amatxo, Tomas, aitatea, amama, izeba-osaba Jabi eta Mari, Ibai eta Irati.



ANTZUOLA
Aitziber Etxezarreta Mugica
Maiatzaren 20an, 5 urte. Urte askotarako, sorgintxo! Muxu potolo bat etxeko danen partetik: batez ere, Ainara, Elene, Aitor eta Irati.



ARRASATE
Alaitz Etxebarria Maortua
Maiatzaren 20an, 12 urte. Zorionak! Hamabi dagoeneko. Ondo pasatu egune! Etxeko danon partetik, laztan handi bat.



ARRASATE
Unax Gartzia Dorronsoro
Maiatzaren 20an, 9 urte. Zorionak, Unax! Futbolean primeran zabilzate eta kirolari aparta bihurtu zara. Harro gaude zutaz! Etxeko guztien partetik.



ONATI
Aimar Hernandez Otxoa-Aizpurua
Maiatzaren 20an, 9 urte. Zorionak, txapeldun! 9 urte! Ondo pasatu zure eguna eta muxu handi bat, etxeko danen partetik! Mua-mua!



ONATI
Unai Ibabe Kerexeta
Maiatzaren 19an, 6 urte. Zorionak, Unai! Sei belarri tirakada eta beste hainbeste patxo! Ondo-ondo pasatu eguna, etxeko danon partetik.



ARRASATE
Beñat Alonso Lopez
Maiatzaren 19an, 15 urte. Zorionak, txapeldun! Ederto ospatu eguna eta oso zoriontsu izan, etxekoen partetik. Muxutxuek. Maite zaitugu!



BERGARA
Anartz Azula Errexil
Maiatzaren 19an, 9 urte. Muxu handi bat zure bederatzigarren urtebetetzean, etxekoen partetik!



ARETXABALETA
Niko Ansoategi Valle
Maiatzaren 19an, 3 urte. Zorionak, Niko, zure hirugarren urtebetetzean! Patxo handi bat Paulen, aitaxoren eta amaxoren partetik!



ARETXABALETA
Erik Oribe
Maiatzaren 18an, 27 urte. Zorionak, tio! Egun polita pasatzea opa dizugu. Asko maite zaitugu. Muxu handi bat, Alaineren eta Kenarren partetik.



ARETXABALETA
Iñigo Zuazo Ibarra
Maiatzaren 18an, 43 urte. Zorionak, aitaxo! Ondo-ondo pasatu ezazula zure urtebetetze eguna eta jakin, pilo bat maite zaitugula! Besarkada bat! Izar, Unax eta amatxo.



BERGARA
Maialen Larrinaga Elejalde
Maiatzaren 17an, 8 urte. Zorionak gure etxeko printzesari, familia guztixaren partetik!



ONATI
Unai Askasibar Herrera
Maiatzaren 16an, 8 urte. Zorionak, txapeldun! Ondo-ondo pasatu zure eguna. Muxu handi bat, etxeko danon partetik!



ANTZUOLA
Ane Eraña Belategi
Maiatzaren 16an, 6 urte. Zorionak, maitia! Egun zoragarria pasa dezazula opa dizugu! Patxo pila bat, etxeko danon partetik!



ESKORIAITZA
Alazne Urkia Agirregabiria
Maiatzaren 16an, 11 urte. Zorionak, printzesa. Ondo-ondo pasatu zure eguna, etxeko danon partetik.




BERGARA
Aimar Osa Jimenez
Maiatzaren 16an, 9 urte. Zorionak, Aimar, urte askotarako! Besarkada handi bat eta muxu asko! June, amatxo, aitiba, amama, lehengusina eta izebak.



ARRASATE
Sergio Canales
Maiatzaren 16an, 39 urte. Zorionak, aitaxo! Muxu potolo bat Aitorren eta Alazneren partetik. Asko maite zaitugu!



ARRASATE
Paule eta Oihan Ramirez
Paulek 5 urte, maiatzaren 14an eta Oihanek 7 urte, maiatzaren 21ean. Zorionak, bikote! Ondo ospatu zuen urtebetetze egunak. Etxekoen partetik, patxo handi bana!



BERGARA
Joanes Larrinaga Exposito
Maiatzaren 11n, 4 urte. Zorionak, Joanes Musikari! Ondo-ondo pasatu zure urtebetetzean! Patxo handi bat, laguneren partetik!



ARAMAIO
Anixe Larrañaga
Maiatzaren 10ean, urtebete. Zorionak familixaren partetik!



ARETXABALETA
Xabier Carbajo
Maiatzaren 8an, 5 urte. Zorionak, Xabier! Oso ondo pasatu zure urtebetetze eguna. Muxu asko etxeko danon partetik. Bereziki, Markelena.

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu Goienaren bidez zoriontzeko:

Internet

Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://goiena.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra. Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta egubakoitzean Goiena paperean.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@goiena.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Ordezkaritzak

Etor zaitex Goienaren ordezkariaren batera edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

Martitzeneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 18

OÑATI LHko 5. mailako ikasleekin batzarra
Udako planak zehaztuko dituzte.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARRASATE 'Cruzando caminos' dokumentalaren aurkezpena
Emakume Musulmanen Gizarteratzea Euskadin elkartearen lana. Ostean, solasaldia eta luntxa.
Kulturaten, 18:00etan.

BERGARA 'Bergara Hiria argazki lehiaketa' erakusketa
Gaurtik ekainaren 3ra arte ikusgai.
Aroztegin, 18:00etan.

ARRASATE Altrius magoa
40 minutuko ikuskizun bikoitza egingo du: 18:30ean eta 19:30ean.
Herriko Plazan.

ARRASATE Oliver eta Eva magoak
40 minutuko ikuskizun bikoitza egingo dute: 18:30ean eta 19:30ean.
Maiatzaren Bata plazan.

ELGETA Gure Esku Dago
Ekainaren 10era begira, zapi, kamiseta eta autobus txartel salmenta.
Kultura etxean, 19:30ean.

ARRASATE Bertso afaria
Amaia Agirre eta Aitor Arregi bertsotan.
Alkartu elkartean, 21:00etan.

ARAMAIO Zinema: 'Errementari'
Paul Urkixoren azken lana.
Kultura etxean, 22:00etan.

ANTZUOLA Bertso jaialdia
Igor Elortza, Agin Laburu, Iker Zubeldia, Miren Artetxe eta Oihana Arana bertsotan.
Torresoroan, 22:00etan.

OÑATI The Groves taldea
Rock elektronikoa. Debalde.
Pako tabernan, 22:00etan.

ESKORIATZA Don Inorrez taldea
Bide Ertzean taldeko kantari ohi Imanol Ubedaren proiektu berria.
Zaldibarren, 22:30ean.

BERGARA Nomadak eta Garilak26 taldeak
Pazkoetako emanaldiak.
Txosnagunean, 23:00etan.

BERGARA Sofa, Anita Parker, Turtukiña, Aitor Mu eta Alvva taldeak
Pazkoetako emanaldiak.
Txosnagunean, 23:00etan.

ZAPATUA 19

ESKORIATZA Irteera Aginaga sagardotegira
Olazar erretiratu elkarteoak egun pasa joango dira.
Olazarren, 08:20ean.

OÑATI Mendiko-bizikleta irteera
Oñati-Aretxabaleta (bidegorritik)-Urkulu- Zubillaga-Oñati ibilaldia egingo dute. Ibilbide erraza, erritmo lasaia egiteko. Kaskoa eramatea derrigorrezkoa da.
Zubikoan, 09:00etan.

ANTZUOLA Aiherra-Antzuola eguna
09:00etan, ganadu eta artisau azoka; 11:00etan, aihertarrei ongietorria; 12:00etan, txistularien eta trikitilarien kalejira; 13:00etan, kukumarro lehiaketako sari banaketa; 14:00etan, bazkaria; eta 16:00etan, kantu saioa.
Antzuolan.

ELGETA Aquariumera irteera
Bosgarren mailatik gorakoendako irteera Donostiara.
Mendizaleen plazan, 09:00etan.

ARRASATE 'Naturan jolasean'
10:30ean, ginkana Herriko Plazatik Santa Barbarara; 15:00etan, jolas libreak; 16:00etan, oihal akrobaziekin tailerrak; eta 17:00etan, jolas txokoak.
Arrasaten.

OÑATI Urgain Eguna
11:30ean, jaiaren hasiera eta jolasak kaleetan; 14:30ean, bazkaria Zuazolan; 15:30ean, antzerkia DBHko ikasleekin; 16:00etan, puzgarriak; 17:00etan, gurasoendako jolasak; eta 18:30ean, talde argazkia.
Zuazola institutuan.

OÑATI '2057 Odisea bat kanposantuan'
Debalde.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ARETXABALETA Hiruko saskibaloitxapelketa
Gaztetxoendako ekintza.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ESKORIATZA 'Sukaldaritza hotza' tailerra
Gaztetxoendako ekintza.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ARRASATE Taldekako ginkana
Gaztetxoendako ekintza.
Monterronen, 18:00etan.

ESKORIATZA 'Izarren gaua'
20:00etan, izarrei buruzko azalpenak; 21:30ean, ogitarteko-afaria Elorretan; eta 22:00etan, zeru-behatzea.
Zaldibarren, 20:00etan.

BERGARA Kobrazulo eta Low Cost Deluxe
Pazkoetako kontzertuak.
Irizarko lorategian, 20:30ean.

BERGARA Gatibu
Pazkoetako kontzertua. Debalde.
San Martin plazan, 22:30ean.

OÑATI Bertso jaialdia
Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ekimenaren aldeko saioa. Uxue Alberdi, Amets Arzalluz, Maialen Lujanbio eta Aitor Sarriegi bertsotan. Sarrerak, hamar euro.
Zubikoan, 22:00etan.

BERGARA Atom Rhumba eta Nogen taldeak
Pazkoetako kontzertuak.
Txosnagunean, 23:30ean.

DOMEKA 20

OÑATI Orreagara irteera
Aloña Mendiren eta Nabarralderen eskutik, *Memoria lekuak* jardunaldien baitan.
Postetxeke geltokian, 07:00etan.

ESKORIATZA 'Zazpi elizateen martxa'
Fernando Eskoriatza plaza-Bolibar-Mendiola-Gellao-Apotzaga-Marin-



GOIENA

ELGETA Kantu eta dantza eguna
Elgeta Kantuan-en, Herrixa Dantzan-en eta Elgetako Udalaren eskutik, egun osoko egitaraua. Kantu-jira, kantu-bazkaria eta Herrixa Dantzan ekitaldia, Jainagaren eta Narbaizaren zuzeneko musikarekin.
Etzi, domekan, Mendizaleen plazan, 12:30ean hasita.

Zarimutz-Mazmela-Fernando Eskoriatza plaza ibilbidea.
Fernando Eskoriatza plazan, 07:00etan.

ELGETA Mendi irteera
Ogiaren GR bideko Okina-Saseta-Okina ibilbidea egingo dute Kantsatzeke taldekoek.
Mendizaleen plazan, 08:30ean.

ARAMAIO Gorbeialdeko lagunarteko pilota topaketa
Irekia.
Kiroldegian, 10:30ean.

ELGETA Gure Esku Dago
Ekainaren 10era begira, zapi, kamiseta eta autobus txartel salmenta.
Kultura etxean, 12:30ean.

ELGETA Nekazarien kooperatibaren urteko batzarra
Cooperativa Catolica del Campo-ren batzarra.
Ozkarbi elkartean, 12:45ean.

OÑATI Mini-diskoa eta aurpegia margotzeko tailerra
LHko 3. mailako neska talde batek antolatuta.
Gaztelekuan, 17:00etan.

ARRASATE 'Drag-e uraren bila' antzezlan
Dantza, bideo-animazioa, interakzioa, musika eta robotika bateratzen dituen ikuskizuna, 4 urtetik gorako umeendako. Sarrerak, bost euro.
Amaia antzokian, 17:00etan.

ARETXABALETA Beldurrezko pelikula
Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ESKORIATZA Hockey partidua
Gaztetxoendako.
Gaztelekuan, 17:30ean.

ARRASATE Ping-pong eta mahai-futbol txapelketak.
Gaztetxoendako.
Erdiguneko gaztegunean, 18:00etan.

ESKORIATZA 'La casa de los errores' antzezlan
Panico Escenico antzerki taldearen lana, gazteleraz. Pertsonen egiten dituzten akatsen ondorioei buruzko antzezlan. Sarrerak, lau euro.
Zaldibarren, 19:00etan.

BERGARA Audience taldea
Pazkoetako kontzertua.
Txosnagunean, 19:00etan.

ASTELEHENA 21

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plazan, 12:00etan.

ARRASATE Kultur Aniztasunaren Mundu Eguna
Askotariko ekintzak egingo dituzte: henna tailerra, erakusketa, tailerrak... Aniztasunaren argazkia ere egingo dute.
Seber Altuben, 18:00etan.

BERGARA Ahozkotasuna eta bertsolaritza
Ikasturte amaierako saioa egingo dute LHko 4, 5, eta 6. mailetako ikasleek.
Santa Anan, 17:00etan.

ARETXABALETA Trikiti eta pandero emanaldia
Leizarra musika eskolakoen eskutik.
Arkupen, 18:00etan.

OÑATI Aurrekontuak: proposamenak egiteko saioa
Herritarrek eurek proiektuak aurkeztuko aukera izango dute.
Gaztelekuan, 18:30ean.

OÑATI Jaietako txosnak antolatzeko bilera
Irekia, herritar guztiendako.
Eltzian, 19:00etan.

BERGARA Laket, Liher, Ban Sound eta Sika Kata taldeak
Pazkoetako kontzertuak.
Txosnagunean, 20:00etan.

MARTITZENA 22

ARETXABALETA Dantza Astea: izen-ematea
Maiatzaren 25etik ekainaren 1era arte egingo diren lkastaroetan parte hartzeko: *jaikielkartea@gmail.com* helbidea.
Aretxabaletan.

OÑATI 'Udaberria iritsi da. Lagundu gorputzari loratzen' hitzaldia
Amaia Diaz de Monasteriogurenek egingo du berba.
Lagun Lekun, 17:30ean.

OÑATI 'Beloagako gaztelua. Memoriaren behatokia' dokumentala
Nabarralderen eta Oñatiko Udalaren eskutik, *Memoria lekuak* jardunaldien baitan.
Kultura etxean, 19:00etan.

ARETXABALETA Santa Rita Eguna
Elizkizuna egingo dute 19:00etan, eta ostean, norberak eramandako arrosak bedeinkatuko dituzte.
Parrokian, 19:00etan.

OÑATI 'Ignaziotar Bidea' erakusketa ibiltaria
Bideak Euskadin egiten dituen 150 kilometroen gaineko irudiak eta informazioa batu dituzte paneletan.
Arantzazun.

EGUAZTENA 23

ARETXABALETA Erorketen gaineko tailerra
Atxabalta Mugiren eskutik, 65 urtetik gorakoendako da. Aurrez eman behar da izena: osasun etxean (943-71 19 59), Basotxon (943-79 78 46) edo Gizarte Zerbitzuetan (943-71 18 62.)
Arkupen, 10:00etan.

ELGETA Ferixa Nagusiko jaiak iragartzeko kartel lehiaketa
Gaur da lanak entregatzeko azken eguna.
Udaletxean, 14:00etan.

ANTZUOLA Odol ematea
Maiatzeko deialdia egin dute. Bereziki odol-emaile berriak behar dituzte.
Olaranen, 17:00etan.

BERGARA 'Dieta sin gluten: saludable y equilibrada' hitzaldia
Julia Gijarrok egingo du berba, gazteleraz, Bergarako zeliako taldeak gonbidatuta.
Irizarren, 18:00etan.

ANTZUOLA Futbolari buruzko mahai-inguruan, Mendilibarrekin eta Labakarekin
AKEren 25. urteurrenaren harira egingo dute berba Eibarko eta Realeko ordezkariak.
Torresoroan, 18:30ean.

ESKORIATZA Gabez Takarraran: aurkezpena
Lasterketaren nondik norakoak aurkeztuko dituzte.
Pleno aretoan, 18:30ean.

OÑATI Literatura solasaldia
Voces de Chernobil liburuari buruzko saioa egingo dute, Ivan Repilak gidatuta. Ikasturteko azkena izango da.
Liburutegian, 18:30ean.

ARETXABALETA 'Smartphoneak, bideo-jokoak eta haurrak' hitzaldia
Informatikan ingeniari eta Deustuko Unibertsitateko irakasle Iratxe Esnaolak egingo du berba, euskaraz.
Udaletxeko ganbaran, 18:30ean.

EGUENA 24

OÑATI Panpinen II. pijama festa
2-6 urte arteko umeendako ekintza.
Liburutegian, 16:30ean.

OÑATI Ahozkotasuna eta bertsolaritza
DBH-1eko ikasleen ikasturte bukaerako emanaldia.
Santa Anan, 17:00etan.

ESKORIATZA 'Elkartasun bira, Angula ustelak', hitzaldia
Ainhua Intxaurrendietak eta Igor Meltxorrek egingo dute berba.
Zaldibarren, 18:00etan.

OÑATI Aurrekontuak: proposamenak egiteko saioa
Herritarrek eurek proiektuak aurkeztuko aukera izango dute.
Urgain-Errekalden, 18:30ean.

ARRASATE Egun bat ramadanean
Ramadaneko egun bat nolakoa den erakutsiko dute.
Seber Altuben, 18:30ean.

OÑATI 'Navarrorum' erakusketaren bisita gidatua
Erakusketaren komisario Peio Monteanok gidatuko du bisita, *Memoria lekuak* jardunaldietan.
Parrokian, 19:00etan.

OÑATI Non Servium eta John Dealer And The Coconuts taldeak
Gure Esku Dago ekimenak antolatutako kontzertua. Sarrerak, zortzi euro.
Gaztelekuan, 20:00etan.

ARRASATE Kaskezur taldea
Kooltur Ostegunetako kontzertua. Baztango taldeak Azpisugeak diskoa aurkeztuko du. Power-pop, psikodelia eta rock doinuak bateratuko dituzte. Sarrerak, bost euro.
Gaztelekuan, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAIANTZOKIA

La casa torcida
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

El principe encantador
Zapatua: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Un lugar tranquilo
Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

ARETXABALETA

ARKUPE

Campeones
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30.
Martitzena: 16:00, 19:30.

GASTEIZ

GORBEIA

Mi familia del norte
Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 22:30.

Domekatik eguenera: 17:30, 20:00.

12 valientes
Egunero: 20:00.

Verdad o reto
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:30, 22:30.
Domeka: 16:30, 20:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Deadpool 2
Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 17:40, 19:00, 20:10, 21:30, 22:30.

Domeka: 16:30, 17:40, 19:00, 20:10.
Astelehenetik eguaztenara: 17:30, 20:00.

Vengadores
Egubakoitza eta zapatua: 16:15, 19:05, 22:00.

Domeka: 16:15, 19:05.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 19:45.

Operacion huracan

Egubakoitza eta zapatua: 16:30, 20:30.
Domeka: 16:30.

Una razon brillante

Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 20:15.

Sherlock Gnomes

Egubakoitzetik domekara: 16:30, 18:25.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Campeones

Egubakoitza eta zapatua: 17:20, 19:50, 22:30.
Domeka: 11:45, 17:30, 20:00.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

Sanson

Egubakoitza eta zapatua: 20:20, 22:30.
Domeka: 20:20.
Egubakoitzetik

domekara: 18:35.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00.

El taller de escritura

Egubakoitza eta zapatua: 17:30, 20:00, 22:30.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00.

Proyecto Rampage

Egubakoitzetik domekara: 16:30.
Astelehenetik eguenera: 17:30.

Mi querida cofradia

Egubakoitza eta zapatua: 22:30.
Domeka: 20:40.
Egubakoitzetik domekara: 18:30.
Astelehenetik eguenera: 20:00.

Cavernicola

Domeka: 12:00.

El americano

Domeka: 12:00.

KRITIKA

Amante por un día ★★★★★

Zuz.: Philippe Garrel. **Herr.:** Frantzia (2017). **Aktoreak:** Eric Caravaca, Esther Garrel, Louise Chevillote.

Sentimenduen gorabeherak

ANTONIO ZABALA

Neska gazte bat bere bikotearengandik banandu ondoren, aitaren etxera joango da bizi izatera. Aita, unibertsitateko irakaslea, ikasle batekin bizi da. Bi neskak adin berekoak dira. *Amante por un día* pelikulak hirukotearen artean sortzen diren harremanak azaltzen ditu. Neskak lagun egiten dira, eta hor, familia, adiskidetasun eta maitasun kontuak nahastuko dira. Aitaren eta alabaren artean, bikotearen eta bi lagunen artean gauzak eta sekretuak nola bideratzen diren ezagutuko dugu. Bik badakizkite hirugarrenak ez dakizkien gauzak, eta ez da erraza sekretua mantentzea, besteari desleiala izatearen sentsazioa izan barik. Maitasuna ez da erraz sailkatzen den gauza bat. Guztiok ditugu maitasunaren eta

bikotearen arteko bizitzari buruzko ideia ezberdinak, eta, kasu askotan, guk ere ez dakigu oso ondo zer nahi dugun. Batzuek oreka sentsazio atsegina izan nahi dute; beste batzuk sexu kontuetara mugatzen dira; aske izatearen sentsazioa behar dute beste askok; eta badaude bikotekidearen babesa behar dutenak ere. Lagun sentimenduak, irrika, sexua... askotariko sentimenduak daude.

Phillipe Garrel zuzendariak formatu zabala eta zuri-beltzeko irudiak erabiltzen ditu maitasunaren —edo, agian, gizakien— alde harrapaezin eta ulergaitzari buruz mintzatzeko. Zabal azaltzeko.

Aktoreek xarma eta freskotasuna ematen diote frantziarren ukitu intelektuala duen filmari.



AZKEN BERBA

ANDER ETXEBERRIA

BAM

Hartu hiru hitz eta lotu itzazu. Milioika konbinazio egongo dira, baina gutxi izango dira honelako ederrak: bihotzeko amatxo maitea. Hitz horietako bakoitzak aparteko indarra badu ere, ordena horretan (bam) parekorik gabeko hirukoa da.

Urte asko dela egunkariko artikulu batean irakurri nuen "bihotzeko amatxo maitea". Artikuluak titulu hori zeraman eta Balentin Berriotxo elorriarrari buruzkoa zen. Balentinek, gaurko Vietnamen misiolari zegoela –han erail zuten eta gerora kanonizatua izan zen–, hitz segida hori erabili zuen bere amari kartaz zuzentzerakoan 1859an.

Edonola ere, esaldi ezaguna da, Iparragirrek lau haizetara zabaldu baitzuen –garai berean, XIX. mendearen erdialdera, sortutako lanean–. Honela dio urretxuarrak *Gazte gaztetatik-an-Agur Euskal Herriari* abestian: *Agur nere bihotzeko amatxo maitea, laster etorriko naiz kontsola zaitia*.

Lerroak eta lerroak bete daitezke amari buruzkoekin. Barruan daramana adierazteko erraztasunik –nolabait esatearren– ez duen euskaldunarentzat, baina, formula ezin hobea da euskarak eskaintzen diguna; modu eraginkorrean, hiru hitzetan soilik.

BUKATZEKO

Amaia Albesen jantziak, Arrasatetik Cannesera

Donostiako Kanaki ekoiztetxeak 'Un dia más con vida' pelikula estreinatu berri du Cannesko Zinema Jaialdian, eta pelikularen ekoizleak, Amaia Remirez, Amaia Albes diseinatzaile arrasatearraren soinekoa aukeratu du Europako zinemazaleei erakusteko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Duela bi urteko Goya sarietan, Nagore Ezeiza kamerari laguntzaileak Amaia Albesen soinekoa eraman zuen jantzita. Emaizarekin gustura gelditu, eta laguna duen Amaia Remirezi aholkatu zion diseinatzaile arrasatearraren soineko bat eramateko Cannesko Zinema Jaialdian. Halaxe egin zuen donostiarrak, eta Albesi deitu zion. Hala ere, filmean zentratuta zeudela eta, estilismo kontuak lantzeko denbora gutxiarekin ibili ziren. "Esan zidan denbora gutxi izango zuela nirekin egoteko. Izan ere, topera dabilta, filma han eta hemen aurkeztzen, eta asko bidaiatzen ari dira. Ni ere lan eta lan nabil, ezkontza garaia delako eta ezkongaeikin nabilelako buru-belarri. Beraz, tartetxo bat egin nion, nigana gerturatu zen eta hainbat soineko probatu genituen. Nik egokien ikusten nizekionak aholkatu nizekion eta bera ere gustura geratu zen".

Bat beharrean, bi soineko eraman zituen, badaezpada. "Zalantzan geunden bi soinekorekin, eta, nahiz eta bera batekin erosoago sentitu, aholkatu nion biak eramateko. Gero, estreinaldiaren ostean festa bat zute-



Amaia Remirez, Albesen jantzia soinean duela, Cannesko alfombra gorrian. KANAKI

nez, agian, bestea jantzeko aukera izango zukeela esan nion", gaineratu du arrasatearrak.

Albes pozik azaldu da Remirez jantzeko aukera izateagatik. "Horrelako dei bat jasotzea beti da pozgarria. Nire jantziak halako alfombra gorri batean ikusteak ez du preziorik. Gainera, eurekin lan egitea plazera izan da niretzat. Momentu oro aritu zaizkit kontatzen zer moduz ari diren, eta argazki mordo bat bidali dizkidate. Nahiz eta eurekin egoteko aukerarik ez duan izan, gertu-gertutik bizi izan dut han izan duten esperientzia".

Goi mailako jostintzan

Apirileko azken asteburuan Balentziaga museoa egin duten jostintza ikastaro batean izan da Albes. "Curriculum asko aurkeztu zituzten eta gutxi batzuk besterik ez gintuzten aukeratu. Luxu handi bat izan da ikastaro horretan egotea Balentziaga teknika menperatzen duen goi jostintzako maisu batekin –Javier Martín–, adierazi du.

Arrasatearraren ametsa "aurrera" doa. "Egunero borrokatu behar da, baina oso pozik nago. Gustatzen zaidana egiten dut, eta pribilegiatua sentitzen naiz alde horretatik".



Amaia Albes, bere atelierrean. E.A.

R/S. 175/15 ILG.

**2mó
betaurreko:**

graduatuak
erreflexuen aurkako leiarrekin
+
eguzkitako graduatuak

99€

www.multioplicasgipuzkoa.com

Beasain • Donostia • Eibar • Errenteria
Irún • Lasarte-Oria • Tolosa • Ordizia

Kontsultatu itzazu zure optikan lanpailaren ezaugarriak.
Ez ingo da beste eskaintza batzuetan erabil.

Gure betaurreko guztiak
2018 bildumakoak dira

Otalora Lizenziaduna, 18 • Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE

Ibargarai, 16 • Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan